beiratzten dio xuabe  
baina zergatik gauden denak zain  
hori egiten det galde.  
Hemen norberak idatzi behar du  
besteren zai egon gabe.

Herria ez da ETA bakarrik  
hemen bagara hamabi  
eta herri bat eraikitzeko  
badira modu ugari.  
Bere bizitzan edonor izan  
leike txikian gudari  
geure gatazkak geure borrokak  
geure askatasun hari  
eta mesedez pakean utzi  
pentsatzen ari denari!

## OIARTZUN (2011-01-09)

*Bertsolariak: A. Arzallus, I. Elortza, A. Martin, J. Maia, X. Silveira, M. Lujanbio, J. Soto eta S. Colina.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Urteko saio handienetako bat izaten da Oiartzunen Etixerat-ek antolatzen duena; aurtengoa, Egin poto elkartasunean goiburuekin. Esanahi handiko saioa izaten da, eta urtero betetzen da Elorsoro kiroldegia.

*M. Lujanbio-J. Maia* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rhk8>*

Gaia: Bikotea zarete. Elkarrekin ibiltzen hasi eta bi hilabetera sartu zuten Maialen barruan, eta geroztik bis a bisean garatu da zuen harremana. Garatu, baina gaizki, ez baitzoazte batere ondo; zuenak ez du aurrerabide luzerik. Gaur, Jon, bisitara zoazenean, esan dizu funtzionarioak gaur ez duzula bis a bisik. Gaur kristalaren beste aldean topatu duzu Maialen.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Lagundurikan danoi II*

M. Lujanbio:     Hainbeste kilometro  
                      horrenbeste buelta!  
                      Gero ta ilunago  
                      zeneukan kopeta  
                      nik ere arantza bat  
                      barruan gordeta  
                      ekintzek aurre hartzea  
                      ona da tarteka  
                      hitz egiten ez gera  
                      atrebitzen eta.

- J. Maia: Nunbait galdua degu  
haserako sena  
gure harremana ez da  
lehen zirudiena.  
Preso zein libre egon  
hori ez da problema  
nahiz ta barruan zauden  
gertatzen den dena  
zure barrua baita  
agintzen duena.
- M. Lujanbio: Borrokan jardun nintzen  
zerbaiten defentsan  
baina bigarren gerra  
gure hontan zetzan.  
Luzaro segitzea  
akaso hobe zan  
baina nahi nun bizitza  
gozatu zenezan.  
Nerekin gelditzeko  
ezin dizut esan.
- J. Maia: Muxu bat izan leike  
betiko ituna  
eta begirada bat  
airezko gutuna  
maitasun itsaso bat  
hurrena lurruna  
barruan zein kanpoan  
gerta ahal zaiguna  
etortzen den bezela  
doa maitasuna.
- M. Lujanbio: Badator ta badoa  
hori da gudua  
mina edo arantza  
kezka, apurua.  
Burdinezkoa da orain  
nere ingurua  
ta bikote hau ez dut  
leku segurua  
lehenbizi aurkitu behar dut  
neronen burua.

- J. Maia:           Baina oraindik nahi det  
                        ipuin hau mantendu  
                        ez baitut erakutsi  
                        nahiko fundamendu.  
                        Kanpoan errexa da  
                        lore ta lausengu  
                        neguan gaude eta  
                        hau ezin zuzendu  
                        baina udaberriari  
                        ez lorerik kendu.
- M. Lujanbio:       Datorkeen horren ta  
                        udaberriaren  
                        aurrejuzkurik ez dut  
                        egiten dena den.  
                        Harreman haragizko  
                        ilun xamar bat lehen  
                        orain kristalaz bi alde  
                        nola jarri garen  
                        nahiago izan dedin  
                        urrun baina garden.
- J. Maia:           Hala ere neretzat  
                        hain zera eredu  
                        nahiz ez dudan egin nahi  
                        otoi ta erregu.  
                        Berriz ni ta zu gera  
                        orain ez gaude gu.  
                        “Maite zaitut” ja ezin  
                        badizut bialdu  
                        beti esango dizut  
                        “Maite zaituztegu”.



## **GETARIA (2011-01-15)**

*Bertsolariak: P. Etxeberria, I. Lazkano, A. Egaña,  
Mañukorta, I. Murua eta S. Lizaso.*

*Gai-emailea: Jon Zaldúa.*

Azken urteotan ohiko bihurtzen ari den saioa. Entzule asko  
elkartu zen bertsolariak entzutera.

### *I. Murua*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rimk>*

Gaia: Bi bertsolari epailearen aurretik pasatu berri dira, saioa batean  
esandakoagatik. Zu, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakari  
izanik, kezkatzen al zaitu egoerak? Eta ba al duzu aurrerantzean  
gerta daitekeenaren beldurrik?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I*

Badaukat kezka badut beldurra  
ezkuta nezake nekez.  
Arabarrak bi Madrilen ziren  
atzo arratseko partez  
epaile batek deitu zituen  
deitu behar ez zianak berez.  
Epaile aurretik pasatu dira  
legearen aurretik ez.

Beren delitu izan omen zen  
izen batzuk esatea  
preso zeudenak omen zirala  
hara hor errematea!  
Ez al dago ba gure herria  
ia-ia preso? bete?  
Hitza're preso da libre ez baita  
iritzia ematea.

Bakarren batek esango luke  
“Gerora Jainkuak goarda!”  
baina ez gaitezke honen aurrean  
kokildu eta kobarda.  
Segi dezagun lanean denok  
kizkurak inork ez karda!  
Egiai aurpegi eman eta  
aurrera segi behar da!

### *S. Lizaso-I. Lazkano*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rjp0>

Gaia: Zuek biok lankideak zarete, egunkari berean lan egiten duzuen lankideak. Zu, Sebastian, politika gaiez arduratzen zara; Imanol, eskelez. Egunero bezala, bazkalorduan elkartu zarete, eta egunero bezala, zuen lanaz kexatzen hasi zarete.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso:       Ezin ukatu irakurria  
                      jendeak dula irensten  
                      ustegabeen sartu ohi ditut  
                      hainbat ziri eta ezten.  
                      Politikoez nola ez duten  
                      nere lanikan errezen  
                      askotan zail da haien egiak  
                      eta gezurak bereizten. (bis)

---

(1) Bakina bat= Makina bat.

- I. Lazkano: Gogorra degu politikari  
eta honen arpegia  
neurri batean onartu leike  
baina hau da gehiegia.  
Azkenaldian aspertzen ere  
ni hasia nago ia  
honena beti dena gezurra  
nik zoritxarrez egia.
- S. Lizaso: Halabeharrez geure lanean  
saiatzen gera bakoitza  
ahalik ondoen betetzea da  
gizalegean baldintza.  
Nahiago nuke nik dudana lana  
errezagoa balitza!  
Maiz sukaldea aipatzen dute  
ta ikuiluan dabilta. (bis)
- I. Lazkano: Pena asko ta pozetik gutxi  
ohi degu nere lanean  
bainan gauz bera egin beharra  
besterik ezin danean.  
Zerbait badaukat pertson bakoitza  
jartzen dedana onean  
gaiztona ere on bihurtzen da  
nik idazten dedanean.
- S. Lizaso: Zure lanaren emaitza beti  
iluna bezain tristea  
eta nik berriz eman nahi nuke  
amesten den albiste  
bidean gaude ta espero det  
berehala iriste  
“Oraingoan bai!” “Oraingoan bai!”  
titularra idaztea. (bis)
- I. Lazkano: Bakina<sup>1</sup> batek sala izan nau  
“Zer ofizio ergela!  
Hik nola kristo idazten diguk  
guri hoinbeste eskela?”.  
Poz bat badaukat azkenerako  
gertatua gertauko dela:  
neure eskela idatzi gabe  
mundutik juango naizela.

## MUNGIA (2011-01-16)

*Bertsolariak: A. Estiballes, E. Lekue, On. Enbeita  
eta M. Amuriza.*

*Gai-emailea: Iñaki Arbildu.*

Urtero egiten dute bertso saioa San Antontxutako azokaren bueltan. Eguerdian izan zen, plazako karpan.

*A. Estiballes-E. Lekue*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rkrc>*

Gaia: Bertso pare batean kontaiguzue joan den 2010. urtean gertatu zaizkizuen gauza onak.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala I*

E. Lekue:           Gauza on batzuk gertatu jakuz  
                          onartu behar da behintzat  
                          azkenaldiko gertaerak be  
                          hartu dagiguzan aintzat  
                          Euskal Herrian barriz atea  
                          jo dau eta esperantzak.  
                          Barri ona da hori neuretzat  
                          eta beste guztiontzat.

A. Estiballes:      Agiri batek bandoa jo dau  
                          aspaldian tarrapatan  
                          bi mila ta hamarrean hasita  
                          oraintxe geu zalapartan  
                          baina bakean sinistu behar  
                          dogu danok geure baitan  
                          hamarrekoa galdu ez dadin  
                          bi mila eta hamaikan.

- E. Lekue: Ta atzo bertan beste barri bat  
gertatu zan neuretzako  
Zamudioko lagun bat euan  
kartzelan herritik kanpo  
ta atzo aske geratu jakun  
zorte opari halako  
ia aurren be doguzan danok  
holango barri on asko.
- A. Estiballes: Bi mila ta hamar dino Arbilduk  
ez eizu galdu brujula!  
Txapelketa bat ere egon zan  
ta egingo deusut burla  
berri on bat hantxe jaso neban  
berri on eta mardula  
berri onena hori izan zan  
bigarren egin zendula.
- E. Lekue: Eta albotik zuk sartu gura  
al deustazu barriz bala?  
Bai jente danak ederto daki  
txapelduna zeu zarala.  
Halan be entzule asko hurbildu  
ta esan deustie hala:  
nahiz ta txapela zeuk irabazi  
ni neuk merezi nebala.
- A. Estiballes: Lo egin barik pasau al dozuz  
horregatik hamaika gau?  
Txapela merezi eta Etxahun  
neuk irabazi neuen rau!  
Jendeak zeuk merezi zendula  
zurrumurruak hor dirau  
bertsotan ulertzen ez dauenak  
gauza asko esaten dau.

## *On. Enbeita-A. Estiballes-E. Lekue-M. Amuriza*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rlto>*

Gaia: Zu, Onintza, moda kontuan famatua den Adolfo Dominguez diseinatzailea zara. Gaur, pasarelarako jantzi beharko dituzu atzeko hiru modelook.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Eguna pasa nekean eta*

On. Enbeita:      Etxahunentzako ez neuke gura  
                         Quechua ta Ternuarik  
                         pintzazko praka baltz dotoreak  
                         dauzkadaz zuretzako nik  
                         zapata baltzak eta ulean  
                         punta batzuk markaturik  
                         sinestu be ez dabe egingo  
                         Larrabetzuko danik. (bis)

E. Lekue:          Beraz Adolfok ni ikusten nau  
                         janzeraz ez lar edarto  
                         bere aholkuak bere esanak  
                         ondo aditu beharko.  
                         Gaur ez naz joango pasarelara  
                         osasunez nabil txarto  
                         baina arropak gordeko dodaz  
                         Inauterietarako. (bis)

On. Enbeita:      Belarritako dizdiratsuez  
                         Miren belarriak bete  
                         minigona bat eta leggins-ak  
                         lortu zeinkez oso merke  
                         eskote on bat tiranteakaz  
                         gorako hartuko neuke  
                         look femenino eta gaztea  
                         behar da urgentemente! (bis)

- M. Amuriza: Belarrietan ez dot zulorik  
ta asmorik be ez egiteko  
nire itxura aldatu dozu  
Adolfo dagoeneko  
eskotea ta minigona bat  
hortxe itxi nozu seko!  
Ez dago zetan dana erakutsi  
femeninoa izateko. (bis)
- On. Enbeita: Arkaitzen kanak tapetako be  
tinteren bat egongo da  
ta gero igual jarriko deusat  
franelazko alkandora.  
Dodore nahi dot gerritik behera  
dodore gerritik gora  
txapeldunari toketan jakon  
elegantzia emonda. (bis)
- A. Estiballes: Adolfo beitu eizuz Delfin ta  
Versacetar Donatela  
horrek nahi dabe erropa gutxi  
baina oihartzun itzela.  
Aterako naz mundura amak  
ekarri nindun bezela  
ta tinterik ez kanak tapatzen  
hoba Bizkaiko txapela. (bis)



*Arabako Eskolarteko Txapelketaren finala. Legutio.  
Argazkia: Arabako Bertsozale Elkarte  
Iturria: XDZ*

## USURBIL (2011-01-16)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Egaña, On. Enbeita  
eta U. Alberdi.*

*Gai-emailea: Inazio Usarralde.*

*U. Iturriaga-U. Alberdi* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11m04>*

Gaia: Zuek biok denok izan ohi ditugun kuadrillako bazkari horietako batean zaudete. Gutxitan elkartzen zarete, eta gaur tokatu da. Bazkaldu duzue, eta tabakoaren aurkako lege santu hori dela eta, erretzera kanpora. Egiten zuen eguraldiarekin, jatetxe ondoko zelaian etzan zarete biok, eta erretzen ari zaretela, kearekin irudiak egiten hasi zarete. Erretzen duzuen unean sortzen ari zairen irudiekin jolasean zabiltzate.

Neurria: Zortziko handia

*Doimua: Zeru altuan zegoen Jaunak*

U. Iturriaga:        Etzanda gaude hemen ederto  
                         dena laino ta dena ke  
                         putz egin dut ta masa bat sortu  
                         forma hartu derrepente.  
                         Hor doan hori bihotz bat omen  
                         nahiz ta ez nabaritu jope!  
                         Eta gainera gura baduzu  
                         zeuretzat har zenezake.



- U. Alberdi: Kea hartu ta kea bota dut  
ke pila bat dut begian  
eta halere irriparre bat  
marraztu zait aurpegian  
bihotz txiki bat hegan ikusiz  
neretzako da agian  
gezi bat egin eta sartu dut  
zure bihotzan erdian.
- U. Iturriaga: Nolako gauzak heltzen zaizkizun  
Uxue lagun burura!  
baina akaso deklaratzeari  
horixe zenuen gura.  
Ahotik kea jaurti ta doa  
zure gezia zerura  
bihotz barrura sartu danean  
hura sagar bihurtu da.
- U. Alberdi: Ta sagarrari kosk egin diot  
Eba zenaren modura  
ta segituan pasatu gara  
haragian bekatura.  
Bere eskua sartu orduko  
nire gonaren barrura  
gora beiratu ta aibala ostia!  
Bihotza desagertu da.
- U. Iturriaga: Hain juxtu une horretan aske  
neuzkan botoia ta prakak  
ta komentario horrek utzi nau  
erotismo orotatik at.  
Bihotzagatik ez larritu zu  
beste bat egingo dut zart!  
Problema hortik ikusi ezkeror  
pakete oso bat daukat.
- U. Alberdi: Bihotza joan ta bihotza etorri  
gastatzen da paketea  
baina ordurako nahikoa degu  
bestean bila joatea.  
Zelaian gora begira gaude  
ta zeinen ondo maitea!  
Berririo diot: ze zortea den  
erretzaile izatea!

U. Iturriaga:      Ai kearekin ahaztu ahal balira  
                         arazoak ta problemak!  
                         Zeru honetan marraztu ahalko  
                         nizekizuke bihotz denak  
                         baina hain juxtu biok askatzen  
                         genbiltzanean barrenak  
                         nire haurrak eta zure senarra  
                         al dira hor datozenak?

U. Alberdi:        Bai ta gainera azkartxo datoz  
                         eta haserre aukeran  
                         joe juxtu gu genbiltzanean  
                         gure ke hontan primeran!  
                         Itxoin! Laino bat marraztuko dut  
                         juxtu behar dugun eran  
                         igo gaitezen laino gainera  
                         ta desagertzera hegan.



*Bertso Eguna. Denis Itsaso, Jon Agirresarobe eta Mikel Irizar. Donostia.  
Argazkilaria: Estibalitz Esteibar  
Iturria: XDZ*

## TOLOSA (2011-01-22)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Egaña,  
A. Estiballes, A. Mendiluze eta J. Maia.*

*Gai-emailea: Amaia Agirre.*

Txolarre Irratiaren aldeko jaialdia. Leporaino bete zen Leidor aretoa larunbat arratsaldean; denera, zortziehunen bat lagun.

*A. Estiballes* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rsc0>

Gaia: Urteak daramatzazu preso. Gaur, bost urteko zure alabaren bisita izan duzu, eta begietara begira, halaxe esan dizu: “Aita, ikastolan diote kartzelan gaiztoak sartzen dituztela. Zu ez zara gaiztoa, ezetz?”.

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoka, 11 puntuz, plurirrimoa  
*Doinua: Izarren hautsa egun batean*

Begira alaba bizitzan egin  
ditut akats nabarmenak  
txikia zara ta ez naiz hasiko  
hemen gaur kontatzen denak.  
Asko ezin ditut oraindik aipa  
baina zu lasai naiz zure aita  
eta gaur nire lorpenak  
hoietzek dira hain zuzen ere  
zukiko maitasunenak  
eta gainera gaiztoa ez naizela  
esaten dit gaur barrenak.  
Nik maite nuen gure hizkuntza  
gure herria nahi nuen bultza  
ta hoiek dira gaiztoenak  
hemen sartu nindutenak.

Dena ezin da berriz kontatu  
txikiegia baitzara.  
Edozer gauza esango dute  
akaso nigatik hara  
nintzela hiltzaile zein terrorista  
baina alaba zuk goruntz bista  
eta ez izan ikara.  
Amatxoi ondo heldu eskutik  
ta lasai ikastolara  
joan zintezke ta aurrez aurre  
eutsi denei begirada.  
Errugabeak gu garelako  
ez dut merezi hainbeste malko  
ta lasai egon alaba  
laister libre izango gara.

Kristal atzetik ikus dezaket  
etxerantz nola doazen.  
Funtzionarioak zera agindu dit  
“Zeldarantza zoaz zuzen!”.  
Ta amatatu dut telebista  
ta topera jarri konpak diska  
ta hasi naiz gogoratzen  
nola neuk ere haur nintzanean  
ez nuen ezer ulertzen.  
Eta ohean hantxe etzan naiz  
garai haietxek oroitzen  
No time for love ta taldea Hertzainak  
ileak zutik ta estu zainak  
Gari ari da kantatzen  
“Ez dute uzten maitatzen...”.

## DONOSTIA (2011-01-29)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, B.  
Gaztelumendi, M. Amuriza, I. Zubeldia, A.  
Barandiaran, A. Egaña, J. Maia, A. Estiballes, I.  
Elortza, A. Martin*

*Gai-emaileak: Alaitz Rekondo eta Egoitz Aizpuru.*

Bertso Eguneko saioa Kursaalean, arratsaldeko seietan.  
Kamaleoia izan zen ekitaldi honetako irudi nagusia.

*A. Arzallus-M. Lujanbio* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rtec>*

Gaia: Plazaz plaza, gai anitzi buruzko iritzia eskatzen zaizue bertsolariei.  
Askorik ezagutzen ez dituzuen gaiak izaten dira anitzetan, edo urruti  
gelditzen zaizkizuenak. Iritzi hori eta pentsamendu hori kantuan  
bilakatze horrek zer pentsatua eman izan dizue.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Ilun ikarak azken argia*

A. Arzallus:       Pentsatzen dute “Bertsolariek  
badakizkitez gai denak  
beren herriko ingurutxoak  
urrun herriko kondanak”.  
Pixka bat jakin gehiegi jakin  
orduan datoz problemak  
ez dakidanaz kantatu ditut  
nere bertsorik onenak.

M. Lujanbio: Ez dakizunaz pentsatu ezker  
badago zer ikasia  
mundu mailako arazoa nahiz  
gure herriko eskasia.  
Ez dugu iritzi iraultzailerik  
ez dugu arrazoi guzia  
bakarrik dugu gertatzen denaz  
begirada berezia.

A. Arzallus: Ta begiradak ikuspegi bat  
zabaltzen digu munduan  
geure herriko gatazkatzotan  
edo urrutiko guduan.  
Bide berrian iritzitxo bat  
joaten da bertso moduan.  
Ez dakizuna badakizula  
ohartzen zara orduan.

M. Lujanbio: Ez dakizuna dakizunean  
orduan haizea alde.  
Gure etxeko arazoak ez  
ez dira joaten debalde.  
Palestina, Irak, Egipto, Tunez  
mundu bat alderik alde  
baina arazo denen funtsean  
arrazoi berberak daude.

A. Arzallus: Sarri zentroan arrazoitxo bat  
eta gu horien bila  
ta espiral bat doa Parisa  
beste espiral bat Madrila  
beste espiral bat bada Europa  
Afrika ilargi pila.  
Horrexegatik dugu mundua  
mina eta borobila.

M. Lujanbio: Denari hitzezko begirada bat  
bertsoak hortantxe zetzan  
zauritzen gera pentsatzen dugu  
ta ez silloiean etzan.  
Gure bertsoak baina ez doaz  
kontsigna baten defentsan  
gure bertsoak joaten dira  
entzuleak pentsa dezan.

A. Arzallus: Eta horrela saiatzen gara  
geure baita defendatzen  
entzuleak ta bertsolariak  
eseri eta pentsatzen.  
Ez du mundurik aldatzen baina  
ez du begirik bendatzen  
eta agian lagun lezake  
gure barrua sendatzen.

M. Lujanbio: Munduan zenbat gatazka eta  
zenbat arazo kalkula!  
Politika ta ekonomia  
Europalderuntz brujula.  
Txikia gora etxera etorri  
ta ezin aurkitu formula.  
Azkenerako dakiguna da  
askorik ez dakigula.

## **EREÑOTZU (2011-02-11)**

*Bertsolariak: U. Alberdi eta J. Maia*

*Gai-emaileak: Afaltiarak*

Ereñotzuko Larregain sagardotegian, Zero Zabor plataformak antolaturiko bertso afaria. Koreografia bat grabatu zuten, errausketaren aurkako kanpainan erabiltzeko.

*U. Alberdi-J. Maia* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rugo>*

Gaia: Oiartzun, Hernani eta Usurbil.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Espainian behera*

J. Maia:           Desagertu daitezen  
                      gure bazter beltzak  
                      ta gauzatu daitezen  
                      biharko ametsak  
                      gure bedeinkapena  
                      jaso dute behintzat.  
                      Horra hiruki garbi  
                      baten hiru ertzak:  
                      hiru eredu dira  
                      herri guztientzat. (bis)



- U. Alberdi: Berdin herriko neska  
mutil nahiz alkate  
nahiz kanpotik eduki  
hamaika atake  
helburu baten bila  
denak jo eta ke  
auzolana sustatuz  
eta atez ate.  
Besteok jarraitzeko  
bide bat zerate. (bis)
- J. Maia: Hainbeste hamarkadetan  
luza den kordela  
dena zikinkeria  
sortzen genbiltzela  
mendi ala ibaiak  
destinu krudela  
baina ibiliaz bide  
hortan goazela  
beste mundu mota bat  
posiblea dela. (bis)
- U. Alberdi: Ta horrek mantentzen du  
gure esperantza  
nahiz hasieran bazen  
nahikoa zalantza  
denak konbentzituta  
pozik gaude antza.  
Segi dezagun beraz  
helburutarantza  
buruan klik txiki bat  
delako iraultza. (bis)
- J. Maia: Ba bai ta egin behar da  
aztertu ta solas  
irudimenarekin  
sortu eta jolas  
gure ilusioaz  
ta gure gogoaz  
ez abiadura haundiz  
bazter denak joaz  
gu gure tren txikian  
azkarrago goaz. (bis)

U. Alberdi:       Dena esana dago  
                      ta hortan igeri.  
                      Guri begira jarri  
                      dira hainbat begi  
                      baina ez da izango  
                      asko ta gehiegi.  
                      Gaurkoa eredugarri  
                      begitandu zait neri.  
                      Beraz bide honetan  
                      segi segi segi!. (bis)

J. Maia:           Denok ulertu degu  
                      daukagun papela  
                      nola banatu behar den  
                      munduko pastela  
                      baina pioneroak  
                      dakar erregela  
                      ta gure Xabier Mikel<sup>2</sup>  
                      bertan dagoela  
                      mila zorion eta  
                      bejondeizuela! (bis)



*Bertso Eguna. Donostia.*

*Argazkilaria: Alberto Elozegi*

*Iturria: XDZ*

---

(2) Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkateari buruz ari zen.

## URRUÑA (2011-02-11)

*Bertsolariak: S. Colina, A. Egaña, O. Barroso eta  
S. Lizaso.*

Gai-emaileak: Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta.

Ehun eta hogeit hamar lagun elkartu ziren Pausuko Xaia ostatuan,  
Iraitz Gesalaga Tximasean alde antolaturiko bertso afarian.

*A. Egaña-O. Barroso*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11rvj4>

Gaia: Otxaldeak baditu bertso batzuk idatziak, *Gaztetasuna eta zahartasuna*  
izenburua dutenak. Zer behar du bertsolariak, gaztetasuna ala  
zahartasuna?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Nafarroako mendi gainetan*

A. Egaña:           Hara Otxalden bertsoren batzuk  
                          Odei jarri dute zita  
                          berrogeita hamar urtera aurren  
                          egin behar det bisita.  
                          Bertsolariak komeni zaio  
                          hainbeste esperientzi-ta  
                          zahartasuna luke onena  
                          gazte dela sinetsita. (bis)

- O. Barroso: Zahar izanda orduan ongi  
gazte izanik bada uste  
hoita bi urte beteak ditut  
berriz beteko nituzke!  
Baina askotan izan nahi ditut  
berriz hemezortzi urte  
ordea Egañai begiratuta  
zaharra izan nahi nuke. (bis)
- A. Egaña: Berrogeita hamar gainean dauzkat  
ta zuk hogeita bi urte  
pentsatzen jarritz ze inbidia!  
Ai mutiko zenbat suerte!  
Lehengo bertsoan zeuk esan duzu  
“Egaña izan nahi nuke”  
ba nik lau txapel emango ditut  
zure adinaren truke! (bis)
- O. Barroso: Nere adina ukan nahi duzu  
lasai etxetik irtenda  
bada atzera eginez duzu  
zuk sekulako zerrenda.  
Ilerik gabe gorputzez bueno  
begira nolako prenda!  
Hau gaztetxean koplak kantatu  
eta fite gaztetzen da. (bis)
- A. Egaña: Pertsona zahartzen joaten dela  
ez da ez mito ez leienda  
eta hogeita bi urtekoa da  
nere aldameneko prenda.  
Hogeia nahi ditut hoita bat’e bai  
hoita lau bai ze zerrenda!  
Baina hogeita bi ez nituzke nahi  
soldaduzkan nengoen-da! (bis)
- O. Barroso: Nik soldaduska ez dut egina  
maiz galdegina didate  
ez naiz joanen. Ideia hori  
utzi ezazu aparte!  
Berrogeita hamar urte beteak  
eta lau txapel gaur arte  
laroei urtekin txapel batekin  
konformatuko nintzake. (bis)

A. Egaña:           Gazte garaian bat ibiltzen da  
                          triliri eta tralara!  
                          Gero adina dela tarteko  
                          gauza batzuk behar laga.  
                          Larogei urte eta txapel bat  
                          neuk'e firmatzen dut hara  
                          txapel bakarra hain xuxen ere  
                          gomazkoa baldin bada! (bis)



*Bertso Eguna. Donostia.  
Argazkilaria: Alberto Elozegi  
Iturria: XDZ*

## **LEZO (2011-02-19)**

*Bertsolariak: A. Rezola, I. Zubeldia, A. Lizarralde  
eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Naroa Sasieta.

Mainontzi Bertso Eskolak urtero antolatzen duen jaialdia. Gezala aretoan izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Ehun eta hoge entzule.

### *I. Zubeldia* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s0lg>

Gaia: Astelehena egun garrantzitsua izan zen, mundu guztian: San Balentin eguna, maiteminduen eguna. Nola pasatu zenuen zuk?

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

*Doinua: Iparragirre abila dela*

Asteartea hamalaua zan  
jende dana komeritan  
"Harek bonboiak ekarri ditu"  
auzokoa inbiritan.  
San Balentin eguna  
ospatze ez deguna  
ailegatu zan korrikan  
ta hala zala ohartu nitzen  
gaueko hamar t'erditan. (bis)

Nere neskari noski ez zitzaion  
eguna ahaztu inola  
afalostean hanka azpitik  
hala sartu zidan gola:  
"Ze egun degu Iker?"  
"Asteaizkena laister"  
ta esan behar nion hola  
garai hauetan gure baratzan  
larrosarik ez dagola. (bis)

Garai batean egun horretan  
ibiltzen ginen serio  
nobedadea eta gazteak  
maiteminan ondorio.  
Baina gaur egunean  
ze pentsa behar dean  
esango'izuet propio:  
garai batean emandakoek  
ez al dute ba balio? (bis)

### *A. Egaña-A. Lizarralde*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s1ns>*

Gaia: Andoni eta Ander soldaduak, elkarren kontra borrokan aritzen zaretenak,  
baina gaur aurrez aurre topo egin duzue, inguruan inor ez daukazuela;  
zuen kiderik inor ez, eta eskuak hutsik, elkarri begira zaudete.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Nere gogoa hegan dijoa*

A. Egaña:       Fusila eta granadak dauzkat  
                      ikusten dedanez doble  
                      orain artean gure armadan  
                      zerbitu dugu dotore  
                      baina pentsatzen jarri ezkero  
                      ze aberri ze ohore  
                      geure buruak defenditzea  
                      ez ote da askoz hobe?

A. Lizarralde: Zenbat denbora pasatu dugun  
elkarren tropak egurtzen  
begi batetik begiratzen ta  
gatilueri estutzen!  
Honek zentzurik ez dula bat'e  
hasiya nago pentsatzen  
nik gorrotatu behar baitzaitut  
ta ez zaitut ezagutzen.

A. Egaña: Ba ni neu ere besten esanak  
egin nahi nau aberea  
baina besteren helburua da  
eta besteren xedea  
nere tiroei eskerrak eurek  
ipintzen dute legea  
eta jadanik erabaki dut:  
gerra hau ez da nerea.

A. Lizarralde: Ni ere hortan nago laguna  
ez nabil gerran prestua  
zertarako ta baldin badugu  
keinu batez saihestua.  
Ikusten zaitut larri xamar ta  
nere kontura estua  
eman zaidazu nere kide asko  
hil izan ditun eskua.

A. Egaña: Garai batean zeuk bezelaxe  
igual jokatu dut torpe.  
Orain zergatik aurreko denak  
hiltzen aritu a tope?  
Nola jokatu gure gaineko  
agintariek diote.  
Gu bezelako bi gaixorekin  
estadurik ez legoke.



- A. Lizarralde:     Eta gerrarik ez litzateke  
                          ziur izango horrela  
                          mugarik ere ez bailitzake  
                          jarri beharrikan bela.  
                          Jakin ezazu gerra hau sortu  
                          duten hoikin nagoela  
                          seguru nago afari bueltan  
                          parrezka ari direla.
- A. Egaña:           Agintariek afari bueltan  
                          hainbat irri ta zer konta  
                          baina zergatik egin behar dugu  
                          guk biok elkarren kontra?  
                          Utzi fusila neuk utziko dut  
                          ta ezerk ez dit inporta  
                          zigarrotxo bat erreko degu  
                          galerazia dago-ta!
- A. Lizarralde:     Legi<sup>3</sup> hau jarri duena ere  
                          izango dugu gaixua  
                          ez dut esaten hemen gailendu  
                          behar denikan muxua.  
                          Hau harremana dotoria da  
                          bazter dezagun izua  
                          zuk emaidazu zigarro bat ta  
                          nik ipiniko dut sua.

---

(3) Legi= Lege

## **SARA (2011-02-26)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, M. Amuriza, A.M.  
Peñagarikano eta S. Lizaso.*

*Gai-emailea: Andoni Egaña*

*Gai-jartzaileak: Amaia Vazquez eta Andoni Egaña*

Afalostean egindako saioa. *Bertsolamintzaren* baitan, Amaia Vazquezek, Eric Dicharryk eta Andoni Egañak emandako hitzaldien ostean egindako bertso-saio esperimentalak. Ariketa bereziak proposatu zizkien Andonik bertsolariei, eta bertsoaldi batzuen ostean, landutako ariketei buruzko komentarioak gehitu zituzten hizlari eta bertsolariek.

*S. Lizaso- A.M. Peñagarikano* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s2q8>*

Gaia: Hik, Sebastian, askotan pentsatu izan duk Peña txoropito bat dela.  
Hik, Peña, askotan pentsatu izan duk Sebastian harropuz bat dela<sup>4</sup>.  
Oraintxe zaudete aurrez aurre, nahi duzuen aurpegira esateko moduan.

Neurria: Zortziko handia

*Doimua: Anai-arrebak hementxe nator*

|            |                                                                                                                                                                                                                              |
|------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| S. Lizaso: | Sarri askotan eginak gera<br>biok kantatzeko zita<br>herri, auzo ta elkarreetara<br>eginak gera bisita.<br>Txoropitoa degula Peña<br>sarri pentsatzen hasita<br>pentsatu gabe bururatzen zait (bis)<br>aurrez aurre ikusita. |
|------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

---

(4) Elkarri begira kantatu zuten, aurrez aurre jarrita.

A.M. Peñagarikano: Baina desberdin dira erabat  
aurrea eta atzea  
ta aurrez aurre gauden ezker  
nahi nuke garbi jartzea  
besten akatsak kontatzen hemen  
iritsi al da trantzea?  
Askoz hobia ez al da izango (bis)  
nork bereak zuzentzea?

S. Lizaso: Nere ustetan bide hortatik  
ez doa gure auzia  
bertsotarako errespetoa  
zaharrek erakutsia.  
Pentsatu eta gauza asko dut  
nik esan gabe utzia  
ta zuri buruz sekula ez dut (bis)  
esan nahi dudana guzira.

A.M. Peñagarikano: Itxura danez besteren aurka  
zuk jotzen dezu dultzina  
besten akatsak hola esatea  
ez da gauza atsegin  
bainan hori bai garbi badakit  
banaiz aitortzeko adina  
ez zinakeela azpeitiarra (bis)  
harroputza ez bazina.

S. Lizaso: Azpeitiar ta harroan famak  
badu hainbat konpromisu  
errespetoak hala ere nigan  
badu behar hainbat pisu.  
Nere akatsak neuk aitortzeko  
zertan eskatzen didazu?  
Nik ez dadukat zer esanikan (bis)  
zeuk esaten baitituzu.

A.M. Peñagarikano:      Hainbat urtetan geratu gabe  
batera eta bestera  
hamaika aldiz zuk esan dezu  
“Peña txoropito zera”!  
“Ta zu harroputz” erantzuten det  
hori bientzat galera.  
Kanta ezazu errespetoan (bis)  
eta moldatuko gera.

*A.M. Peñagarikano*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s3sk>*

Gaia: Nola ikusten duk Euskal Herria?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun I*

Gure gainetik dauden horiek  
asko ez ditut miresten.  
Zertan dabilta egingo ez diren  
proiektu haundiak aurkezten?  
Lehen itsusi zegoen hura  
gehiago ari da itsusten.  
Ni ezkorra naiz etorkizuna  
garbi ez baitut ikusten.

Nahi eta ere gure begiko  
malkorik ezin legortu  
berrogei urte gauza berean  
eta ez da ezer lortu.  
Hamaika aldiz esan dudana  
berriro nahi dut aitortu:  
ilunpe hontan nik nahi nukeen  
eguzkirik ez da sortu.

Beste batzuen konpasetara  
beti egiten da dantza.  
Gure kasoan beti txarrera  
okertu ohi da balantza.  
Bakar batzuek Euskal Herria  
hola nahio dute antza.  
Lehen zaharrek esaten zuten  
“Izan‘zagun esperantza”.

### *M. Lujanbio* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s4v0>

Gaia: Aspalditxoan egin ez zenuena egin duzu gaur: kanposantura, hilerrira  
bisita. Bueltakoan, bertsoak ia berez sortu zaizkizu.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke*

Amona dago kanposantuan  
aspaldi bertan etzana  
harrien pean gure arbasoak  
eta gure iragana.  
Buelta koxkor bat ta etorri zait  
han pentsamentu andana  
irten burua jiratu eta  
ze esaldi zegoana:  
"Zugatik laixter esango dute  
gaur gutaz esaten dana". (bis)

Arduraz eta kezkaz egin det  
azkeneko begirada  
karratua ta marmolezkoa  
han dago izen ilada  
luzaro bizi nahi zuten batzuk  
lurpean hor daude jada  
berdin gazteak berdin umeak  
eta berdin zaharrak hara!  
Biharrik igual ez da helduko  
gaur bizi egin behar da. (bis)

Nik ez nuke nahi betiko egon  
harrizko lau hormen erdin  
nik ez nuke nahi nere lagunek  
hemen hartu dezaten min.  
Egunen baten hilko banitza  
hilko bainaiz denen berdin  
ahaztu kutzak ta ahaztu eskelak  
nahiz triste izan nahiz samin  
bota airera nolabait ere  
bizirik geratu nadin. (bis)



*Umerez jardunaldiak. Villabona.  
Jone Miren Hernandezen hitzaldia.*

## **ANDOAIN (2011-02-27)**

*Bertsolariak: A. Sarriegi, J. Sorozabal, A.  
Mendiluze, S. Colina, I. Alustiza eta A. Egaña.*

*Gai-emailea: Joxe Manuel Oiartzabal.*

Sahararen alde urtero antolatzen duten bertso jaialdia. Bastero kulturgunean izan zen, igande eguerdian.

*A. Sarriegi- A. Mendiluze-S. Colina*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s61c>*

Gaia: Hiru hauek, beren lanbidea dela eta, etxetik urrun denbora asko pasatzen duten horietakoak dira: Sustrai, itsasoan ibiltzen den marinela denez, luzaro egoten da etxera azaldu gabe; Aitor Sarriegi, berriz, bere kamioia hartu eta European barrena ibiltzen da, eta zer esanik ez Aitor Mendiluze, enpresari negozio gizona, bateko Indiara, besteko Txinara. Nola daramazue zuen bizitza?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Mendiluze:

Kaixo ta agur sartu orduko  
berriro etxetik martxa  
maiz ez dakigu zertara eta  
maiz ez dakigu norantza.  
Bizitza nola daramakigun  
hori da galdera latza!  
Guk bizitza ez daramakigu  
bizitzak geu garamatza.

- A. Sarriegi: Etxetik irten ta Italira  
handik agian Frantzira  
kilometroak egiten ditut  
ez dakit zenbat guztira  
nere lagunak bolantea ta  
irratia soilik dira  
eta kabinan hartzen nau loak  
argazki bati begira.
- S. Colina: Gu Seychelle-etan ibiltzen gara  
sareari eragiten  
maiatzera arte bueltatu gabe  
nahiz urtarrilean irten  
herrimin horrek etxemin horrek  
nahiz sortu nahiko etsipen  
gutxin-gutxinez etxean ez dut  
enbarazurik egiten.
- A. Mendiluze: “Enbarazurik ez det egiten”  
maiz diogu irriparrez  
geure baitako aitzaki txarra  
baten bat jarri beharrez  
baina etxean zer gelditzen den  
ezin da irentsi errez.  
Etxetik kanpo zerbait gera gu  
eta etxean inor ez.
- A. Sarriegi: Nahiz ta Aitorrek etxetzat hartu  
hoteletan garestinak  
nahiz eta Sustraik kamarotean  
balantzan kolpa ixkinak  
hirurok ere barru-barrutik  
jaten gaitu etxeminak.  
Zeinen lanbide desberdinak ta  
ze sentimentu berdinak!



- S. Colina: Ze gogorra den neska-laguna  
agurtuz muxukatzea!  
Ze gogorra den hantxe uztea  
alaba ta pelutxea!  
Zertan gabiltza negar ta negar  
kontatuz gure trantzea  
gure eskutan baldin badago  
ofizioz aldatzea.
- A. Mendiluze: Ia negarrez zertan gabiltzan  
zergatik penak kontatu?  
Hasi ginen ta ezin utzita  
ez al zera konturatu?  
Lehenbizi nahita irabazteko  
ta orain ezin geratu.  
Ordaintzen degu etxea eta  
bizitza hipotekatu.
- A. Sarriegi: Ofizioa alda dezagun  
badaude aukera pranko  
baina ez Sustrai garai onena  
hau ez da horretarako  
ta Aitor ere ezberdina da  
pentsatuta neretzako:  
gu bizitzeko gabiltza hola  
zu gehio nahi dezulako.
- S. Colina: Problemak berdin sortu litezke  
kanpoko nola etxeko  
ta lanbideak ez gaitu jartzen  
amildegian ertzeko.  
Milaka modu daude bizitzan  
zorionsu izateko  
eta bakoitzak gai izan behar du  
bere hori topatzeko.

## **GERNIKA (2011-02-27)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, I. Elortza, M. Amuriza,  
A. Egaña, A. Estiballes eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Josu Goikoetxea.*

*Busturialdeko Hitzaren aldeko jaialdia. Igande arratsaldean  
izan zen, Jai Alai pilotalekuan.*

*A. Estiballes-A. Arzallus*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s73o>*

Gaia: Bikotea izango zarete zuek, Arkaitz gizonezkoa eta Amets andrazkoa.  
Urte batzuk dira elkarrekin zabilatzatela, eta azkenaldian zuen arteko  
harremana ez da hain ona, eztabaida izugarriak izaten dituzue, eta  
irainak ere gero eta handiagoak. Eta gaur, eztabaidarik handiena  
eduki duzuen honetan, Arkaitzen ukabila honaino<sup>5</sup> altxatu da, eta  
biok begiratu diozue ikaratuta ukabilari.

Neurria: Hamarreko txikia  
*Doinua: Espainian behera*

A. Arzallus:      Ai ukabil itxia  
                     gure metafora  
                     zer gordetzen dun jakin  
                     nahi nuke gustora.  
                     Maitasunan indarra  
                     zen gure lehen proba  
                     oain maitasuna behera  
                     ta indarra gora.  
                     Igual biak galtzea  
                     hobe izango da. (bis)

---

(5) Gai-emaileak lepoaren pareraino jaso du ukabila.

A. Estiballes: Orain bost urte hasi  
ginenak hain alai  
egoera narrastu  
egin da nolanahi.  
Ez nuen uste nintzenik  
hau egiteko gai.  
Neu ere beldurtu naiz  
egon zaitez lasai  
altxatu egin dut baina  
ez nuen altxatu nahi. (bis)

A. Arzallus: Ukabilen malkoak  
begitan distira  
zaila da pasatzea  
orain boz eztira  
lau begiak gelditu  
baikara begira  
nik neuk ere ez zaitut  
deabrutzen tira  
maskulinidadean  
reflejoak dira. (bis)

A. Estiballes: Lehen dena zero urdin  
orain dena laino  
lehen dena zintzotasun  
gaur dena engaino.  
Ez zitzaigun gertatu  
sekula gaurdaino  
maite zintudan eta  
gorrotatu baino  
nola iritsi gara  
puntu hontaraino? (bis)

A. Arzallus: Bilakaera izan da  
tristea grabea  
nun dago arrazoia  
nun dago klabea?  
Idea bat badaukat  
hau al den bidea  
gelditu zaigu bat'e  
indarrik gabea  
haurtxoen amesteko  
kapazidadea. (bis)

- A. Estiballes: Amesgaizto bihurtu  
zaigu amets hura  
ukabila altxatuta  
ez nago gustura  
ta ulertzen dut zure  
beldur ta ardura  
ez dadila bihurtu  
hau inoiz ohitura.  
Maitasuna gorroto  
azkar bihurtu da. (bis)
- A. Arzallus: Bai lehenago ginenak  
hainbeste limurtzen  
nola joan garen zahartzen  
ta zahartuz zimurtzen.  
Ni ahaleginduko naiz  
pixka bat xamurtzen  
eta maitasun hau ez  
rutina bihurtzen.  
Zu saiatu zaitez ez  
ni berriz bildurtzen. (bis)
- A. Estiballes: Baten bakarrik pasa  
daiteke hau bizitzan  
ta orain ikusirik  
gu nola gabiltzan  
hobe ez jarraitzea  
gaur biok gerizan.  
Ukabila ere eman  
leike esku gisan  
tori bostekoa ta  
zoriontsu izan. (bis)

## I. Elortza

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s864>

Gaia: 8719600510<sup>6</sup>.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*

Bere herrian alde egina  
maitasunez ta leialki  
kartzelan sartze horrek ez dauka  
ez zertarako ez zergati.  
Hemen behar leuke koloretxoak  
atarateko hainbati  
baina zenbaki hoiek entzunda  
sentimentuak badaki  
badagozela horren moduko  
beste zortzirehun zenbaki. (bis)

Baina askotan zer izaten dan  
hamarkaden korrontea  
betikotzeko egozen ia  
lehergaia ta barrotea  
baina ezkerreko abertzalea  
ez da horren arlotea.  
Aukera barri bat da orain hemen  
ta zer dan ba miopea  
aukera hori sortu dauen bat  
han barruan egotea! (bis)

Ta noski hari be egin leikio  
gura dan beste kritika  
hoixe gurako leuke berak be  
hoixe da-ta politika  
baina barriro esan behar dot:  
hau da aukera polita  
ta bake osoa lortuko dogu  
danak hona ekarrita  
niri bardin jat berarekin zein  
beste batekin hasita. (bis)

---

(6) Arnaldo Otegiaren preso zenbakia.

## ELGOIBAR (2011-03-04)

*Bertsolariak: A. Agirrezaldegi, J. Uria, On.  
Enbeita, U. Alberdi, B. Gaztelumendi*

*Gai-emaileak: Iraia Elias eta Unai Muñoa.*

Gai-emaileek elkarriketa moduan eman zituzten gaiak, eta bertsolariak musikarien laguntzarekin aritu ziren kantuan. Oholtzaren hondoa more kolorez hornitua zegoen.

*U. Alberdi* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11s98g>*

Gaia: "Ama izatea ere ez dela broma". "Aita izatea ere ez". "Nik egia esango diat: niri beldurra ematen zidak". "Niri inbidia ere ematen zidaan, eta amatasunak batik bat". Uxue, hik zer esaten dun.

Neurria: Hamabiko handia

*Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian A*

Gure herria nire burua  
bi-biak nola ez maita?  
Batean Sortu sortu da eta  
bestean hau<sup>7</sup> sortu baita  
nire sabela borobilduaz  
doa-ta nik hala nahita  
udan ni ama izango omen naiz  
eta gitarrista aita.  
Ta beraz nere intuizio  
eta senari jarraika  
sormenarentzat urte ederra  
da bi mila ta hamaika.

---

(7) Eskua sabelaren gainean jarri zuen.

Galdetzen dinat hiri Iraia  
hi beldurtuta al hago?  
Une batzutan ni ere hala  
egon izan naun zeharo.  
Hala diote "Askatasuna  
eta parrandak akabo!  
Ama izanda norbera bere  
buruan jabe ez dago".  
Baina halere nire barruan  
hots hoiek dira arraro  
juxtu ni orain sentitzen bainaiz  
inoiz baino askeago.

Gozatu nahi dut perfilez jarri  
ta sabelaren soslaia  
gozatu nahi dut azal gorrien  
eta pardelen usaia  
ume txikian mundua eta  
nire barruko paisaia  
eskaparate mediatikotik  
erretiratze lasaia.  
Zorionaren formula ez da  
baina hau da nire nahia  
ta beste gabe gozatu nahi dut  
tokatzen zaidan garaia.

### *A. Agirrezaldegi-B. Gaztelumendi* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11saas>*

Gaia: "Unai, kristoren negargura zaukaat". "Ba al dakin erleak 45 egun  
irauten duela bizirik? Nik zer edo zer egin zezakenat laguntzeko?".  
"Ez". "Animo, neska!". "Eskerrik asko. Negargura kendu didak".

Neurria: Lauko handia

*Doinua: No woman no cry*

- A. Agirrezaldegi: Hara ba Beñat nik sentitzen det  
gaur galdetzeko beharra:  
konta zaiguzu noiz egin zendun  
zure azkenengo negarra.
- B. Gaztelumendi: Kuriositate pixkat badezu  
Muñoarena entzunik  
gustora esango nizuke Ainhoa  
baina lotsa ematen dit.
- A. Agirrezaldegi: Ba beraz Beñat hementxe daukat  
gertu bigarren galdera:  
jende aurrean negar egiten  
zu atrebitzen al zera?
- B. Gaztelumendi: Ez al dakizu? Gizona jaio  
nintzen Ainhoa maitea  
gure bertute haundiena da  
harrizkoak izatea.
- A. Agirrezaldegi: Ze harri eta ze kristo Beñat  
ez zaitut ulertu aizu!  
Negargurea daukazunean  
ze kristo egiten dezu?
- B. Gaztelumendi: Ez al dakizu nahiko erantzun  
sinplea daukala horrek?  
Negargurea daukadanean  
irribarre egiten det.
- A. Agirrezaldegi: Barkatu baina berriro diot  
kasi ez zaitut ulertzen nik  
zuk ez al dezu negarra eiten  
baimentzen dizun lagunik?
- B. Gaztelumendi: Negar egiten badakit baina  
nere kuartoan bakarrik  
besteek ez dute nere sekretu  
guztiak jakin beharrik.



- A. Agirrezaldegi: Bada negarra omen da sarri  
askatzaile den brujula  
eta seguru nago anginak  
maiz izaten dituzula.
- B. Gaztelumendi: Anginak izan beharra ez da  
hain sentsazio itzela  
baina ez det nahi jakin dezaten  
ni ere hausten naizela.
- A. Agirrezaldegi: Ba sinets zazu gure aholkuak  
beti ez dira hain txarrak  
sarri orgasmo batek baino hobe  
utzi zaitzake negarrak.
- B. Gaztelumendi: Bertso saioan gaude ta arren  
zuk ez esan holakorik!  
Ondo pasatzen ari naiz ta ez det  
malkorako motiborik.
- A. Agirrezaldegi: Zuk ba al dakizu munduan zer dan  
askoren kalitatea?  
Txinan goizero da ariketa  
negar pixkat egitea.
- B. Gaztelumendi: Baina neretzat Txina gelditzen  
da neregandik urruti  
besteen penak kontsolatzeko  
ordea prest nago beti.
- A. Agirrezaldegi: Bueno mutiko jatorra zera  
bizitzan bada aukera  
seguru nago helduko zara  
noizbait gizon izatera.
- B. Gaztelumendi: Sekretuekin bukatzea igual  
eskatuko du gaurkoak:  
neri bi malko atera dizkit  
Uxuen bakarkakoak.

## VILLABONA (2011-03-12)

*Bertsolariak: A. Arzallus, U. Iturriaga, U. Alberdi,  
J. Soto, J. Uria, I. Lazkano eta B. Gaztelumendi.*

*Gai-emaileak: Egoitz Aizpuru eta Andoni Egaña.*

*Bertsolamintza jardunaldien amaierako jaialdi esperimentalak.*  
Goizean txostenak aurkeztu zituzten, eta eztabaida izan zen.  
Bazkalondoan bertso saioa, Gurea antzokian. Hirurogei entzule inguru.

### *I. Lazkano- B. Gaztelumendi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sbd8>*

Gaia: Hemen, Imanol, urte askoan enpresari izana; hemen, Beñat, gazte aurrerakoi eta iraultzailea.<sup>8</sup> Imanolek dauzka esku latzagoak.

Neurria: Zortziko handia

*Doimua: Hasiko al naiz hasiko al naiz*

|                  |                                                                                                                                                                                                                                |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| B. Gaztelumendi: | Biok ondoan ipini gera<br>konparatu asmoz alai<br>ni sentitzen naiz gure munduai<br>iraultza ekartzeko gai<br>zu enpresari izan zintugun<br>ta ni soldata baten zai<br>nik eskuetan markarik ez det<br>baina poltsikoetan bai. |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

---

(8) Andoni Egañak bien eskuei begiratu zien.

- I. Lazkano: Gaurko gazteak harrotzen dira  
ia neurri gehiegian  
bizitza errex daukatelako  
izan zitekeen agian  
eta nik berriz lana egin det  
bizitzan nere nagian  
nik eskuetan dauzkat kailoak  
eta honek arpegian!
- B. Gaztelumendi: Azala latza det txikitatik  
eta ez naiz errex mintzen  
garai batean jaio banintz ni  
halakoa izango nintzen.  
Entzun dedanez zu eraikuntzan  
edo omen zinen ibiltzen  
baino lagundu ote dezu ba  
mundu hobe bat eraikitzen?
- I. Lazkano: Nere gisara pasatu balu  
gazte denboran gosea!  
Honek izan du sabela bete  
eta nik berriz haizea.  
Horregatikan degu gaur egun  
holako jende klasea  
nabaria da hau ere ez dala  
larre motxetik pasea!
- B. Gaztelumendi: Gure aurrean daukagu orain  
mundu multikulturala  
krisiarekin ere diote  
guztia behera doala.  
Aipatzen dezu gazte garaian  
gosez egona zerala  
baina benetan uste al dezu  
gaurko hau hobe dala?
- I. Lazkano: Gauzak okertu dirala oso  
daukagu nahiko nabari  
ez dira gauzak zuzenegi egin  
nahiz eta lanean ari.  
Dirua batzuk pilatu arren  
gosea dago ugari.  
Bide horretan nere ustetan  
denok gera pekatari.

B. Gaztelumendi:           Egia da bai tokatu zaigu  
                                     pekatarari izatea  
                                     amorrarioz egiten degu  
                                     ingurura atakea.  
                                     Bion artean urteak daude  
                                     nere Imanol maitea!  
                                     Hobe elkarren kontra joan ordeztu  
                                     elkarrekin joatea.

I. Lazkano:                 Etorkizunari begiratu  
                                     bidea hori da noski!  
                                     Bere gaztean mutiko honek  
                                     gauzak dotore dakizki.  
                                     Esango nuke gure bidetik  
                                     ia egin degu aski  
                                     borondaterik onenez baina  
                                     gauza asko egin degu gaizki.

*J. Soto*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11scfk>*

Gaia: Julio, dendaria zara, eta Iruñean lan egiten duzu. Orain arte *Todo a cien* batean ari izan zara, metxeroak, tenedoreak, aho zapiak... saltzen. Eta etortzen ziren bezeroen artean baziren batzuk euskaldunak. Orain, leku berean egiten duzu lan, kale berean, dendaria zara, baina gaur egun goi mailako arropa saltzen duzu, goi mailako oihalak. Kontua da gaur egun inork ez dizula euskaraz egiten.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz  
*Doinua: Atmosferatik atera eta*

Lehen *Todo a cien*en saltzen nituen  
kamiseta, baloi, iman  
saltzen nituen larrosa, *tiesto*  
*llavero zorte talisman*.  
Jende xuria ez hain xuria  
nik kasu egiten aski lan  
sarri euskaldunak jiran  
han barna ze ikusmiran  
“Eskerrik asko” eta nik lasai  
erantzun bat despedidan  
ta horrek saltzeak baino askoz poz  
gehiago ematen zidan. (bis)

*Bershkan*<sup>9</sup> eskeintza egin zidaten  
ta ni hara igaroa  
Iturramako kale zabala  
beldurra, erreparoa...  
Galtza luze-motz ator xuri-beltz  
ni beti irrifarrez noa.  
Orain saltzen dut morboa  
arropa berri mordoa.  
Denak erdaraz hurbiltzen zaizkit  
dena da erdal giroa  
edo euskaldunak ez du dirurik  
edo zerbait gaizki doa. (bis)

Sarri ezagunak ikusten ditut  
hara hortik dabil Mattin.  
Gero hurbiltzen zait “Hola muy buenas”  
ta nik pentsatzen dut “*En fin!*”  
“Zenbat da?” ta nik “*Doce con cinco*”  
eta odolak irakin.  
Monstradoreko lau ixkin  
nik pentsatzeari ekin:  
gure herria Euskal Herria  
askorik ez dela jakin  
euskera lotzen baldin badugu  
prestigio faltarekin. (bis)

---

(9) Denda kate bat

## IGORRE (2011-03-19)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Arzallus, J. Soto, U.  
Iturriaga, M. Lujanbio eta A. Egaña.*

*Gai-emailea: Karmelo Uriarte.*

Aspaldi hasi ziren San Josetako jaialdia antolatzen Arratia aldean.  
Kultur etxean izan zen, Lasarte aretoan.

*J. Soto-A. Egaña* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sdi0>*

Gaia: Gaur San Jose eguna da, hau da, aitaren eguna. Andoni, gaur aitaren eguna dela eta, goizean, ohean egonaldia luzatzeko gogotan zaude. Igorren gaur zuhaitz eguna dugu. Juliok botinak jantzi, aitzurra eskuetan hartu, eta ohean aurrean jarri zaizu, zuhaitz eguna dela-eta zuhaitz egunera joateko gogoz.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak*

J. Soto:           Aitzurra garbi ta lur pixka bat  
                      boltsan jarri nitun atzo  
                      ordulariak “Pri-pri-pri” jo dit  
                      ta jeiki naiz mantso-mantso.  
                      Landatu beharra dago lizarra  
                      ur pixka’t bota akaso  
                      hamar t’erdiak jo dute eta  
                      mugitu zaite aitaxo!

- A. Egaña: Esna arazi egin nauzu ta  
zer da txantxa edo burla?  
Ordu hauetan zuk jaikitzeke  
ohitura falta sekula.  
Orain lizar bat landatu gura  
semea bejondeizula!  
Ta txarrena da urtean zehar  
“Tronco!” deitzen didazula.
- J. Soto: Mendira igo eta bilatu  
behar diogu gerizpea  
aitzurraz lurra ireki eta  
aitzurraz lurra ixtea.  
Begira zazu ze metafora  
egin behar dizut txistea:  
esku artean daukat tronco bat  
ohe gainean bestea.
- A. Egaña: Gazte garaian landatu nuen  
sekulako zuhaitz pila  
ta teoria modernitoek  
jan dute gure mutila  
horko natura hango natura  
ze teori borobila!  
Natura horren natura bada  
berez landatu dadila.
- J. Soto: Pertsonak moztu dituzte zuhaitzak  
bihotz pixka't izan aizu!  
Naturala da naturala da  
parre egiten darraizu.  
Aitzurrarena zuk egin zazu  
izan ahal zara gai zu  
gerriak pixka't aflojatzeke  
ongi etorriko zaizu!

- A. Egaña: Potrosoa naiz ta alperra naiz  
hori ez dago itsusi.  
Gaur eguneko ekologista  
hauengan zer da nagusi?  
Egiten dena egiten dela  
ikus nazaten ikusi  
ta landatzera joango dira  
argazkilari ta guzi.
- J. Soto: Boltsa eskutan aitzurra eskutan  
ta holakorik egundo!  
Aitatxok ezetz jo beti ezetz  
beti du aitzaki frango.  
Gaur zure eguna aita eguna  
ni pozik nengoen ondo  
oparitxo bat erosi nizun  
baino ja ez dizut emango.
- A. Egaña: Nere zerrendan bi opari daude:  
bat atsedan ta bi pake.  
Beraz semea oheburuan  
ez eman hainbat atake.  
Zoaz mendira landatu hoiek  
atxurrarekin jo ta ke.  
Pentsatu ezkerro drogan sartzea  
okerragoa litzake!



## **HENDAIA (2011-03-19)**

*Bertsolariak: O. Barroso, S. Colina, M. Lujanbio  
eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Maddi Ane Txoperena.*

Hendaiako Bertso Eskolak Udalaren laguntzarekin antolaturiko bertso afaria. Ehunen bat lagun elkartu ziren Merkatu Zaharrean.

*O. Barroso-S. Colina* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sekc>*

Gaia: Zuek biak parrandan zaudete. Odei, bada bi ordu Sustrai kriston txapa ematen ari zaizula, eta jada ez dakizu nola kendu gainetik.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Orioko balearena*

O. Barroso:       Sustraik nola ez nauen  
                      utzi nahi aparte  
                      bertsoa ta bertsoa  
                      jo ta ke jo ta ke!  
                      Jakín bertsolaritza  
                      ainitz nuen maíte  
                      ainitz gustuko nuen  
                      zu iritsi arte. (bis)

S. Colina: Odei hain zara haundi  
hain iaio hain argi  
zure zientziaren bila  
nagola aspaldi.  
Ze garrantzi ematen  
diozu kantari  
zortziko txikiaren  
lehen errimari? (bis)

O. Barroso: Lehen errima aipatu  
eta ze problema!  
Hunaino etortzea  
neronen kondena.  
Nolako garrantzia  
errima lehena!  
Bukaera ez al zen  
inportanteena? (bis)

S. Colina: Bai bukaera dugu  
inportanteena  
parrandarentzat ere  
ziri nabarmena.  
Nik askoz nahiago dut  
segidillarena  
hasi segi ta segi  
bukatzen ez dena. (bis)

O. Barroso: Errima bat botata  
beste baten bila  
hola itzultzen baita  
Sustrairen gurpila.  
Zenbat aldiz aipatu  
duzu segidilla?  
Gehio segitu gabe  
bukatu dadila! (bis)

S. Colina: Antza denez etxera  
bidali nahi nauzu  
hurbildu natzaizuna  
goxo pausuz pausu.  
Hau bezalako aukeraik  
ez daukagu usu.  
Libiako egoeraz  
zer iritzi duzu? (bis)

O. Barroso: Libiako egoera  
ez da hain segurra  
nik ez dut iritzirik  
ta ez da gezurra.  
Gorritu egin da lehen  
xuri zen muturra.  
Sustrai bota ezazu  
zure azken agurra. (bis)

S. Colina: Agurra botatzea  
betiko antzera  
pauso bat aurrera ta  
beste bat atzera  
txapa ematen nabil  
belarri ertzera.  
Ai Odei! Zurekin joan  
nahi nuke etxera. (bis)

### *M. Lujanbio-S. Colina* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sfmo>

Gaia: Zuek biak Euroagindu auziaren zain dagoen senide bat duzue atxilotuta  
Toulousen.

Neurria: Seikoa, handiaren moldekoa, 5 puntuz

*Doinua: Uso xuria errazu A*

- S. Colina: Kaiola beti kaiola  
bertan zorne dariola  
dugu alaba potxola.  
Epaitegitik pasa behar du  
astearte hontan hola  
ta iruditzen zait guztia aurrez  
erabakita dagola. (bis)
- M. Lujanbio: Erabakita dago ta  
deus onik ez zaie opa  
zigortu eta gorrota.  
Polizia bai libreki dabil  
sarri iritzien kontra  
hain librea ta horren batua  
hona hemen dugun Europa. (bis)
- S. Colina: Ez dut konprenitzen aise  
garun zulotan ze haize  
bihotzean ze oinaze!  
Arrazoi duzu Europa deitzen  
duten tristura da hauxe  
nun pertsona bat saldu litekeen  
merkantzia bezalaxe. (bis)
- M. Lujanbio: Eingo dutela apostu!  
Ez zaie odolik hoztu  
ta horrek badu nahiko kostu.  
Delako justizi horren ezpatak  
ahoa oso zorrotz du  
politika egiteko eskatu  
ta gero hegoak moztu. (bis)
- S. Colina: Egonagatik ziegan  
bakarrik ta gose greban  
lehen beste askoren eran  
hegoak moztu dizkiote bai  
hilabete hasieran  
baina iparra garbi duenak  
beti segitzen du hegan. (bis)

M. Lujanbio: Egurra bero-beroa  
zernahitako jeneroa  
kartzela ta endredoa!  
Baina aroa aldatzen ari  
ja ez da izango lehengoa.  
Ia ba laiste aurkitzen ditugun  
Iparra eta Hegoa! (bis)

S. Colina: Hoiek elkartzea fite  
nahiz eta nahi nukeen nik'e  
zenbat buru eragite!  
Frantzia eta España artean  
ene zenbat *fraternité*!  
Baina kartzelan sartu dituzte  
*liberté* ta *égalité*. (bis)

M. Lujanbio: Ai pakearen usoak  
ze ikusmira lausoak  
bortxaketa, erasoak!  
Guantanamo ta Libiara  
maiz luzatzen dira soak  
baina zailago dira ikusten  
etxepeko arazoak. (bis)

## **ZEGAMA (2011-04-03)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Mendiluze, A.  
Egaña, I. Zubeldia, A.M. Peñagarikano eta S.  
Lizaso.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Erlezainen Egunean izan ohi den bertso jaialdia. Arratsaldean izan zen, eta entzule asko elkartu zen pilotalekuan.

*A. Mendiluze* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sgp4>*

Gaia: Gauretxean, familian, bazkaltzen ari zineten, telebista piztuta albistegia ikusten, eta hor agertu da berri bat, atzo Gasteizen nola zenbait emakume joan diren DNA probak egitera, eta halako batean zuen amak honela esan du: "Seme, nik proba hori egin dut".

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 7 puntuz

*Doinua: Ai hori begi ederra A*

Berri gogorra gaurkoa  
ADN frogakoa  
pentsarazteko nahikoa  
lapurtutako haurren auzia  
berriz azken ordukoa.  
Ama hau ez zen bapoa  
ez al zen benetakoa  
guri kontatutakoa?

Aitona ona zen berez  
amonak beregan babes  
entzun dizugu guk aurrez.  
Orain berri hau ikusi eta  
zeuk ere zenbat interes  
baina zalantzaren legez  
erantzuidazu mesedez:  
zer dakizu eta zer ez?

Guk sinistu itsu-itsu  
zuk ere noski berdintsu  
gaur kontzientziak abisu  
hoiek ikusi ta zuri ere  
zalantzak piztu zaizkizu  
zenbait gauza ez dakizu  
ta jakin nahian hasi zu  
baina merezi al dizu?

Ezin lehengotikan bana  
zeurea da iragana  
igual gezurrak emana.  
Ta orain nola daukazun dena  
behingoz jakiteko plana  
hain haundia da afana  
hain latza helduko dana  
zurekin joango naiz ama.

## **DONOSTIA (2011-04-15)**

*Bertsolariak: J. Martin, B. Gaztelumendi, J.  
Labayen eta Xamoa.*

*Gai-emailea: Haritz Casabal.*

Bukowsky tabernan izan zen, eta musikarien laguntzarekin kantatu zuten. Saio goxoa eta polita atera zen.

*J. Martin-B. Gaztelumendi* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11shrg>*

Gaia: Azkenaldian bezala, egunero, Saguesko paseoan topo egin duzuen bi amona zarete. Negar malkotan, galdera asko dituzue, baina itsasoak ez omen du erantzunik. Nork dauzka zuen erantzunak?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Geldirik ezin naizela egon*

J. Martin:

Eguraldia tristetu egin da  
ta tristetu da kolpetik  
galdera ikurrak erortzen zaizkit  
oraindik ezpainetatik  
ze zentzu daukan gure bizitzak  
jakin nahi dudak ez dakit  
zenbat galdera sortu zaizkidan  
alargundu nintzenetik!



B. Gaztelumendi:           Joan zen laguna joan aita ta ama  
                                          eta joan zen senarra  
                                          lehenik elizan galdetzen nuen  
                                          baina erantzuna zen txarra.  
                                          Hargatik daukat gaur egunero  
                                          hona etorri beharra  
                                          deus segururik ez dagola da  
                                          gauza seguru bakarra.

J. Martin:                    Bero bat bitan zatitu eta  
                                          bilakatzen dira bi hotz  
                                          eta ze triste sumatzen dudan  
                                          ene buztinezko bihotz!  
                                          Olatu pranko brausta ta brausta  
                                          beren indar ta beren hots  
                                          galderak mila eginagatik  
                                          erantzunik gabe datoz.

B. Gaztelumendi:           Hemen mareak ta olatuak  
                                          guztiak alderik alde  
                                          sarri aurrera sarri atzera  
                                          sarri zakar zein xuabe.  
                                          Natura hala sortu zen eta  
                                          gu dudan zergatik gaude?  
                                          Ez al da hobe aurrera segi  
                                          galderarik egin gabe?

J. Martin:                    Galderak ditut ta erantzutea  
                                          hartu izan dut helburu  
                                          ze kristogatik bizi nahi dugu  
                                          gizakiok hain seguru?  
                                          Bizitza honen zorigaiztoak  
                                          negarrez hustu gaitu gu  
                                          galdera egiten hasten gara ta  
                                          marea igotzen dugu.

B. Gaztelumendi: Gure malkoak erori eta  
mareak igotzen dira  
ondoren nora joango geran  
zail baita jakiten tira!  
Baina bizitzan ondo bizitu  
gera ta hemendik gutxira  
ez zazu hautatu zuk bizitzea  
zorigaitzari begira.

J. Martin: Zeinen gogorra izan litekeen  
banua eta balua!  
Zeinen gogorra zeinen luzea  
izan litekeen duelua!  
Bizitza goxo-goxoa nuen  
dastatuz karamelua  
olatu batek bota zun arte  
hareazko gaztelua.

B. Gaztelumendi: Pentsatu bera erori arren  
zutik gelditu zinala  
ez da akaso ederra izango  
iraganaren kresala  
baina pentsatu gure bizitza  
olatutan badoala  
eta oraina bizi dezagun  
gazte garaian bezala.

J. Martin: Galdera bota dut urrutira  
olatuak dakar hona  
eta sekula ni ez naiz ez izan  
surfa egiten oso ona  
mila galdera doaz aurrera  
itsaso bat dugu horma  
zergatik dauka olatu horrek  
galdera ikur baten forma?

B. Gaztelumendi: Mundu hontakoa bukatu eta  
gu nora joango gera?  
Mundua nola doa horrela  
biziko al da euskera?  
Hondar aleak gisa ugaltu  
zaizkigu mila galdera  
baina nahikoa erantzun bada  
bihar bueltatzea bera.

## *J. Labayen-Xamoa* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sits>

Gaia: Hori Saguesko paseoko petrila da. Eskutik helduta ostiral gauez iritsi zarete, eta bertan esertzea erabaki duzue. Bost minutu pasatu dira, eta oraintxe konturatu zarete harresi horretan ezagutu zenutela elkar, duela lau urte.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Zelaia ikusi dut /Lili Marleen*

J. Labayen:       Aizu erromantiko  
                      batzuk dirudigu  
                      leku honetan beti  
                      elkartzen gara gu  
                      eta horrexegatik  
                      animoik ez galdu  
                      beste lau urte azkar  
                      pasako zaizkigu. (bis)

Xamoa:            Ta horren testigua  
                      izango zara zu  
                      nola lau urteetan  
                      ein didazun kasu  
                      lehen olatu bat galde  
                      ikur bat zen aizu  
                      ta lau urteren bueltan  
                      erantzun didazu. (bis)

J. Labayen:       Nik erritmo lasaia  
                      barruan sobera  
                      ta hori ez da izaten  
                      sekula kaltera.  
                      Nik erantzuteko zain  
                      lau urte aurrera  
                      nahi baduzu egidazu  
                      hurrengo galdera. (bis)

- Xamoa: Sumatua dut zure  
eskuan dardara  
lehen pentsatua dut  
"Nerbioso da jada"  
eta ondorenean  
esku hau dut hara  
baino azkenerako  
nire bihotza da.<sup>10</sup> (bis)
- J. Labayen: Une hau gustatzen zait  
gero ta gehiago  
hemen ez naiz sentitzen  
sekula arraro.  
Azkenerako bihotz bat  
bihurtu da akabo!  
Orduan zure bihotza  
izerditan dago. (bis)
- Xamoa: Nolako jarioa  
ta nolako patsa!  
Zugana iristea  
nuen esperantza.  
Nahiz eta hartu dugun  
bi maitalen antza  
noiz igo behar zaizu  
marea gorantza? (bis)
- J. Labayen: Benetan gustatzen zait  
zure begirada  
nahiz orain sortu didan  
kristoren ikara.  
Nere marea gorantz  
etorri da hara  
ta zu olatu azpian  
sartuko al zara? (bis)

---

(10) Eserita eta elkarri eskua emanda kantatu zuten.

- Xamoa: Nahiz ta sartzeko egin  
hamaika errezu  
ez pentsa nagoenik  
hortarako kexu  
ba sartu egingo naiz  
pentsa dezakezu  
hortarako trajerik  
ekarri badezu. (Bis)
- J. Labayen: Hori trajerik gabe  
eiten da ospera!  
Kauenlaletxe donostiar  
hauek keba! keba!  
Hobe dugu joatea  
gu biok etxera  
edota nahi baduzu  
helau bat jatera. (bis)
- Xamoa: Hemengo jaien gisan  
ez da hain arraro  
baina ez nago helatu  
horien esklabo.  
Ez gerala iritsiko  
dago klaro-klaro  
probintziano hauekin  
deus onik ez dago. (bis)

## **BERGARA (2011-04-15)**

*Bertsolariak: A. Sarriegi, O. Barroso, A. Egaña,  
J.M. Irazu eta On. Enbeita.*

*Gai-emailea: Irati Agirreazaldegia.*

Erramu Zapatuaren bezperako jaialdia. Gauean izan zen, herriko pilotalekuan.

*A. Sarriegi* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sk08>*

Gaia: Zeini ez dakit, baina behin irakurritakoa da honako hau: “Dauzkadan gauzarik preziatuenen artean ditut gordeta sekula esan ez ditudan hitz batzuk”. Aitor, denok edukitzen ditugu nahi baino gutxiagotan aipatzen ditugun hitzak. Esango dizkiguzu horietako bizpahiru, eta zergatik esaten dituzun hitz horiek nahi baino gutxiagotan.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz  
*Doinua: ETAre su-etenetik*

Erreza da hitzen bila  
urrutira joatea  
baina barruan ez da hain  
errez mantentzen bakea.  
Sarritan irekitzen dut  
nere etxeko atea  
sarritan oihu bat egin  
kexa ala atakea.  
Baina nik ere badaukat  
guzti horretan parte  
han dago ama maitea  
han dago aita maitea.  
Zaila da gertukoari  
“Maite zaitut esatea”. (bis)

Sarritan gogorra naiz ni  
gogorretan gogorrena  
ondoan izan litekeen  
lagunetan mingotsena  
berdin da senideena  
edota lankideena  
baina distantzia ez da  
nik nahi dudan sentipena.  
Gauza asko pasatzen dira  
nere buruan barrena  
askotan ateratzen det  
nere barruko txarrena.  
Ea noiz ateratzen dan  
barruan dedan onena! (bis)

Ta zuk galdera eginik  
gaur Bergaran frontoi hontan  
hitz urrutienen bila  
joaten gera holakotan  
baina ez da hain erreza  
sentituz gero kolokan  
barruan dena ez baita  
kanpora irteten askotan.  
Baina noizbait egin behar da  
pertsona izatekotan  
beti ezin gera egon  
besteei begira kotan  
ta hizketan ezin deguna  
esaten degu bertsotan. (bis)

## **DONOSTIA (2011-04-16)**

*Bertsolariak: A. Sarriegi, M. Amuriza, B.  
Gaztelumendi, J. Maia, A. Mendiluze eta U.  
Alberdi.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Bagerak eta *Irutxuloko Hitzak* antolaturiko jaialdia, Korrika kulturalaren barnean. Antzoki Zaharrean izan zen.

*B. Gaztelumendi-J. Maia*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uu44>*

Gaia: Gauza bat dut zuentzat: tori, azken hogeita hamaika urteetako egutegiak

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Beste bateko inularretan*

|                  |                                                                                                                                                                                                                                |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| B. Gaztelumendi: | Egutegiak hartu ditugu<br>ta gabiltza jolasean<br>ja hogeita hamar urte neretzat<br>baitoaz luze antzean.<br>Ez dute asko pisatzen hauek<br>gure behatzen ertzean.<br>Zergatik daude barrote batzuk<br>egutegien atzean? (bis) |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

---

(11) Jose Mari Sagardui "Gatza" presoa 31 urte kartzelan egin ondoren atera berria zen.



- J. Maia: Hogeita hamar urte pasata  
a ze zenbaki arraro!  
Gatza izeneko euskaldun batek  
kartzelan ditu igaro.  
Hemen zenbaki pilo bat daude  
eta zein baino beltzago  
hogeita hamar urte luzeetan  
egun gorririk ez dago. (bis)
- B. Gaztelumendi: Ta azkenean ailegatu da  
kalera irteteko txanda  
erori dira egutegiak  
zabaldutako ateko langa.  
Hogeita hamar ez dira asko  
horrela azkar esanda  
nere bizitza baino kondena  
luzeagoa izan da. (bis)
- J. Maia: Ordun euskeraz telebistarik  
ez zegoen gaur bezela  
ez Internetik ez mugikorrik  
esan behar da horrela  
bide beretik ez baitijoaz  
mundua eta kartzela  
esan liteke mundu hontara  
bigarrenaz jaio dela. (bis)
- B. Gaztelumendi: Baina hainbeste urte pasata  
buelatzerikan ba ote?  
Ez ote diren gutxi izango  
esanez zenbat arlote!  
Hainbeste urtez milaka muxu  
mila juerga mila trote  
eta batzuek oraindik horri  
justizi deitzen diote. (bis)
- J. Maia: Euskal Herriak joan nahi luke  
aro berrietarantza  
buka dadila alde guztitan  
sufrimentu gordin latza  
denak itzuli eta bueltatuz  
herriari esperantza  
malkoen geza itsaso zabal  
bihurtuko duen gatza. (bis)

## **GASTEIZ (2011-04-21)**

*Bertsolariak: U. Alberdi, S. Colina, O. Perea, I. Viñaspre, M. Agirre eta A. Martin.*

*Gai-jartzaileak: Gasteizko Gaztetxea eta M-ak Emakume Taldea.  
Gai-emailea. Beñat Goitia.*

Gasteizko gaztetxearen 23. urtemugako ospakizunetako bat izan zen bertso jaialdi hau. Gaztetxean izan zen, iluntzeko zortzi eta erdietan.

*U. Alberdi-M. Agirre*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sl2k>*

Gaia: Zuek bikotea zarete, eta gaur telebista ikusten zeundetela tratu txarrak jasaten dituen emakume batek bere gizona hil duela esan dute. Zuri, Uxue, normala, ondo iruditu zaizu, baina zuri, Manex, gogorregia, gehiegizkoa, iruditu zaizu.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun I*

U. Alberdi:       Alderantzizko notiziekin  
                      bustitzen gaituzte noiznahi.  
                      Senarrak jotzen zuen andrea  
                      orain hura hiltzeko gai  
                      izan da eta honi ere nik  
                      hala hartzen diot usai.  
                      Normala denik ez dut esango  
                      uler dezakedala bai.

- M. Agirre: Ez da normala ta nola ulertu?  
Egin zaidazu mesede!  
Gizarte hontako aurreiritziek  
dute hainbeste botere  
biolentziak ipintzen ditu  
hainbat arau hainbat lege  
mina beti izango da mina  
alderantziz eginda ere.
- U. Alberdi: Hogei urtean erabili du  
andrea bere gixara  
kolpe ta kolpe etxera heldu  
ta hala hartzen zuen hara!  
Hogei urtean zegoen hilda  
nik hala uste dut jada  
ta hildako baten hilketa hori  
bere autodefentsa da.
- M. Agirre: Autodefentsa aipatu duzu  
defendatzen zenbat ordu!  
Arazo hau konpontzeko daude  
nere ustez hainbat modu  
baina emakume horrek gizona  
akabatzeraino jo du.  
Nere ustetan gure arazoa  
horrela ezin da konpondu.
- U. Alberdi: Politikoki zuzenak gara  
eta ni ez nau harritzen  
guztiek kontra hitz egin dute  
noski hala komeni zen.  
Justifikatzen ez naiz hasiko  
zure belarriak mintzen  
baina aitortzen dut: gizonagatik  
ez dut penarik sentitzen.
- M. Agirre: Baina uste dut bukatu duela  
nahikoa modu txarrean.  
Nahiz ta mendeku hartzea beti  
eukitzen dugun hurrean  
konponbidea topa dezagun  
enpeñuan, indarrean  
ta buruakin joka dezagun  
eskuekin beharrean.

## M. Agirre

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sm50>

Gaia: Zu, Manex, Alde Zaharrean bizi den gurasoa zara. Asko pentsatu ostean, eta eskolak dituen arazoak ezagututa, zure semea Gasteiz eskolan, zure auzoko eskolan, matrikulatzea erabaki duzu.

Neurria: Hamabiko handia

*Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Nola Udalak eta Lazkozek  
duten hainbeste botere  
Alde Zaharreko biztanleontzat  
ze fabore ze mesede!  
Baina saiatu gaitezen denok  
lanean abil ta trebe  
hezkuntza eta etorkizuna  
direlako geure jabe.  
Gasteiz eskolan izena eman dut  
aurreiritzirik gabe  
mezu argi bat izan dadila  
Udaletxearentzat ere.

Jolaslekurik gabe egotea  
gure haurrentzako burla  
horrek zalantza sortu zidala  
nik ezin dut disimula  
baina badakit etorkizuna  
aldatu egingo zaigula  
eta hori nola egiten den  
aspalditik dakigula.  
Pasilloetan jolastu beharra  
ez da polita sekula  
baina herrigintzan indarrarekin  
fijo lortuko dugula.

## **ZUMAIA (2011-04-29)**

*Bertsolariak: I. Zubeldia, A. Estiballes, S. Colina,  
S. Lizaso, M. Lujanbio eta I. Elortza.*

*Gai-emailea: Jon Maia.*

Santelmo jaien hasieran urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, Maria eta Jose ikastetxeko aretoan. Ohi bezala, aretoa entzulez beterik.

*M. Lujanbio-S. Colina* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sn7c>*

Gaia: Zu, Maialen, Eusko Alkartasuneko militante bat zara. Zu, Sustrai, Ezker Abertzalekoa. Aspaldian asko egoten zarete elkarrekin, hainbeste Bildu, hainbeste Sortu, hainbeste bilera, hainbeste ordu; azkenean, ematen du zuen artean koalizio bat baino zerbait gehiago sortzen ari dela.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Nere gogoa hegan dioa*

M. Lujanbio:      Aspaldidanik batu ginen gu  
                         gure ideien defentsan  
                         koaligatu egin garela  
                         hala esaten dute prentsan  
                         batu ta bildu, sortu ta goazen  
                         ekin, jarrai eta etzan  
                         sinonimoak badauzkat baino  
                         garbigo ezin det esan.

- S. Colina: Zu EAkoa zinela eta  
nik esan nizun “Ea ba!”  
esan zenidan “Gure helburua  
polo soberanista da”  
ta pixkanaka iritsi gara  
polbo soberanistara  
herri bat garen ez dakit baina  
behintzat bikote bagara.
- M. Lujanbio: Ba bikote bat baldin bagera  
ba zeozer bada behintzat!  
Aldatu dira zure itxurak  
aurpegiak, kartel ertzak  
eta nahi nuke beste aldaketa  
bat ein dezazun guretzat:  
oraingo epela prentsarako ta  
lehengo sua neretzat.
- S. Colina: Baina lehenengo jakin beharko dut  
hortaz Rufik zer dioen  
baietza eman ta jokatu  
dut gaur inoizko sutsuen.  
Elkartu eta umeak izan  
besterik ez du nahi amen!  
Baina ez dakit gure umeak  
legalak izango diren.
- M. Lujanbio: Irlandan gisan ein genezake  
hori badakizu jakin  
umeak izan eta aldeko  
boto pila umeekin.  
Oain egoera epel honetan  
duda bat badut nerekin:  
adarrrik ez al diazu jarriko  
zure maitale zaharrakin?
- S. Colina: Ene Maialen ez al dakizu  
hau dela maitasun aro?  
Eta zurekin arituko naiz  
goxo, majo ta pikaro.  
Zure ondoan nahiko nituzke  
hurrengo urteak igaro  
eta fallatzen baldin badezu  
alternatiba hor dago.

M. Lujanbio:      Ia gaur arte etsaia nintzen  
ta zuk amorruz beteta  
so eiten zendun ta derrepente  
ze-nolako aldaketa!  
Oain laguna naiz lagun onena  
goresmen eta fereka.  
Politikan ta maitasunean  
zeinen zaila den oreka!

S. Colina:        Lehenago etsai omen zintudan  
etsai edo arerio  
orain elkartu omen garenez  
koiuntura hau medio  
nik ulertzen dut jada nerekin  
ez zu ez zarela fio  
konturatzean abstentzioak  
jada ez dula balio.

### *S. Lizaso* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11so9o>*

Gaia: Pertsonak bizitzan aldatzen goaz, onera edo txarrera. Urteak aurrera  
doaz, gure bizitza ere aldatzen doa, baina izango dira gauza batzuk,  
zutabe batzuk, ezaugarri batzuk, aurrerapen horietan goazela ere,  
aldatzen ez direnak gure baitan. Nola da zure kasua, Sebastian?

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko*

Jaio nintzela mende erdi bat  
ta hiru urte igaro  
ezin ukatu bizitza ere  
aldatu dela zeharo  
baina nik gauzak garbi neduzkan  
bai orain baino lehenago  
gaztetan nuen sentimentua  
oraindik bizirik dago:  
bertsoa beti maite izan dut  
Sebastian baino gehiago. (bis)

Ezin ukatu urteen joanak  
digutela erasaten  
ezin ukatu ez dela erreza  
hainbat mudantza jasaten.  
Agertu ere egin behar du  
besteek jakin dezaten.  
Nahiz erreza dan aho zabalik  
lau haizetara esaten  
nik beti segi egin nahi nuke  
lagunen lagun izaten. (bis)

Ezin ukatu bizitza hontan  
ibili behar da kontuz  
egin behar dana ahal baldin bada  
bi-hiru aldiz pentsatuz  
ahal baldin bada nekez damutuz  
aurrez egindako tratuz  
aspaldin bada joandakoak  
behar bezela oroitzuz  
maite nautenak maitatuz eta  
besteak errespetatuz. (bis)



## MALLABIA (2011-04-30)

*Bertsolariak: I. Lazkano, J. Zelaieta, B.  
Ugartetxea, M. Lujanbio, I. Elortza eta J. Soto.*

*Gai-emailea: Asier Ibaibarriaga.*

Orraitio Euskara Elkarteak antolaturiko jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gaueko bederatzi eta erdietan.

*J. Zelaieta-M. Lujanbio-I. Elortza-J. Soto*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11spc4>*

Gaia: Jakingo duzuenetz, bihar amaren eguna da. Zer izan da zuentzat zuen ama?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I*

J. Soto:           Jaio nintzela ume txikitxo  
                      orain naizela nerabe  
                      ama izanda nere heziketa  
                      eta bizitzaren jabe.  
                      Hari eskerrak eman beharrean  
                      egun asko faltan daude  
                      ama neretzat dena izan da  
                      baino aita ahaztu gabe.

J. Zelaieta:       Hogeita hamar urte nahiz eta  
                      baden nahikoa edade  
                      amak prestatzen dit bazkaria  
                      ta egin arropen jabe  
                      amak garbitu etxea eta  
                      dut erreginaren pare.  
                      Ez luke hola beharko baina  
                      ez naiz ezer bera gabe.

- I. Elortza: "Zer izan da zuentzako ama?"  
galdera entzun baino lehen  
titi bat etorri jat burura  
eta magal bat ondoren  
bizi ikasgai, pertsona eredu  
maitasun eta gozamen  
eta oraindik ez dakit ondo  
niretzako zer izan den.
- M. Lujanbio: Maitasunezko tirabirazko  
danetako harremana  
aldi berean irakasten du  
zer den muga zer laztana.  
Hain sinplea ta hain sakona da  
neretzako zer den ama:  
bizi ardatzak sendo jarrita  
izaten utzi didana.
- J. Soto: "Alperra ez izan ikasi zazu"  
ta sarri askotan paso  
"Hau egin zazu hura ez egin"  
azkeneko bronka atzo  
juergatik bueltan beti nere zai  
ni pasilloan mantso-mantso.  
Pazientzi ederra izan duzu ta  
muxu haundi bat amatxo.
- J. Zelaieta: Muxu batekin nola eskertu  
ama baten maitasuna?  
Nik kontzientzia ez daukat lasai  
barruan estuasuna  
madarikatu izan dut beti  
nahiz sentitu hain urruna  
behin txapelketan kartzelakoan  
hil behar izan nun eguna.

I. Elortza:       Hark erakutsi eustan neuri be  
                      pertsona ona izaten  
                      aldi berean sarri ipini  
                      ohi nau ni amorru baten.  
                      Hagandik kanpo nago bai baina  
                      barruan be bai hainbaten.  
                      Inoz jakingo ahal dot berari  
                      hori guztia esaten!

M. Lujanbio:     Bihar da justu maiatzaren bat  
                      metaforaren ahantzian  
                      langileetan ama langileen  
                      isileko aritzian.  
                      Pena litzake erregalo bat  
                      urtean behin maiatzian  
                      merezi ditu maitasunezko  
                      keinuak urte guzian.



*Arabako Bertsolari Txapelketa. Prentsaurrekoa. Gasteiz.  
Argazkia: Arabako Bertsozale Elkartea  
Iturria: XDZ*

## **BELFAST (2011-04-30)**

*Bertsolariak: A. Arzallus eta A. Egaña*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11sqeg>*

Badira urte batzuk bertsolariak Belfastera eramaten dituztela. Bazkaldu aurretik bertso poteoa egin ohi dute, eta bazkalondoan beste saio bat. Tabernaz tabernako jardunaren zati bat jaso dugu hemen.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Kantore berri xarmant batzuek*

- A. Arzallus:       Eguerdi on! Iritsi zaigu  
                          lanean hasteko txanda       .  
                          Orain artean dena izan da  
                          opor, bisita, parranda  
                          hemen bertso ta trikitixa ta  
                          garagardoak edanda  
                          Euskal Herriko uhartetxo bat  
                          bihurtzen doa Irlanda. (bis)
- A. Egaña:            "Bertsotan hasi behar al dezute?"  
                          jendea hemen galdezka  
                          garagardoa ezpainetatik  
                          borborka eta iheska  
                          hainbeste heldu, gizon ta andre  
                          ume txiki, mutil, neska  
                          bertsotan gogoz egin dezagun  
                          toki hoberikan ez da. (bis)

- A. Arzallus: Gure gonbita jaso genuen  
harritu egin nintzen ño!  
"Bertsotara joan behar al dugu  
noraino Belfasteraino?".  
Ta pentsa zazu ze jende buelta  
zenbat apar zenbat laino!  
Ia gehiago elkartu gara  
gure herrietan baino! (bis)
- A. Egaña: Gauza bat degu urruntzea ta  
bestea berriz biltzea  
normala degu holakoetan  
denak gertu ibiltzea.  
Komeni zaigu gaur Belfasteko  
giro hontan murgiltzea  
ederra baita herritik urrun  
euskaldunak sentitzea. (bis)
- A. Arzallus: Euskaldun senti gintezke hemen  
ai gure mundu zabala!  
Gainera nornahik euskaldunari  
eskeintzen dio magala.  
Lehenago tour politikoa  
kaleetan genbiltzala  
haren ondoren hasiko dugu  
orain jira kulturala. (bis)
- A. Egaña: Ta kulturaren gu ez izan arren  
erregin eta errege  
Irlandarekin badegu hainbat  
atxikimendu ta fede.  
Bidaiatxo hau izan liteke  
guztiontzako mesede  
"Haizea dator iparraldetik"  
bota zuen Letek ere. (bis)

- A. Arzallus: Nahiz Leterena txikitatikan  
kasetetan nuen entzun  
konturatu naiz ta ba al dakizu  
ze bertso kantatu dezun?  
Gure errimak ezagututa  
entzuten ari nintzaizun  
eta Irlandan fedearena  
ze ondo gelditu zaizun! (bis)
- A. Egaña: Era hortako eskema batzuk  
aldatu behar bizitzan  
Amets ta biok aritu gera  
hementxe aldatzegintzan  
ta adibide jarri ezker  
fedean edo elizan  
nazionalistak gera gu biok  
nahiz protestanteak izan. (bis)
- A. Arzallus: Arrazoi dezu neu ere nago  
zeure lelo horren alde  
ta protestantek ze esan nahi dun  
gero norberari galde.  
Nazionalista edo fededun  
ateo nahiz fedegabe  
gu joaten garen leku guztitan  
kontra egiteko gaude. (bis)
- A. Egaña: Baina batzutan txintxoia naiz ni  
eta santua da bera  
ta gaurko hontan konpromisoak  
baditugunez sobera  
ta egunari ezin zaizkio  
hainbeste ordu atera  
garagardoak buka ditzagun  
ta goazen beste batera. (bis)

## **ZESTOA (2011-05-06)**

*Bertsolariak: A. Estiballes, M. Lujanbio, A. Egaña, I. Zubeldia, J. Soto eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Erralla Bertso Eskolak antolaturiko jaialdia. Kiroldegian izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

*M. Lujanbio-A. Arzallus* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11srgs>

Gaia: Bikote hasiberria zarete. Asteburuetan bakarrik juntatzen zarete. Gaurko egunez, ostiral batez, elkarrekin joaten zarete afaltzera, eta ba horixe, ostiraleko plana: afaldu ostean, leku baten bila. Joan zarete mendi aldera, eta Ametsek, "ez, ez; hemen haizea dabil". Joan zarete itsas bazterrera eta "ez, ez; hemen olatuak sartzen dira eta..". Ordubete daramazue bueltaka.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Dama gazte xarmant bat*

M. Lujanbio:      Tipo honen aguantea  
                         ez da humanoa!  
                         Zuk dezu gogo epela  
                         nik daukat monoa  
                         "Hemen ez" beti "Itxoin  
                         hauntzaxio noa"  
                         zertako erosi zendun  
                         todoterrenoa? (bis)

- A. Arzallus: Eroster a joan nintzan  
Volkswagen batera  
kotxe elegante ta  
txuloa atera  
honekin ateratzen  
nintzan ligatzera  
beraz sobran daukagu  
hemendik aurrera. (bis)
- M. Lujanbio: Itzurun ta Azpeiti  
hiruzpalau jira  
berriz joan ta etorri  
ta berriro bira.  
Zure gasoila igual  
gastatzen da tira  
baino nere bateria  
kargatzen ari da. (bis)
- A. Arzallus: Baina hara nun dauden  
garbi arazoak!  
GPSan dauzkat  
nik mapa osoak  
nahiz agertu mendiak  
eta itsasoak  
ez du jartzen nun dauden  
gure gurasoak. (bis)
- M. Lujanbio: Orain azeleratu  
eta orain galga  
oain argia dagola  
oain dagola malda  
txortan noiz eingo degun  
nahi dizut nik galda  
elea kendu arte  
itxoin behar al da? (bis)
- A. Arzallus: Ene holakoik ez nun  
nik entzuna inun!  
Baina noizbait behar ta  
gertatu da egun.  
Joño! Txortan egin nahi  
al zendun ba lagun?  
Hori hasieratik  
esan behar zendun. (bis)



## M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ssj8>

Gaia: Telebistan ikusi dugu egunotan Bin Laden-en emaztea, hizketan.  
Berari kantatu behar diozu, baina doinua nik emango dizut: *Hil da Canovas*

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas I*

Mundu osoa bere atzetik  
orain dela hamar urte  
bere hilotza lau haizetara  
zabaltzen hor dihardute  
justiziaren izenean ai  
edozein etsairen putre!  
Zernahi sistema erabiliaz  
informazioan truke.  
Hil da Bin Laden joan da Bin Laden  
hil da, ez, baizik hil dute.

Eta ni ez naiz gizon musulman  
hura defenditzeko gai  
baina Obama ere bihurtu  
zait nere ideien etsai.  
Nola Amerika zernahi lekutan  
den muturra sartzeko gai  
demokrazi ta pake bideak  
gero aipatzen dituzte ai!  
Euren erailak zilegi dira  
ta euren torturak ere bai.

Batzuk mugitu ditzake igual  
Jainkoan erreklamuak  
euren fedea zabaltzekoak  
dira beraien asmuak.  
Mendebaldean jokabideak  
baina ez dira sanuak  
zernahi arma ta zernahi erail ta  
gero alperrik damuak.  
Eurek sortzen ta eurek erailtzen  
dituzte euren mamuak.

## **ABADIÑO (2011-05-07)**

*Bertsolariak: S. Colina, Mañukorta, U. Iturriaga  
eta J. Uria.*

*Gai-emailea: Maite Berriozabal.*

Matiena auzoan San Prudentzio jaiak ospatzen dituzte, eta urtero antolatzen dute bertso jaialdia.

*S. Colina-J. Uria*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11stlk>*

Gaia: Zuek biok Bilduko kideak edo jarraitzaileak izan zarete hasieratik, eta jakin zenuten Bildu legalizatu dela. Ospatzeko ekitaldi bat antolatu duzuen arren, Sustrai, zuk Jone ez duzu horren pozik ikusten.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Nafarroako mendi gainetan*

|            |                                                                                                                                                                                                                                    |
|------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| S. Colina: | Berriz legalak gara itxuraz<br>hala espero gintuzten<br>nahiz ta zaila den iraganeko<br>lastreak albora uzten<br>baina zerk dizu ilusioa<br>edota poza zapuzten?<br>Eta ez esan hasi zarenik<br>berriz gauzak beltz ikusten! (bis) |
|------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

J. Uria: Nahiz ta zabaldu zaigun pozaren  
ta esperantzaren atea  
ez nuen espero gura baduzu  
hau egia esatea  
ta horregatik onartu nuen  
nire izena ematea  
ba al dakizu ze marroi dugun  
alkatea izatea? (bis)

S. Colina: Lehen motibo bat zeneukan beti  
kopeta guztiz belzteko  
poligonoa zela bateko  
bariantea besteko  
beti zenbiltzan protesta egiten  
aldarrika ta eskeko  
oraintxe duzu aukera Jone  
gauzak aldatzen hasteko. (bis)

J. Uria: Gauzak aldatu behar ditugu  
dena ez dadin kakaztu  
baina unean poza ta kezka  
batera zaizkit nahastu  
ez dut esango berria entzun  
eta ez naizenik poztu  
baina egin behar den lan guztia  
ere ezin da ahaztu. (bis)

S. Colina: Barkatu Jone baina gurekin  
egon zaitezke seguru  
izan'e Bilduk herririk herri  
ilusioa sortu du.  
Programa orritan jarri ditugu  
hainbat amets ta helburu  
eta batera jarritakoa  
batera egingo dugu. (bis)

- J. Uria: Nahiz eta poza ta esperantza  
jarri diren indarrean  
aurrera segi dezakegunez  
modu berdin samarrean  
ta atxiloketak ta beste edozer  
egon liteke aurrean  
poztu gaitezen ospa dezagun  
baina bi oinak lurrean. (bis)
- S. Colina: Zu zaude lasai nere bi oinek  
zapaltzen baitute lurra  
orain arteko sistema izan da  
fartsa eta iruzurra  
hamar urteetan probatu dugu  
galtzailearen egurra  
ta orain ezin leike sentitu  
irabazteko beldurra. (bis)
- J. Uria: Bai egia da nahiz ta baneuzkan  
horrenbeste atsekabe  
dena ez dago horren iluna  
dena ez dago hain grabe  
eta poztu naiz eskerrak Sustrai  
hor zeundela parez pare  
bildu gaitezen irabazteko  
bildurrik eduki gabe! (bis)

## **AZKOITIA (2011-05-13)**

*Bertsolariak: A. Egaña, S. Lizaso, On. Enbeita, Ministro, A. Mendiluze eta J. Sudupe.*

*Gai-emaila: Idoia Alberdi.*

Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolaturiko saioa, Azkoitiko Udalaren babesarekin. Elkargunean izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

### *A. Mendiluze-Ministro*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11suo0>*

Gaia: Mendiluzek urte asko daramatza hezkuntza arautuan bertsoa irakasten; Ministro ere ari da, hezkuntza araututik kanpo, eta baditu galdera batzuk Aitorrentzat.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Haizeak bidali du*

Ministro: Maisu izatea da  
benetan gogorra  
nahiz batzutan guk bertan  
bilatu altxorra  
galdera bat badaukat  
Aitor entzun horra:  
nola definitzen da  
bertsolai lehorra?

A. Mendiluze: Definizio hori  
nola eman zuzena  
jakin arren ni horren  
jakitun naizena?  
Lehorra da nahiz bota  
bertsorik onena  
ez parra ta ez negarra  
sortzen ez duena.

Ministro: Ta hasten naiz sarritan  
ikasleei kontatzen  
nola hasi behar den  
ondo errimatzen  
pe ge erre erre ta d  
bodegara behartzen  
ta denak hasten zaizkit  
zerbeza eskatzen.

A. Mendiluze: Errima erakusteko  
kontseju bat tira:  
soinu berdintasuna  
izatez hori da  
ez beitzeko letrara  
baizik belarrira  
ta nahasten direnean  
belarritik tira.

Ministro: Gero jarraitutzen det  
ozen gogotikan  
abestu behar dela  
bakoitzak beretikan  
ta erantzuten didate  
denak albotikan:  
“Nola abesten da ba  
besteenetikan?”.

A. Mendiluze: “Norberetikan egin  
behar du jarduna”  
hori da guk askotan  
esaten deguna  
baina haurrentzat igual  
gehitxo da laguna  
ta esan kantatzeko  
bakoitzak ahal duna.

Ministro: Ta gero jarraitzen det  
“Errespeto peto”  
esanez “Eduki alkarri  
hainbat errespeto”  
ta eunduko dilema  
eiten da tarteko  
nola esan kantatzeko  
ta isilik eoteko?

A. Mendiluze: Hori nola azaldu  
kontsejua hara:  
lehenbizi inguratu  
bertso lanetara  
ta esan ez ekartzeko  
mingainan puntara  
isiltasuna baino  
hobea ez bada.



*Beterriko Bertsolari Txapelketa. Amasa-Villabona.  
Argazkilaria: Larramendi Kultur Bazkuna  
Iturria: XDZ*

## **DURANGO (2011-05-26)**

*Bertsolariak: Abarkas, U. Iturriaga, I. Ibarra eta  
G. Lazkano.*

*Gai-emailea: Maite Berriozabal.*

Durangoko Kafe Antzokian izan zen, *DF Bertsozale Eskolako* saioa.

*I. Ibarra-U. Iturriaga*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11svqc>*

Gaia: Hauteskunde oste sasoian gauden honetan, lehengoan, *DF Bertsozale Eskolako* jardunaldian, Amaia Agirre izan zen hemen, eta berak aipatzen zuen gauzetako bat zen bertsolarien erreferentziak aldatu egin direla denborak aldatu diren heinean. Hauteskunde sasoi honen errepaso bat egin dezazuen gurako nuke, orain dela ehun urteko bertsolari bik egingo luketen lez.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak*

U. Iturriaga:       Oin ehun urtetik gaur egunera  
                          gaur kolpera etorri naz  
                          pixkat galduta nao egia esan  
                          hemen pasatu danagaz  
                          ezin ulertu karlista eta  
                          liberalen ideiegaz  
                          pentsatu eizu partidu bat dau  
                          mendi baten izenagaz! (bis)



- I. Ibarra:            Bueno izena ez da zatarra  
                          jarri eutsien polito  
                          eta gainera batu egin ziren  
                          bi partidu eta piko.  
                          Emaitzak oso onak ditugu  
                          argi gelditu da kitto!  
                          Ta euskaldun danok batu ezkerro  
                          inok ez gaitu hautsiko. (bis)
- U. Iturriaga:        Batuta baino zatituta dauz  
                          erdi banaka alderrai  
                          PNV ta PSOE dagoz  
                          gure sasoi hartakoak bai  
                          ta gero dago PP izeneko  
                          bat esan dot nik Joxe ai  
                          baina ez ei da Joxe izan ta  
                          izaterik be ez dau nahi. (bis)
- I. Ibarra:            Jente gaztea dabil halan be  
                          orain emoten mitinak  
                          ta ikusten dot batzuek dira  
                          jakintsuak eta finak.  
                          Halan ta guzti gaurko problemak  
                          dira lehengo bardinak:  
                          lehen ikurrina debekatu zan  
                          eta orain pegatinak. (bis)
- U. Iturriaga:        Zuk dinozunez oin be badagoz  
                          asko askatasun faltan  
                          hori zala-ta Bildukoengana  
                          joatea otu jatan  
                          jatorrak dira gazte piloa  
                          eta pentsau neban "Kan kan  
                          ia baten bat ikusten dodan  
                          zortziretako mezatan". (bis)

I. Ibarra: Egia da bai afizinoak  
ez daukiez mezarenak  
halan ta guzti saiatzen dira  
konpontzen euren problemak.  
Ez dira hainbeste aldatu Unai  
orduko gaurko eskemak  
orduan ere asko egon ziren  
ardaua gurtzen ebenak. (bis)

### *Abarkas*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t0so>

Gaia: Bizi erdia osasuna galtzen, eta beste erdia konpontzen.

Neurria: Hamarreko handia  
*Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas I*

Esaera horren ulertzearekin  
jakin modu asko bada  
ume-umetan dana apurtuz  
iristen gara bertara  
gazte aroan dena izaten da  
parranda eta parranda  
berrogei urte bete ondoren  
gure kontzientziak hara  
dena konpondu nahiean gabiz  
dena uzten saiatzen gara.

Baina edadeak ipintzen gaitu  
ustekabez bildurrean  
nola sarritan pentsatzen dugun  
azkenean, agurrean  
urte luzeetan egindakoa  
konpondu gau laburrean  
baina azkenean pertsonak gara  
ta azkeneko muturrean  
gauza askorik ezin da egin  
datorrenaren aurrean.

Tabakoa utzi ardoa utzi  
ta denok erdi dardarka  
nola medikuak analisitan  
jarri dauen hainbat falta  
baina nik hori ahaztu eta  
beste hau nahi nuke kanta:  
goza dezagun denok bizitza  
ta duda denak aparta  
azkenerako mundu hontara  
hiltzeko jaio gara-ta!



*Bertsolamintza 2011. Pentsaurrekoa*  
*Argazkilaria: Estibalitz Esteibar*  
*Iturria: XDZ*

## **BILBO (2011-05-28)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, S. Colina, J. Maia eta  
M. Lujanbio.*

*Gai-emailea: Oihana Bartra.*

Maiatzean antolatzen dituzten udaberriko saioetako bat. Ohi bezala eguerdian izan zen, Karmelo parkean.

*U. Iturriaga-S. Colina* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t1v4>

Gaia: Unai, hiru aste daramatzazu indignatuta; zuk, Sustrai, hogeitau urte daramatzazu. Gaur, Arriaga plazan egin duzue topo.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala I*

U. Iturriaga:      Azkenaldian pasatu diran  
                         guztiekin konturatu  
                         eta jente pilo bat han ginen  
                         Arriagara hurreratu.  
                         Zuk zure adinean gaur artean  
                         ez dozu bide hori hartu  
                         adinak ez gaitzala urrindu  
                         ta bai hasarreak batu!

S. Colina: Ez dut esaten zure asmoak  
direnik hain aldrebesak  
baina betiko aldapak dira  
pikoak eta nekezak.  
Nahiz ta beti zurekin eraman  
jende zaharraren babesak  
zerk batzen gaitu mundu hobe batek  
edo zure interesak?

U. Iturriaga: Barriz be diskurtsoa bihurtu  
behar ete jaku horma?  
Interesduna irudituko  
jatzu datorrena hona  
hemen ez dau interes haundirik  
ulertu eizu gizona!  
Interesak ordaindu ezinak  
ekarri gaitu gu hona.

S. Colina: Nunbait bankuak bihurtu dira  
krisiaren estandarte  
kalera irten ta egin nahi duzu  
bebingoan punto ta aparte.  
Orain dena da demokrazia  
eta dena da gizarte  
galdera bakarra otu zait neri:  
nun egon zara gaur arte?

U. Iturriaga: Orain artean neuk be ez dakit  
zetan joan jaten astia  
izango zan bizimodu erraz bat  
hondartza ta eguzkia  
baina bebingoan itxartu banaiz  
onartu naixu ostia!  
Trintxeran daroazun denbora  
da diferentzi guztia.

- S. Colina:       Baina trintxeran nik igaro dut  
neure bizitzan aroa  
sekula ez izateagatik  
menpekoa, esklaboa.  
Zuei eskerrak krisi garaia  
izango da oparoa  
tienda kanpainen negozioa  
zuei esker gora doa.
- U. Iturriaga:     Eta gainera ironiagaz  
zabizela gaur dirudi  
gu gara kottadu batzuk antza  
jarri zaituenak urduri  
gu pringau batzuk zu idealista  
betiko eran mundu bi  
iraultzailok mundu ederra  
itxi zeunzkuen ba guri!
- S. Colina:       Ni Euskaldunan zaildua nauzu  
ta manifa bakoitzean  
ibiltzen nintzen harriak hartuz  
zimiko bat bihotzean.  
Nahiz orain harro ikusten zaren  
Arenalaren ertzean  
egun batean jabetu baietz  
nor dagon zuen atzean!

## **LASARTE-ORIA (2011-06-04)**

*Bertsolariak: An. Otamendi, J. Soto, U. Alberdi  
eta A. Labaka.*

*Gai-emailea: Unai Muñoa.*

Zabaleta auzoko jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izaten da, plazan, eta jende ugari elkartu ohi da.

*An. Otamendi- A. Labaka*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t31g>*

Gaia: Urte asko pasatu ditu Ezker Abertzaleak legez kanpo. Aurten, beste bi alderdirekin batera, Bildu markarekin, lortu dute hauteskundeetan egotea. Hego Euskal Herrian emaitza ederrak lortu dituzte, eta Gipuzkoan uholde bat izan da, eta Lasarten ere bai. Eta, gainera, aukera egon badago alkate berri bat izateko. Gerta daiteke, zergatik ez? Nik jakin nahi dut zuen ustez zer aldatuko litzatekeen Lasarten, aldaketa hori gertatuko balitz.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I*

|               |                                                                                                                                                                                                                    |
|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| An. Otamendi: | Hogeita bost urte pasa dira<br>eta PSOEn itzala<br>hain izandu da izugarria<br>haundia eta zabala<br>ondoko herritan esaten zuten<br>denak erdaldun ginala.<br>Behingoagatik azal dezagun<br>euskeraz bizi gerala! |
|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

A. Labaka:                   Gaur Xirimirin lehen jaso det  
horren albiste alaia  
aldaketa bat ba omen dator  
SOEk<sup>12</sup> bota du toalla.  
Pablo alkate izan daiteke  
ta eman behar du taila  
lehengoa baino hobeto egiten  
ez dago-ta oso zaila!

An. Otamendi:           Auzoak martxan jarri ditzagun  
badet hortako gogua  
alda dezagun herrigintzaren  
modua eta mundua.  
Gure gazteak gure zaharrek  
altxa bezate burua!  
Iristea zaila izan da baina  
mantentzea da helburua.

A. Labaka:               Hobekuntza da behingoan SOE  
alkatetzatik kentzea  
erabakiak herritik eta  
herriarentzat hartzea.  
Bildu gera ta gerta liteke  
bildutakoan lortzea  
gaur ezpainetan degun irria  
lau urteetan mantentzea.

An. Otamendi:           Hainbeste talde eskera joanda  
ezetza zan hain ezagun  
bertsotarako txapelketa bat  
eskatzen ta ezetza jardun  
gazte festetan kontra ibili da  
Udala ez gendun lagun.  
Orain arteko ezetz guztia  
guk baietz bihur dezagun.

---

(12) PSOEK.



A. Labaka: Ni ere nago ezetza baietz  
bihurtzeko esperantzan  
garai berri bat degu aurrean  
lehengoa jada joan zan.  
Txikiziorik ez da izango  
Zubitan eta Andatzen  
ta sorgin jaiak egingo dira  
orain bai Okendo plazan.

An. Otamendi: Aldaketa bat etorri bedi  
gure herriko mundura!  
Danok dakigu izan leikeela  
nahiko zaila abentura.  
Atez atekoa jar dezagun  
eskatzen degun modura  
ta orain ez inor aberasten  
Udaletxean kontura.

A. Labaka: Baina herria asko aberastu  
liteke bai beharbada  
kanpoan dauden hoiek edukiz  
behingoz bertatik bertara  
ta atez ateko famatuak'e  
arindu lezake karga.  
Hitz egin asko egin degu ta  
egiten hasi behar da.

### *J. Soto-A. Labaka* ♪

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11143s>*

Gaia: Badakizue Juliok Nafarroako bi txapel badituela, eta dagoeneko plazaz plaza dabil, eta saio pila egiten ditu, eta egoa hazita dauka, oso goian. Neskatan ere plazaz plaza eta herriz herri oso *txulito* dabil. Gaur, Ane tokatu zaio parez pare.

Neurria: Zortziko txikia  
*Doimua: Kantatzera nijo*

- J. Soto:           Beti inguruan ze  
                      neskato pinpirin!  
                      Nafarroako txapeldun  
                      bikoitza naiz ta en fin.  
                      Gaur ere hurbildu zait  
                      ze neska goxo fin!  
                      Zuk aukeratu zazu  
                      zer eta non egin. (bis)
- A. Labaka:        Damutzeko izan leike  
                      maiz gaizki egina  
                      txapelduna zaitugu  
                      txapeldun haundina  
                      baina ez zenun lortuko  
                      ez Julio berdina  
                      zu gipuzkoarra-edo  
                      izango bazina. (bis)
- J. Soto:            Ai inbiria zer den  
                      beti kutxi-kutxi!  
                      Ta zu're inbidiosa  
                      inbidia igurtzi.  
                      Nik sekulako maila  
                      ohi dut erakutsi  
                      izena eman nahi nuen  
                      ta ez zidaten utzi. (bis)
- A. Labaka:        Bertso kantari egin  
                      hainbeste otordu  
                      ta ligatzeko ere  
                      horrenbeste modu!  
                      Silveira hobea da  
                      horrela diogu  
                      eta gainera askoz  
                      morbo gehiago du. (bis)

- J. Soto: Silveira azaltzen da  
hitzaren senean  
morboa pizten baitit  
neri barrenean  
ba bai morboa badu  
urrun dagonean  
ta morboa galtzen du  
gertuatzen denean  
ta morboa galtzen du  
hurbiltzen denean.
- A. Labaka: Hurbilduko nintzake  
lasai nere kasa  
harekin konpartitu  
nahiko nuke plaza  
baina urduri zaude  
galduta arnasa  
hau al da jaso dezun  
lehen kalabaza? (bis)
- J. Soto: Behin atera ezkero  
etxetik harago  
horrelakorik ez zait  
pasatu lehenago.  
Kalabaza eman dit  
ta ni lasai nago  
zeren aukeratzeko  
badauzkat gehiago. (bis)
- A. Labaka: Hitz egin behar dezu  
pixka bat xuabe  
ez nun aspaldi entzun  
harrotasun gabe.  
Gaur ez zera egingo  
zu Aneren jabe  
koadrilakoak zukin  
txoratuta daude. (bis)

## **EREÑOTZU (2011-06-12)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, M. Lujanbio, A.  
Mendiluze, U. Agirre, B. Gaztelumendi*

*Gai-emailea: Aritz Zerain.*

San Antonio jaietan urtero egiten duten jaialdia. Arratsaldean izan zen, plaza jendez beterik zela.

*U. Iturriaga-M. Lujanbio*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t568>*

Gaia: Zuek biak herri bereko bi alkate izango zarete. Maialenek atzo utzi egin zuen alkate kargua, eta Unaik hartu.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak*

M. Lujanbio:      Siglak ditugu diferenteak  
                         ez gera elkarren antzeko  
                         arrotz zintuen Udaletxeak  
                         gaurtik aurrera etxeko  
                         eta aginte makila tori  
                         arkakusoak kentzeko  
                         nahiz emateko baino gehiago  
                         izango dezun hartzeko.

- U. Iturriaga: Orain artean alkate gisa  
hemen zara nabarmendu  
uste zenuen behar zendula  
eternitatez mantendu.  
Odon gaixoa arkakusorik  
ja ezingo duzu kendu  
orain ikusi behar duzu zuk  
kanpoan hotz egiten du!
- M. Lujanbio: Nik onartzen det zure alderdiak  
orain hartu dun tipoa  
nik onartzen det koalizio bat  
horrela alde bikoa  
nik onartzen det herritar askok  
izan zaitu begikoa  
baina Odonek galtzea hori ez  
ez da demokratikoa.
- U. Iturriaga: Demokraziak horixe dauka  
eguneroko praktika  
eta ez zaizu ongi iruditzen  
ni alkate ikusita  
ez ote naiz ba alkate egin  
bozketa baten hasita?  
Demokratikoa ez da silloi bat  
ipurdira itsatsita.
- M. Lujanbio: Donosti *marco incomparable*  
egin det dudarik gabe  
zuk eiten dezu barrikoteen  
ta lehengo gurdien alde.  
Udaletxetik egin behar det  
jendeak nahi ez ta alde  
Igeldo eta Ereñotzu ta hoik  
oso pozik omen daude.

U. Iturriaga: Orain ebatzi beharko dugu  
herria edo auzoa  
baina jendean borondatea  
oinarri duen osoa.  
Nahiz ta nik euki alkate izena  
eta makila jasoa  
toki berean egongo dira  
zerua ta itsasoa.

M. Lujanbio: Folklorearen gorakada ta  
modernitate galera  
pentsa kargua hartu dunean  
kantatu du habanera!  
Habanera bat bastante txarra  
gaizki kantauta gainera  
donostiarrei ze datorkien  
hortik kontuak atera!

U. Iturriaga: Egia da bai ez nintzen jardun  
ez oso tonu alaian  
do maior edo menorra hartu  
hor egon nintzen ezbaian  
baina ez ukatu aritu nintzen  
behar zan moduan gaian  
zuk hogeitau urte pasau dituzu  
euskara ikasi nahian.

## **TOLOSA (2011-06-23)**

*Bertsolariak: J.M. Irazu, A. Gorostidi, B. Iguaran,  
I. Zubeldia, B. Gorostidi eta A. Agirre.*

*Gai-emailea: Iker Iriarte.*

Zazpietan txupinazoa bota zuten jaiei hasiera emateko, eta segidan bertso saioa izan zen, Zerkausian.

*J.M. Irazu-B. Gorostidi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t68k>*

Gaia: Aurrejubilatua zarete biok. Erretiroa hartu zenutenetik, Irazuri, gauza bat dela eta bestea dela, egunak oso azkar pasatzen zaizkio. Bixenteri, berriz, egunak oso luze joaten zaizkio.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Erreguetan ari nintzela*

J.M. Irazu:           Goizean jeiki ta enkargutara  
                          lehen ohiturik ez nun berez  
                          ta eguardian biloban bila  
                          semea baitabil lanez  
                          gero afaia prestatu behar  
                          zerbaitetan jardun errez.  
                          Hauxe da marka jubilatuta  
                          ezertarako betik ez!

B. Gorostidi: Ni berriz lehen ibiltzen nintzen  
makina baten neurrira  
orain goizean paseotxo bat  
eta garaiz erretira  
arratsalde eta iluntze osoan  
gelan jira eta bira  
mundua erabat geldi ikusten det  
nere leihotik begira.

J.M. Irazu: Bixajea're triste xamarra  
Bixente ez al daukazu?  
Berrogei urte lanean pasa  
trote galanta da aizu!  
Mundua geldi ikusten dezu  
hargatikan zaude izu  
etorri zaite nere etxera  
laister mugituko zaizu!

B. Gorostidi: Zure etxera joatea Irazu  
ez dakit ba komeni dan  
bilobatxoei segitu ezinik  
pasilloan jira-biran.  
Ni mantso-mantso lana utzita  
jubilatu ta segidan  
bizi nahia ta animoa're  
jubilatu egin ziran.

J.M. Irazu: Zeure buruai poz pixkat eman  
proiektu batzuek hartu  
jarri loreak edo txakurrak  
ta denbora bideratu.  
Neri eguna moztu egin zait  
hala're majo osatu!  
Lehen nekatu egiten nintzan  
ta orain berriz gozatu.



B. Gorostidi: Indarberritu egin zera zu  
zu bai zerala tipoa!  
Baino bizitzan nik bukatu det  
lanaren mende itoa  
urte asko ez degu aurretik eta  
orain hori betikoa:  
denbora soilik daukagu eta  
hoi gure kontra dijoa.

J.M. Irazu: Txikito batzuk hartu ohi ditut  
tarteka lagun artean  
afari batzuk egin ere bai  
nere herriko elkartean.  
Zutik nekatzen segitu nahi det  
ikastolako atean  
ta deskantsua iritsiko zait  
kanposantura joatean.

B. Gorostidi: Eta hara noiz joango geran  
nola ez guri ardura  
baino hobeto pentsatzeko're  
igual garaia heldu da  
ta animoak berreskuratu  
zuk esandako modura  
nere pena ta tristura denak  
botaz San Joanen sura.

## **HERNANI (2011-06-26)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, B.  
Gaztelumendi eta A. Rezola.*

*Gai-emailea: Gorka Tolosa.*

San Joanetako saioa, Elur-Txori elkarteak antolatua. Gudari enparantza bete egin zen bertsolariak entzuteko.

*A. Arzallus-B. Gaztelumendi-A. Rezola* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t7b0>

Gaia: San Joanetan ere egundoko ilarak egoten dira tabernetako komunetan.  
Kontua da Amets, zuk, kanpoan ia ordu erdi zain daramazula, eta  
halako batean libratu da komuna, eta barrutik bikote hau irten da.

Neurria: Seiko txikia

*Doinua: Bertsuak jarri dizkat*

A. Arzallus:                      Ja bukatuko ziran  
                                         urak ta papela!  
                                         Ni hemen zai egon naiz  
                                         erdi lo bezela  
                                         ta espero dut behintzat  
                                         on ein dizuela. (bis)

B. Gaztelumendi:              Bai juxtu hortarako  
                                         degu eta festa  
                                         nahiz ta Amets ez dagon  
                                         umorez gainezka  
                                         hemen barruan bero  
                                         egiten du ezta? (bis)

- A. Rezola: Komonetan badago  
hamaika kontaktu!  
Guk edozein pertsona  
nahiz ta ez onartu  
Amets zu zergatikan  
ez zera ba sartu?
- A. Arzallus: Ni kanpoan nengon ta  
zer zan barrenean?  
Ta hara bi mutilak  
irten azkenean!  
Zeatik sartu zerate  
nesken kumunean? (bis)
- B. Gaztelumendi: Mutilena okupatu  
egin dute aizu!  
Ta hala're haserre  
egongo zera zu.  
Agin galtzak aldrebek  
jantzita dauzkazu. (bis)
- A. Rezola: Normala da ibili naiz  
barruan bueltaka.  
Lasai! Zuzenduko det  
hoi're pixkanaka.  
Ta nesken komunetan  
beti da binaka. (bis)
- A. Arzallus: Niki ta galtzak kendu  
eta gero jira  
baina ordu erdi bat  
dexente da tira!  
Fontaneroak ere  
bizigoak dira! (bis)
- B. Gaztelumendi: Amets sartu barrura  
egin zazu froga  
krisketa itxi gabe  
utzita gerora  
nork daki igual beste  
norbait sartuko da! (bis)

- A. Rezola: Hortarako bai baita  
hamaika motibo!  
Ordu erditik gora  
ta ez dago giro!  
Ordu erdin pisalia  
egin zait berriro. (bis)
- A. Arzallus: Barrura sartu naiz ta  
kendu maratila  
ez plastiko ez papel  
nahiz ta hasi bila  
baina utzi dezute  
organiko pila. (bis)
- B. Gaztelumendi: Halere pisaleak  
halaxe gaude gu  
kanpora irteteko  
unea da heldu  
Agin zu ta nik kolan  
jarraituko degu. (bis)
- A. Rezola: Horrela bada egin  
biharko kunplitu  
Ametsekin egin bai  
gera gaur kupitu.  
Baino ze kola da hori?  
Ez det entenditu? (bis)
- A. Arzallus: Honera etorrita  
ezin egin buelta  
baina zertako nago  
beiratuz krisketa?  
Total gogua ere  
ja pasa zait eta! (bis)
- B. Gaztelumendi: Bueno zu lasai gaur prest  
gaude beste batzuk.  
Kolarekin zalantza  
batzuk dauzkazu zuk  
Amets joaten danean  
azalduko dizut. (bis)

A. Rezola:

Taberna makarrara  
ez gera sartzen maiz  
eta iruditzen zait  
gabiltzala garaiz  
lehengo abesti bera  
entzuten ari naiz. (bis)



*Bertsokatu Txapelketa. Gasteiz.*  
*Argazkia: Arabako Bertsozale Elkarte*  
*Iturria: XDZ*

## **ASTEASU (2011-06-28)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Maia, J.M. Irazu, A. Egaña, A. Arzallus eta A. Agirre.*

*Gai-emailea: Alaitz Sarasola.*

San Pedrotan urtero egiten duten jaialdia. Entzule asko.

*J. Maia-A. Egaña*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11vgcg>*

Gaia: Heriotzaz gutxi hitz egiten dela esaten da. Hil ondoren, ingurukoek askotan ez dute jakiten zer egin: hileta egin behar zaion edo ez, erre egin behar den... Esplika ezazue garbi zuen hil ondorengo borondatea zein den.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Dama gazte xarmant bat*

A. Egaña:        Nik asko erretzen det  
                     ez gutxi bakarrik  
                     ta heriotzak nauka  
                     hurbildu xamarrik  
                     ta nerekin zer egin  
                     ez jardun alperrik  
                     ez da izango errauts  
                     bihurtu beharrik! (bis)

J. Maia: Nik ez dizkiot eman  
horrenbeste buelta  
ta ez daukat gai hori  
barruan gordeta  
beti badet soberan  
nere berriketa  
igual hil ta gero're  
hitz egingo det-ta! (bis)

A. Egaña: Badakizu Maialen  
ahalegindu fuerte  
badakizu Irazu  
eta Amets zuk'e  
ez naiz alperrik jardun  
horrenbeste urte  
eskelako bertsoa  
on-ona nahi nuke! (bis)

J. Maia: On-ona idatzita  
on-ona kantatu  
baina detaile batez  
naiz ni konturatu:  
ni gazteagoa naiz  
ta ez gaixki hartu  
zergatik ez didazu  
neroni eskatu? (bis)

Neurria: Hamarreko handia  
*Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke*

A. Egaña: Gure artean hamaika urten  
aldea dago guztira  
baina heriotzan kapritxo hoiek  
kapritxo bitxiak dira.  
Ni lehen hilkor naizela eta  
Maia hain lasai ari da.  
Gerta liteke zu hiltzea ta  
bizirik banago tira  
nere onena pentsatuko det  
itsasoari begira.

J. Maia: Zu zaharragoa izanagatik  
ni jarri naiteke grabe  
itsas zalea naizela ere  
noski ez da nobedade  
baina bizitzan erronkak ere  
noizbait betetzeko daude  
nere hiletan erronka haundi bat  
jarriko nuke hala're:  
ia bertsoa nork eiten didan  
itsasoa aipatu gabe.



*Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Leitza.  
Argazkia: Nafarroako Bertsozale Elkarte  
Iturria: XDZ*



## USURBIL (2011-07-02)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, S. Colina,  
U. Iturriaga, S. Lizaso eta A. Azpiroz.*

*Gai-emailea: Imanol Arabaolaza, "Txatxari".*

*Gai-jartzaile: Usurbilgo Bertso Eskolako kideak.*

Santa Ixabeletan urtero izan da bertso jaialdia. Gauean izan zen, pilotalekuan.

Jendetza elkartu zen pilotalekuan, 500 lagun inguru. Aurten, gainera, pilotalekuaren ondoko kalea ere itxi egin zuten bertso eskolako kideek, mugimendu handiegirik izan ez zedin, eta itxura ederra hartu zuen herriak.

*S. Colina*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11t9fo>*

Gaia: Bihar da hainbeste borrokatu duzun finalaren eguna<sup>13</sup>.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi*

Bihar da eguna egun haundia  
akabo buruhaustea  
nahiko nukeena kantzara irten  
ta dena bertan uztea.  
Finalaurrea irabazi nun  
hark eman zidan ospea  
baina partida luze ta zail bat  
izan zen haren ostea.  
Batzuei doble kostatzen zaigu  
finalera iristea. (bis)

---

(13) Xalak buruz buruko finala jokatzeko txartela eskuratu zuen. Ebakuntza bat egin behar izan zioten, ordean, eta enpresen ligak ez zion atzerapenik onartu. Egoera horren aurrean Xalak prentsaurreko hunkigarri bat eman zuen, hainbat kide inguruan zituela, eta enpresen liga erabakia aldatzera behartu zuen..

Zorionean prentsaurrekoan  
lagundu zidan jendeak  
nere lankide ta enpresakoak  
ere izan ziren trebeak.  
Nahiz ta enpresak ez konturatu  
aurrera doaz mendeak  
bukatu dira garai bateko  
erabaki zelebreek.  
Inori burlik ez egiteko  
balio beza nereak! (bis)

Hilabete bat pasa ondoren  
soka batetik zintzilik  
gaur pentsatzen dut “Eskerrak Xala  
ez hintzen egon isilik”.  
Bihar izan nahi nuke egun on  
eder eta borobilik  
ta demostratu hilda zegona  
jada ez dagola hilik  
ta astelehenean hitz egin bedi  
partidari buruz soilik! (bis)



*Bertso-afaria. Mutiloa.*

*Argazkia: Hitzetik Hortzera*

*Iturria: XDZ*

## **LESAKA (2011-07-07)**

*Bertsolariak: J. Zelaieta, A. Egaña, J. Soto, M.  
Lujanbio eta X. Silveira*

*Gai-jartzailea: Lesakako helduen bertso eskola.*

*Gai-emailea: Iban Garro.*

Hogei urte baino gehiago dira Lesakan San Fermin egunez bertso saioa egiten dutela. Arratsaldean izaten da, herriko plazan.

*J. Soto-J. Zelaieta-A. Egaña-M. Lujanbio-X.  
Silveira* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tai4>

Gaia: Zu, Julio, pisukide baten bila zabilta, gastuak elkarbanatzeko edo.  
Lau hautagai dituzu zure pisura etorri nahi dutenak, atzeko lau hauek.  
Denak batera zure etxean bisitan dituzun honetan, zer itxura hartzen  
diozu bakoitzari?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Eguna pasa nekean eta*

J. Soto: Lesakan etxe bat ta etorri da  
lehen hautagaia nigana.  
Nahiz ta gastuak egin behar diren  
etxeetan banan-bana  
Julenekin ez da errex hori  
ta pentsatzen dut ai ama!  
Zeozergatikan daukate ta  
beratarrak xuhurran fama (bis).

- J. Zelaieta: Aizu! Zuk nondik aditu duzu  
 tipo xuhurra dela Julen?  
 Nik pisurako balioko dut  
 Julio hartu atsedeen.  
 Gastuarena aipatu duzu  
 baina nik lo soilik hemen  
 gastuangatik ez preokupatu  
 gasturik ez dut emanen. (bis)
- J. Soto: Eta Andonik koartu zikina  
 ohea zertan garbitu?  
 Ta janaria ekologiko  
 ta neri azala gorritu  
 “ETB1 ez jarri beste bat  
 esaten dena aditu!”  
 gazte pisu bat konpartitzeko  
 mania gehiegi ditu. (bis)
- A. Egaña: Alde hortatik arrazoi dezu  
 ni naiz lauotan zaharrena  
 baina mania izate hori  
 ez da dagoen txarrena.  
 Aitortzen dizut maitatzen ditut  
 higiena ta ordena  
 hemen baineran nik utziko det  
 ilerikan gutxiena. (bis)
- J. Soto: Eta Maialen bai ze jatorra  
 bera garaian garaiko  
 da hain moderna beti aurrera  
 ta ni lehengo arkaiko.  
 Holako neska elegante bat  
 pisu batean alajainko!  
 Nik nahiko nuke baina seguru  
 berak ez duela nahiko. (bis)

- M. Lujanbio: Egia esan ez det jarraitzen  
horrenbeste azken moda  
eta koska bat haundia dago  
nigandik ta modernora.  
Bera arkaiko omen da eta  
nun ote dauka ganora?  
Zu bizi zeran pisutxo hori  
koba ez da izango ba? (bis)
- J. Soto: Eta Xabier entzutez nahiz ta  
ezagutu lehenbiziko  
beti bertsotan beti parrandan  
hori dulako graziko  
nahiz desbentaja pila bat ditun  
esaten ez naiz hasiko  
bentaja haundi-haundi bat dauka:  
ez dut asko ikusiko. (bis)
- X. Silveira: Denak baietz zirudien baina  
okertu da bapatean  
ez nau onartu eta kolpetik  
mutu utzi nau atean  
beldurra baitzuen ni kalean  
nengokeen bitartean  
nere txapela jasan beharra  
bere txapelen artean. (bis)

## **IRUÑEA (2011-07-09)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, E. Lazkoz, O. Estanga  
eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Fernando Anbustegi.*

Iruñeko San Ferminetan izaten diren saioetako bat. Takoneran izan zen, eguerdiko ordu batean. Aulki gehienak eguzkitan zeuden eta jendea itzalean jarri zen, txosnako mahaietan. Hirurehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

*E. Lazkoz-A. Arzallus*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tbkg>*

Gaia: Zu, Eneko, futbolzale amorratua zara. Zuk, Amets, berriz, futbola gorroto duzu. Liga bukatu zenetik, Eneko antsietateak jota dago, berriz ere noiz hasiko zain. Eta zu, Amets, kontent, bake ederrean bizi zara.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Espainian behera*

A. Arzallus:       Urte guztian a ze  
                      kalbarioa ai!  
                      Lehen Camachok ez zigun  
                      inoiz ematen jai  
                      gero Mendilibarren  
                      taktika ta dohai  
                      ta ekain-uztail hau da  
                      neretzat dena guai:  
                      telebista libre ta  
                      laguna ere bai. (bis)

- E. Lazkoz: Uda nahiko tristea  
dijoakit aurten  
ta udazkenarekin  
nahiko nuke eten.  
Igande arratsaldeak  
orain daude herren  
Mundialik gabe uda  
ze aspergarria den  
Mundiala Españak  
irabazi arren! (bis)
- A. Arzallus: Españolak edota  
hiru koreano  
gero hurrena Lolo  
edo Soriano  
Osasuna ez denean  
Rayo Vallecano  
uztaila dugu ta hau  
ze harreman sano  
lehenengo aldiz afaldu  
dugu mano-mano. (bis)
- E. Lazkoz: Europako zeru ta  
segundako putzu  
Rayo, Soriano, Lolo  
aipatu dituzu  
hemen zabilta neri  
eman nahirik muxu  
ordea gaur benetan  
ezautu zaitut zu  
ez gustatzeko asko  
kontrolatzen duzu. (bis)

A. Arzallus: Orain hamar urte zen  
heldu niganaino  
dena izan da futbol  
zigarro-ke laino  
ta gaur ezagutzeko  
hainbeste enpeño  
ba askok baino gehio  
kontrolatzen det ño  
kontrolatzen det ia  
nazka emateraino! (bis)

E. Lazkoz: Hala're hori ez da  
uzteko baldintza  
eta nerekin oso  
gustora zabiltza  
urtero-urtero ia  
berdintsu gabiltza  
udaran San Ferminak  
ta bertsolaritza  
udazkenean berriz  
hasten da bizitza. (bis)

A. Arzallus: Ene! Udazkenean  
berriz ze disgustu!  
Ba nerekin jarraitu  
nahi baduzu prestu  
erronka jartzen dizut  
maitasun apustu:  
irailean Sadarren  
baloi denak ostu  
eta Champions kopari  
belarriak moztu. (bis)



## U. Iturriaga-A. Arzallus 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tcms>

Gaia: Zu, Amets, diskoteka bateko jabea zara. Unai kontratatu duzu gogó lanetarako. Gaur, lehenengo eguna du. Hor dago plataforma gainean. Pare bat ordu pasatu dira, eta konturatu zara enbor guztia mugitzen duela, eta nekez.

Neurria: Lauko handia

*Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II*

- A. Arzallus:        Gerria dauka soldeatuta  
                         ezin mugitu osoa.  
                         Oso sentsuala igual ez zara  
                         baina oso grazioso.
- U. Iturriaga:        Enbor bakarreko pertsona naiz  
                         kontrakorik ezin esan  
                         pare bat ordu daramatzat zain  
                         norbaitek ezpaldu nazan.
- A. Arzallus:        Ba oso errexka da deskribatzen  
                         ikusten den imajina:  
                         zu bik egingo zintuzten baina  
                         pieza batean egina.
- U. Iturriaga:        Erakargarriago suertatu  
                         ohi da pieza batekoa  
                         batzuk nahi dituzte latinoak  
                         eta ni naiz bertakoa.
- A. Arzallus:        Bai halaxe da baina problemak  
                         hasi zaizkigu pilatzen  
                         ze ez latino ta ez bertako  
                         ez zaizkizu gerturatzen.
- U. Iturriaga:        Egia da ez dudala izan  
                         jende askoren bisita  
                         gehiago gerturatuko zaizkit  
                         adarrak ahazten utzita.

- A. Arzallus: Baina hementxe hamar minutu  
pasa ostean begira  
aldaretako San Ferminak'e  
gehiago mugitzen dira!
- U. Iturriaga: Zu lasai egon! Ez naiz joango  
txantxa horregatik etxera.  
Itxaron pixka't Sanz dator eta  
aureskua kantatzera.
- A. Arzallus: Bai baina itxoin! Nik baldintza bat  
badut zuri oroitzeko:  
nik ehun euro ordaintzen ditut  
mugimendu bakoitzeko.
- U. Iturriaga: Ehun euro mugimendu bakoitza  
hainbeste al da egitan?  
Nik mugimendu bakarra daukat  
baina egiten dut sarritan.
- A. Arzallus: Ba igual podiuma mogituko dut  
jarriko dut han txokoan  
ia gehiago mogitzen zaren  
bentiladore ondoan!
- U. Iturriaga: Nire mugimendua iruditzen  
al zaizu horren tristea?  
Sartu ehun euro tanga barnean  
ta hasiko da bestea.
- A. Arzallus: Unai ze tanga eta ze kristo!  
Izateko sentsuala  
zapi gorria jarri behar duzu  
taparrabosa bezala.
- U. Iturriaga: Zapi gorria jarrita daukat  
hau da ikaragarria!  
Ez zara ohartu beste guztia  
daukadalako gorria.

- A. Arzallus: Egia esanda inun gogórik  
aurrez ez nuen ikusi  
dantza egiteko hainbeste gogo  
eta hain talentu gutxi.
- U. Iturriaga: Beraz ez noa sartzera behintzat  
diskotekan historian.  
Askoz gehiago luzitu ohi dut  
Aralarko erromerian.
- A. Arzallus: Oso ondo! Tira! Barra ertzero  
goazen laguna ordea  
zu ere ni bezelaxe zara  
jefe izateko hobe.
- U. Iturriaga: Bueno badoa nire enborra  
izerdia dariola.  
Pena ez duzuela hazten ikusi  
nire Gernikako arbola!



*BBK sariketa. Derio.*

*Argazkia: Bizkaiko Bertsozale Elkarte*

*Iturria: XDZ*

## GETXO (ALGORTA) (2011-07-13)

*Bertsolariak: J. Maia, S. Colina, F. Paia, A. Egaña, M. Lujanbio eta U. Iturriaga.*

*Gai-emailea: Peio Unzurrunzaga.*

Saio berezia egin zuten Algortan, *Bertso saio mundiala* izenburupean. Testuingurua osatzeko, ezohiko hainbat osagai izan zituen: gai-emailea mozturorik aritu zen, bertsoaldi batean aingeruak igo ziren oholtzara, kea, atzealdean pantaila handi bat, besteak beste. Tabu egiteko baliatu zutena. Jende asko eta saio ikusgarria, polita.

*F. Paia-A. Egaña* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tdp8>

Gaia: Zuk, Fredi, orain arte, Berriako zutabeetan nahi izan duzuna idatzi duzu, baina oraindik aurrera, zentsuratzaillea edukiko duzu: Andoni.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Nere gogoia hegan dioa*

F. Paia:           *Worda zabaldu eta banator  
zuzentzaileaz batera<sup>14</sup>  
zentratu nadin orain banoa  
nire facebook itzaltzera.  
Bertsolaritzaz idatziko dut  
eta kritiko gainera:  
Andoni Egañak azken urtean  
bertsotan egin du behera.*

---

(14) Eserita kantatu zuen Fredik, mahai txiki batean ordenagailua zuela, kantatuz eta antzeztuz.

A. Egaña: Tira ba Fredi goxatu zazu  
zure idazkera planta  
jainkoagatik eskatzen dizut  
ez zazula sartu hanka!  
Andoni behintzat ez aipatu hor  
ta zentsuratxo hau barka!  
Harpide asko gal genitzake  
Egaña Jainkoa da-ta!

F. Paia: Nire editore berri honekin  
jada hasi naiz beldurtzen  
nik debekurik ez dut onartzen  
ta ez al nau ezagutzen?  
Kritikauko dot orain *Berria*  
egia malkotan urtzen:  
harpidedunak ugari ditu  
ta inork ez du irakurtzen.

A. Egaña: Erosi ta ez irakurtzea  
askok duen politika  
gero ta askoz zailago baita  
begi ta letren kimika.  
Mesedez Fredi gai zail horrekin  
zu ez hasi ika-mika  
*Berrian* ezin baitegu hasi  
geure buruai harrika.

F. Paia: Ba politikaz mintza gaitezen  
posible bada oraindik  
ta Garitano Gipuzkoako  
Aldundi hortan izanik  
Bildu alderdi sortu berria  
horrela ikusten dut nik:  
kristoren boto piloa dute  
baina ez dute programarik.

A. Egaña: Hiru hitzetan bota dezuna  
akusazio grabea  
nere ustetan Bildu ez dugu  
programarikan gabea.  
Mesedez Fredi borratu ezkero  
denontzat a ze alde!  
Bestela nundik etorriko da  
gure publizidadea.

F. Paia: Bueno ulertu dut zure ildo  
gizon jatorra zarenez  
ba “Bildukoak onenak dira”  
idatziko dut indarrez  
“Andoni Egaña Jainkoa dugu  
nahiz ta Jainkorik egon ez”.  
Hemen daukazu artikulua  
zentsurau zazu mesedez.

A. Egaña: Irakurleak ze balio dun  
inortxok ez du jakiten  
Bildu onena dela esanaz  
hain garbi ez zaite irten  
Egaña berriz Jainkoa dela  
Fredi horren astakirten...  
Hurrengo urtean jarriko zaitut  
horoskopoa egiten.

## **ALEGIA (2011-07-14)**

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Egaña, A. Sarriegi,  
I. Zubeldia eta M. Artola.*

*Gai-emailea: Felix Irazustabarrena.*

Alegiako Karmen jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, Inaxio Begiristain kultur etxean. Bertsolariak eroso aritu ziren, eta bertsozaleek ondo pasatu zuten.

*A. Egaña* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11terk>

Gaia: Bakarkako gai bat jarriko diot, baina froga bat ere bai. Nik behintzat askotan pentsatu izan dut bakarkako gai bat jarri bertsolari bati, eta minutu batean zer gaitasun izan dezakeen honelako pertsona batek istorio bat asmatzeko, arrazoiak pentsatzeko, eta zer egingo ote lukeen bost edo hamar minutu izango balitu horretarako. Bada horixe egingo dugu. Nik gaia jarriko diot Andoniri, eta ez diot eskatuko orain erantzuteko; bost edo hamar minuturen buruan erantzun beharko du. Hauxe da gaia: Gaur arratsaldean ekaitzak jo du, eta euri zaparrada ikaragarria bota du. Andoni, plastikozko poltsa bat hartu eta karakola bila atera da ilunabarrean; eta karakola onenak, handienak, kanposantuko hormetan egoten direla eta, hara joan da. Nahiko beldur, nahiko kezka badu, baina hara joan da. Eta han dabilela, kanposantu barruan, telefono dei bat entzun du.<sup>14</sup>

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

*Doimua: Larogeita hamar urte*

---

(15) Kanpora irten da zigarro bat erretzera, eta mintu batzuen buruan itzuli da oholtzara.

Arratsaldeko laueta  
ze ekaitz ta ze eurite!  
Karakola biltzaileek  
hori ez dute ez kalte.  
Kanposantura hurbiltzen  
ederki asko dakite.  
Belarriak bete zaizkit  
saskia nahi nuen bete. (bis)  
Heriotzaren ahotsa  
iruditu baitzait fuerte  
“Egaña zuk ez daukazu  
espero adina suerte”.  
Esan diot “Prorroga eman  
bost, sei, hamar, hogeit urte.  
Herio zure aurrean  
karakol izan nahi nuke”. (bis)

Hauxe da soinu raroa  
ez kaset ta ez irrati  
segi egin nahi nioke  
horrelako soinu bati.  
Hain nengoen ikaraz ta  
hain nengoen ni beldurti  
Lazkao Txiki entzun dut  
ta hori inork ez daki.  
Erritan hasi ez zait ba  
gogorki eta setati!  
Esan dit “Potruak moztu  
ia hobe dek zenbaiti.  
Gaur egun bertsolariak  
joan zerate urruti  
garai baten bapatean  
jarduten ginduan beti”.<sup>16</sup> (bis)

---

(16) Lazkao Txikiren ahotsa imitatuz kantatu du kakotx artekoa.



Bila segi det aurrera  
 dardara nula eskutan  
 Lazkao Txikin ahotsa  
 amets huts baita batzutan.  
 Ez ez zen Lazkao Txiki  
 horretzek jarri nau sutan  
 “Soinu hori nundik dator?”  
 ni neu nenbilen disputan. (bis)  
 Hilerria miatu det  
 majina bat esparrutan!  
 Lore koroien atzean  
 ta panteoien barrutan.  
 Oinez nenbilela hantxe  
 panteoi arteko rutan  
 jabeak topatu ditut:  
 pareja bat zen larrutan. (bis)



*Arabako Bertsolari Txapelketa. Finala Gasteiz.*  
*Argazkilaria: Joseba Zinzunegi*  
*Iturria: XDZ*

## **ALTZO (2011-07-31)**

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio, I. Zubeldia, S. Colina, J. Soto eta U. Iturriaga.*

*Gai-emailea: Manu Olano.*

San Inaziotan urtero antolatzen duten jaialdia. Ohi bezala, gauean izan zen, pilotalekuan, eta ohi bezala, jende asko elkartu zen bertsolariak entzutera.

*A.M. Peñagarikano-M. Lujanbio-I. Zubeldia-S.  
Colina-J. Soto-U. Iturriaga*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11v9u8>*

Gaia: Askotan entzun dugu, izaeraren arabera, gizakiok baikorren eta ezkorren artean bana edo sailka gaitezkeela. Lehengo batean irakurtzen nuen, ez dakit zuek ados egongo zareten edo ez, ondo informatutako pertsona baikorra ezkor bihurtzen dela. Alegia, pertsona ezkorra ondo informatutako baikorra dela. Bertso bana kantatu behar duzue, sei puntukoa edo gehiagokoa.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

*Doinua: Maitasuna da bizi izateko*

A.M. Peñagarikano:

Lehen duda-mudan nengola baina  
hau da hau errematea!  
Badakizue zer egoeran  
dagon gaurko gizartea.  
Aitortuko det: nik ere badet  
errudunaren partea.  
Hura dala alkatea  
beste hura tenientea (bis)  
ta halakoak nahi zuela  
dirua eramatea...  
Gizarte hontan askotan hobe  
ezertxo ez jakitea. (bis)

### *M. Lujanbio*

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz  
*Doinua: Baserrian jaio nintzan*

Nola hitz baten laburtu  
gizartean imajina?  
Injustizia nagusi  
eta krisia propina.  
Euskal Herri txiki hontan  
aspaldidanik samina  
bihurtu zaigu nagusi  
eta aldendu ezina  
ardo goxo behar zuna  
nahiz sarritan den ozpina  
ilusio behar zuna  
nahiz den arantza ta mina  
nahiz errezeloak izan  
nahiz ta kezkatu jakina  
baikorrak izatea da  
sortzaileen zeregina.

## *I. Zubeldia*

Neurria: Hamabiko, handiaren moldekoa, 7 puntuz

*Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz*

Politikan zer gertatzen zaigun  
barruak dira irakin  
nahiz eta sarri oroitzen geran  
gure anai-arrebekin  
kartzeletara sartu dituzte  
ezer ezin degu egin.  
Hala eta guztiz *en fin*  
bizi gera berdin-berdin. (bis)  
Lehenagokoek esandakoa  
neronek ere banekin  
zenbat ta gehio sufritzen dala  
zenbat ta gehiago jakin. (bis)

## *S. Colina*

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

*Doinua: Baserrian jaio nintzan*

Bitan zeinek agintzen du:  
bihotzak ala barrenak?  
Soluziorik ez bada  
ba ote daude problemak?  
Informazioak ezkor  
bihurtzen al gaitu denak?  
Kontrako ejenplutzat dauzkat  
bake prozesuen temak:  
lehenbizi piztu gintuen  
ETAkoen su-etenak  
ta euforia zabaldu  
du Bilduren garaipenak  
entzun Arnaldoren hitzak  
edo Egigurenenak  
informatuen daudenak  
ez al dira baikorrenak?

## *J. Soto*

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

*Doinua: Larogeita hamar urte*

Nik jakin ez dakit asko  
nere adina tarteko  
naizela Julio izenez  
ta Soto abizeneko  
*ochentaisietekoa*  
ta alturan ia bi metro  
aita Pedro ama Kontxi  
eta anaia Alberto (bis)  
dudala *border collie* bat  
“Guau” egiten du jateko  
dauzkadala hogeï behor  
larre behor izen peto  
ta bestela ez dakit ezer  
gauzak garbi esateko  
baina badakit guztia  
zorionsu izateko. (bis)

## *U. Iturriaga*

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

*Doinua: Baserrian jaio nintzan*

Bizitzaren lezio bat  
izango zan hori *klaro*  
baikorretik ez gaitezen  
inozotara igaro!  
Jakintza obligazio bat  
izan leikela ta nago  
errudunak ez baitaude  
beti gugandik harago.  
Baina halere nigandik  
baikortasuna ez itxaro  
eszeptikoa baino naiz  
edanzalea gehiago  
botila erdi hutsik bada  
nik ematen diot trago  
ta horrela erdi beteta  
ikusten dunik ez dago.

## AIA (2011-08-07)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, S. Lizaso,  
X. Paya, A.M. Peñagarikano eta I. Zubeldia.*

*Gai-emailea: Andoni Egaña.*

Jaietako egitarauaren barruan, bertsolariek urtero izaten dute hitzordua Aian. Probalekuan izan zen saioa, eta oraingoan ere 800 entzule inguru elkartu ziren. Saio osoan zehar pertsonaia banaren paperetik kantatu behar izan zuten Xabi Payak eta Anjel Mari Peñagarikanok. Turista ingeles baten larrutik aritu zen Xabi Paya eta tabernako barra ertzean egoten den aiarrarenetik Anjel Mari Peñagarikano.

### *X. Paya-I. Zubeldia*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11th0c>*

Gaia: Xabi Euskal Herrian dabil. Etorri zen Ingalaterratik eta hilabete badarama Euskal Herrian; eta txundituta dago Euskal Herriaz, euskaldunak ikusita, euskaldunak ezagututa. Eta udazkenean, Birmingham-era itzultzen denean, hango unibertsitatera euskaldun-euskaldun bat eramán nahi du, frogak egiteko. Nor topatuko-eta Iker iruditu zaio euskaldun-euskaldun prototipoa, Birmingham-era eramateko. Ez dakit konbentzitu duen.<sup>17</sup>

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Nere senarrarekin I*

X. Paya:           Ene bada ze sudur  
                      bai eta ze buru!  
                      Hau euskalduna dugu  
                      seguru-seguru!  
                      Unibertsitatean  
                      zure zai gaude gu  
                      lasai! Ehiza egiten  
                      utziko dizugu. (bis)

---

(17) Ingelesen hizkera imitatuz kantatu zuen Xabi Payak.

- I. Zubeldia:      Hau da bitxo raroa  
                          a ze panoramak!  
                          Ez dakit ba aldatu  
                          lezakeen Zegamak  
                          txiklea ahuan dula  
                          entenditzen lanak.  
                          Hola hitz eite al du  
                          Inglaterra danak? (bis)
- X. Paya:            Lehenbizi galdeketa  
                          luzatu beharko:  
                          zure izena zein den  
                          esadazu alto  
                          ta “Iker” erantzun dit  
                          bai perfekto bapo  
                          elemento ederra  
                          ikerketarako! (bis)
- I. Zubeldia:      Entenditzen ai gea  
                          nola edo hala  
                          belarria egin zait  
                          ba gauza normala  
                          ikerketarako naiz  
                          fitxaje formala  
                          baina esan zaidazu  
                          zenbat da jornala? (bis)
- X. Paya:            Jornala aipatu du  
                          alto! alto! alto!  
                          Oraindik galdeketa  
                          osatu beharko  
                          jakiteko zu zaren  
                          deabru edo santo  
                          ba al dakizu esaten  
                          noiz den San Donato? (bis)

I. Zubeldia:       Gizon honekin dauzkat  
                          komeria latzak!  
                          Pikutara joan dira  
                          nere esperantzak  
                          baina argitu dira  
                          lehen nitun zalantzak  
                          hizketan badakila  
                          Mister Bean-en hartzak. (bis)

X. Paya:            Bueno ulertzen hasi naiz  
                          ta ez dago gaizki  
                          Mister Bean deitu dit ta  
                          atera garesti  
                          bai etorriko zara  
                          Birmingham-a noski.  
                          Museoan jarriko dut  
                          bitrina ta guzti. (bis)

I. Zubeldia:        Tratuk ez dira joan  
                          nahi bezin txukinak<sup>18</sup>  
                          haruntza ezin joan  
                          hau zer dan dakinak.  
                          Hemen gelditu nahi dut  
                          maitez ikurrinak  
                          bitarten Ixabeli  
                          eman eskuminak. (bis)

---

(18) Txukina= Txukuna.



## **ADUNA (2011-08-12)**

*Bertsolariak: A. Estiballes, B. Gaztelumendi, J.  
Soto eta A. Martin.*

*Gai-emailea: Amaia Agirre*

Adunako jaietan urtero antolatzen duten jaialdia.

*A. Martin*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11v1b8>*

Gaia: Zure atzetik oraintxe itxi da ziegako atea. Datorren asteburu arte ez zenuke berriz zabaltzerik nahi.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

*Doinua: ETAre su-etenetik*

Gaurkoan berriz jaso dut  
borrero hoien bisita  
nahiz ustez egina nuen  
mutil-lagunakin zita  
biluztuarazi naute  
nere aurrean jarrita  
borra bat ta pistola bat  
beldurrerako teknika.  
Ahalegindu naiz pentsatzen  
zerbait ederra, polita  
baina ni dardarka nago  
eta etsitzen hasita  
zeldako ateak zabalik  
eta begiak itxita. (bis)

Nahiz pertsona ohitu ohi den  
 arian eta arian  
 ze urduritasun dudan  
 esperantzaren harian  
 nire kalerako gogo  
 ta itxaropen nagian  
 holako bisitek hiltzen  
 ari naute aspaldian.  
 Malko bat daukat kafean  
 goizeroko gosarian  
 ta dardarka hasiko naiz  
 ta ez dut nahiko agian  
 mutil-lagunak laztantzen  
 nauen hurrengo aldian. (bis)



*Arabako Bertsolari Txapelketa. Finala. Gasteiz.  
 Argazkia: Arabako Bertsozale Elkarteak  
 Iturria: XDZ*

## **ZIZURKIL (2011-08-15)**

*Bertsolariak: A. Estiballes, A. Agirre, M. Lujanbio,  
J.M. Irazu, A. Egaña eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Igotz Alkorta.*

Jai Batzordeak urtero antolatzen duen jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gauean.

*A. Estiballes*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ti2o>*

Gaia: Zoritzarrez, gai hau asmatzen ez dugu lan handirik egin behar izan, erabat erreala baita. Gaur, egun honetan, abuztuaren 16a baita jada, betetzen dira 75 urte tropa frankistak Zizurkilen sartu zirela. Arkaitz, errepublikaren aldeko lanean aritu izan zara. Etxetik ikusi dituzu tropak plazan sartzen. Hankek dardara egiten dizute.

Neurria: Hamabostekoa, handiaren moldekoa, 10 puntuz

*Doinua: Izarren hautsa egun batean*

Goizean jeiki ta lasai-lasai  
hurbildu naiz belardira  
sega pikatu belarra mozten  
ibili naiz jira-bira  
ta bapatean kanpaien hotsak  
buelta eman dit bertan bihotzak  
seinalea heldu da tira.  
Korrika joan naiz begira ezinik  
berriz ere baserrira  
kortina atzetik erdi izkutuan  
nengoenean begira  
hortxe heldu da gure emaztea  
ta berak eman dit albistea:  
"Villabona erori da  
laister etorriko dira".

Nik uste baino askoz lehenago  
iritsi dira hona arte  
gure etxean danba! sartuta  
erregistroa jo ta ke.  
"¡Estense quietos! ¡Registren todo!  
¡Quemen los libros! ¡Cojan el oro!"  
emazteari "¡Quéitate!"  
Sargento napar bati esan diot  
"Inori ere ez egin kalte".  
Hori esan eta jarrai-jarraian  
eraman naute aparte  
eta hor hasi zaizkigu minak  
ta bat-batean eskuburdinak  
estu jarri dizkirate  
baina nora naramate?

Etartetik irten ta hartu dugun  
bidea ez da arrotza  
gure etartetik hileriraino  
bide ezagun ta motza.  
Hara helduta paretan kontra  
lauren artean han naute bota  
lepoan izerdia hotza.  
Nahiz ta ez dakidan helduko zaidan  
egun hontan heriotza  
fusilak karga dituzte eta  
dardarka daukat ahotsa  
paretan kontra zutik jarrita  
ta bi begiak ondo estalita  
bat-batean tiro hotsa  
ta zulatu zait bihotza.

*A. Agirre-A. Arzallus* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11fj54>

Gaia: Amaia, bada hilabete Ametsekin irteten hasi zinela. Ametsen etxera joaten zarenean, zein mutil txukuna den harrituta gelditzen zara. Gaur, ustekabea, joan zara bisita egitera, eta bere ama topatu duzu mopa hartuta. Astea hirutan garbitzera joaten zaiola esan dizu. Amets egongela aurkitu duzu.

Neurria: Zortziko handia  
*Doinua: Eguna pasa nekean eta*

A. Agirre: Amets erabat miresten nuen  
eta hau diot benetan  
a ze nolako txukundadea  
ia arlo guztietan!  
Ustekabean egin bisita  
ta ama hemen zaude bertan  
nere etxetik pasa zaitezke  
beste hiru egunetan. (bis)

A. Arzallus: Harriturikan ikusi duzu  
ama aurrera-atzera  
nik uste nuen kolpetik poztu  
behar zendula gainera.  
Bikote baten bizi orekan  
jakin behar zenuke zera:  
bikotea bezin inportantea  
dela amaginarreba. (bis)

A. Agirre: Eta gainera bera erronkan  
kontuak zeinek kalkula?  
Sofatik ere ez da mugitu  
total zertan disimula!  
Baina ez zaitez izan hain harro  
lotsagabe ta ahula  
behintzat esaidazu maindireak  
zuk aldatzen dituzula. (bis)

A. Arzallus: Ez dakit baden maindire aldatzen  
dabilen arzallustarrik  
nahiz ta lanari ez diodan nik  
sekula eman bizkarrik  
amak aldatzen baldin baditu  
ez da aldatu beharrik.  
Ez Amaia nik aldatzen ditut  
gantzontziloak bakarrik. (bis)

A. Agirre:       Eta gainera horiek ere  
                      igual atzekoz aurrera  
                      baina hobe det hori ez pentsatu  
                      eta jarraitu ertzera.  
                      Berriz begira ta berriz geldi  
                      zoaz sukalde aldera.  
                      Oain ulertzen det zeatik gabiltzan  
                      jatetxetik jatetxera. (bis)

A. Arzallus:      Ba bai guztia ulertu dezu  
                      kostata eta xuabe.  
                      Hala ta guztiz kontsejuxo bat  
                      zuri badaezpada're:  
                      ama egiteko norbere etxeko  
                      garbitasunaren jabe  
                      lau urte t'erdi pasa behar dira  
                      etxerik garbitu gabe. (bis)

A. Agirre:        Hasieran zan dena ederra  
                      guztia zan paradisu  
                      ojala zure amak noizbait'e  
                      egin balit nei abisu!  
                      Hain zinan mutil perfektua ta  
                      ezekin ez nengon izu  
                      Zizurkilako bertsuak ere  
                      amak egin al dizkizu? (bis)

A. Arzallus:      Ai Amaia! Zuk sekretu denak  
                      lehendik jakin bazenitu  
                      igual nerekin ez zeneukake  
                      maitemin ta apetitu.  
                      Zizurkilako bertso guztiak  
                      nahi badezu entenditu  
                      nik uste nuen bazenekila  
                      hoiek aitag eiten ditu. (bis)

## **DONOSTIA (2011-08-18)**

*Bertsolariak: J. Maia, B. Gaztelumendi, X.  
Silveira, J.M. Irazu.*

*Gai-emailea: Iker Iriarte.*

Eguerdian izan zen, Donostiako kaian, piratek antolaturiko La Flamenka gunean. Bertsolariek ondo eta goxo abestu arren, eguraldiak ez zuen bakerik eman, eta saioa hasi eta ordu erdira La Flamenka guneko karpara jaitsi behar izan zuten bertsolariek, bertsozaleak curiarekin ez bustitzeko.

*J. Maia-B. Gaztelumendi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tk7g>*

Gaia: Bi presoren senideak izango zarete, eta gasolindegi batean egin duzue topo. Zu, Beñat, kartzelatik bueltan zatoz, eta zu, Jon, kartzelara zoaz, bisitan.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Goizean goizik jeiki ninduzun*

J. Maia:           Aste Nagusi egun hauetan  
                      bidai bat urrutikoa  
                      bidean alto gasolineran  
                      gasolina tipikoa  
                      baina alabaren koadrila han da  
                      hain zuzen Donostikoa  
                      haien agurrez ta besarkadez  
                      bete dut depositoa.

B. Gaztelumendi: Ni beregana goizez heldu naiz  
heldu naiz eta akabo  
minutu denak beti bezela  
azkartxo dira igaro.  
Festaz betea da Donostia  
jendea gustora dago  
baina gu orain behar gaituzte  
sekula baino gehiago.

J. Maia: Behar gaituzte hori hala da  
noan esatera aupa!  
Festetan ezin kenduaz nabil  
distantziak duen marka.  
Kartzel horretan ez da porturik  
ez eta portuko karpa  
baina seguru mantentzen dula  
bere espiritu pirata.

B. Gaztelumendi: Ispiritua beti egongo  
zaigu bai beraien jiran  
ispiritua barru-barruan  
sartuta nola bizi dan.  
Ni hurbildu naiz neska-lagunai  
maitasuna eman desiran  
baina ez dakit nik eman diodan  
edo berak eman didan.

J. Maia: Ordubete bat izan daiteke  
Bulebarreko orkesta  
ordubete bat bazkalondoko  
sofaren gaineko siesta  
ordubete bat piraten karpan  
atzo egin nuen festa  
baina berekin ordubete bat  
bezelakorikan ez da.



B. Gaztelumendi: Baina kanpoan ordubetea  
aukeran nuke nahiago  
ja hiru urte ziega batean  
pasatu dira luzaro.  
Orain autoan berriro bueltan  
pentsatuz halaxe nago  
ateratzeko falta zaiela  
ordubete gutxiago.

J. Maia: Ni aurrerantza joan beharrean  
ez da izango kalteko  
zuk etxerantza hartu behar dezu  
hori're ez da hobeto.  
Bide luzeak joan zein etorri  
ta erne konduzitzeko  
bizirik heldu beharra degu  
berriz bueltan etortzeko.

B. Gaztelumendi: Zu lasai! Kontuz bueltatuko naiz  
beti egin dedan antzera  
ta zuk indartsu joan behar dezu  
anima ezazu bera  
eta berriro ohi den legean  
laister etorriko gera  
askatasunan bide luzean  
erregaia ekartzera.

*J. Maia*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/111l9s>*

Gaia: Arrantzalea izango zara, Jon. Aspaldi, gaztetan, txalupa kaira ekarri,  
eta festen aurretik portura etortzen zinen txosnak eta festa muntatzera.  
Urte askotan irudi hori ez duzu ikusi, eta aurten, festen aurretik,  
berriz ikusi dituzu gazteak txosna eta karpa muntatzen.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke*

Nostalgia pixkat izan dudala  
garbi nahi nuke aitortu  
gure portua ikusirikan  
bihurtua basamortu.  
Irudimena zapalkuntzaren  
hankapean zen lehortu  
ta orain berriz nahiz itsasoa  
arra txikiez agortu  
gure portua berriz egin da  
askatasunaren portu. (bis)

Garai haietan hartzen genuen  
txosnetarako ganora  
antolakuntza militantzia  
nahiz beti ez zen mehora.  
Berreskurapen garaian gaude  
ta haxe da horren froga.  
Nahiz ondo dagon jai eremu hau  
zabaldtu egin beharko da  
ezin gaitezke uharte izan  
itsasotikan kanpora. (bis)

Garai haietan gaztea eta  
arrantzalea nintzela  
festen bezperan ekartzen gendun  
atuna eta berdela.  
Orain portua ez det ikusten  
garai haietan bezela  
baina piratak dira esperantza  
ikusi baitet honela  
oraindik ere arrain txikiak  
haundia jan dezakeela. (bis)

## **BILBO (2011-08-28)**

*Bertsolariak: S. Lizaso, J. Maia, M. Lujanbio eta  
A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Leire Aurrekoetxea.*

Aurten ere bertso saioak izan dira egunero Santiago plazan, Santutxuko Bertso Eskolak antolatuta. Eguraldia lagun, jende dezente bildu da saioetan, eta azken saio hau ez zen salbuespena izan: laurhun bat bertsozale inguratu ziren plazara; asko, eguerdiko eguzkitatik ihesi, elizaren inguruko itzalpean babestu ziren.

*J. Maia-S. Lizaso*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tmc8>*

Gaia: Jon, atzo parrandan irten eta goizaldean bueltatu zara etxera. Atarian, zure aita, Lizaso, topatu duzu, eskaileretan eserita.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Nere senarrarekin I*

J. Maia:           Gaupasaz gau luzean  
                      egin dut nahiko jai  
                      bueltan nator jadanik  
                      ja ez naizela gai  
                      ta hau eskaileretan  
                      eserita lasai  
                      Gargantua dirudi  
                      ni irensteko zai. (bis)

- S. Lizaso: Lasai! Ez dut goserik  
nago gosalduta.  
Agian hobe nuke  
seme hau salduta  
aita harriturikan  
hola azalduta:  
dirurik gabe eta  
burua galduta. (bis)
- J. Maia: Baina ez egon nere  
itxaropenetan  
gor jarri zera baina  
nik ez dakit zertan  
nik ez dakit nere zai  
ote zauden bertan  
edo orain helduta  
parrandatik bueltan. (bis)
- S. Lizaso: Aspaldi esnatuta  
jarduna gosaltzen  
kalera irtetea  
nuen nik pentsatzen  
oinez abitu naiz ta  
nago deskantsatzen  
nola igogailuak  
ez dun funtzionatzen. (bis)
- J. Maia: Atta eta semea  
gabiltza *al tuntun*  
ta aita atakean  
hor dabil pim pam pum!  
Nik ez zaitut igoko  
zu zara jakitun  
hortarako sei seme  
egin behar zenitun. (bis)

S. Lizaso:       Semeak irensten du  
                      bajina bat amu  
                      eta ekarriakin  
                      ote nago damu?  
                      Sei behar nituela  
                      beronek esan du  
                      hobe nun bakar hau're  
                      ekarri ez banu! (bis)

J. Maia:           Eta aurrean daukat  
                      bizardun pareta  
                      pareta egiten duna  
                      kriston berriketa.  
                      Horma hau pasako det  
                      kauen la puñeta  
                      Berlinekoa ere  
                      bota zuten eta! (bis)

S. Lizaso:       Orain aitari eman  
                      horma baten fama  
                      lasai ez naiz izango  
                      zuretzako zama  
                      bainan zer datorkizun  
                      al zaude antzema?  
                      Zazpigarren pisuan  
                      zai daukazu ama. (bis)

## **ZIZURKIL (2011-09-08)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, X. Silveira, A. Arzallus,  
B. Gaztelumendi, I. Zubeldia eta A. Egaña.*

*Gai-emailea: Amaia Agirre.*

*M. Lujanbio-X. Silveira-A. Arzallus* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tnk>*

Gaia: Aurten bete dira 30 urte herriko seme Joxe Arregi torturatu eta hil zutela. Gauza jakina eta egiaztatuta dagoen kontua da tortura prozesu horretan 73 poliziak parte hartu zutela, baina kondenatuak, nolabait kondena esateagatik, bi bakarrik izan ziren. Baina kondena ere presioari prezioa jartzeko besterik ez zen izan, gerora poliziak goi mailako izatera iritsi zirelako. Horrelako albisteak entzuten dituzuenean, zer mugitzen zaizue barruan, edo zer etortzen zaizue burura?

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Beti penetan beti penetan*

A. Arzallus:       Ez dakit zenbat polizi ziren  
                     euren buruaren jabe  
                     derrigorrean kolpatu eta  
                     egin behar zioten galde.  
                     Egia esan nik entzuten dut  
                     barrurik mugitu gabe  
                     ta okerreana hori bera da  
                     anestesiatuta gaude.

- M. Lujanbio: Hogeita hamar urte luzeetan  
holakorik gehio bazen  
urterik urte joaten gera  
jakiten ta enteratzen.  
Igual barrurik mugitu gabe  
anestesiatura ezen  
historia ahaztu egiten zaigu  
baina hola ez da sendatzen.
- X. Silveira: Anestesiaren pean orduan  
Joxe zenari bertsotan  
malaostia ez dakit hilik  
dugun baina dago lotan.  
Sarri askotan egon izan naiz  
ni neronirekin bronkan  
kanpo itxurak agintzen baitu  
gure garai berriotan.
- A. Arzallus: Hogeita hamar urte pentsatu  
zein errega den esaten  
ta hildakoak hanka-sartzeak  
baino ez dira izaten  
zeren tortura sistemak berak  
onartzen du azken baten  
orain berdina egiten dute  
britainiarrek Iraken.
- M. Lujanbio: Bortxaketa ta tortura hotsa  
entzuten da edonondik  
egin lezake boterearen  
hainbat marioneta zombik.  
Nere buruak galdetzen duna  
gauden garaian egonik  
horrenbeste min duen lurretik  
sortuko den ezer onik
- X. Silveira: Galdera batzuk hoberena da  
ez badira erantzuten  
kanpokoari zer esan gure  
baitan ez badugu entzuten?  
Urrutikoak mintzen gaitu ta  
etxeakoari ez diogu eusten.  
Oraindik esan beharko dugu  
"Joxe alferrik hil zuten".

## ALKIZA (2011-09-09)

*Bertsolariak: S. Lizaso, M. Lujanbio, I. Zubeldia,  
I. Elortza, A. M. Peñagarikano eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: A. Agirre.*

Herriko jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Gauean izan zen, pilotalekuan.

*S. Lizaso*<sup>19</sup> 

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11vhes>

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Maritxu nora zoaz I*

A. Arzallus: Sebastian ez zaitez hain  
nerbioso jarri!

S. Lizaso: Nerbioso ez nengoen  
estu eta larri  
holako txalo pila  
nola ez den sarri  
eta zergatik ziran  
ezin nun igarri.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Antton eta Maria I*

---

(19) Puntuak jarri aurretik, omenaldi txiki bat egin zioten Sebastian Lizasori, 20 urtez jarraian kantatu duelako Alkizako jaialdian.



A.M. Peñagarikano: Lizaso kanta ezak  
indar haundiakin!

S. Lizaso: Hortarako behar dut nik  
bajutikan ekin  
ahotsean indarra  
badut bai nerekin  
baina zertan estali  
denak builarekin?  
Bertsoa bete behar da  
arrazoiarekin. (bis)

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz  
*Doinua: Esateko ez naiz lotsa*

M. Lujanbio: Hogeita batzuk gehiago

S. Lizaso: oso seguru ez nago  
dirudienez izana sarri  
gaur baino lehenago.  
Gaurkoa ez da akabo  
ni jarraitzeko prest nago  
baldin ahalmenak eta arnasak  
irauten badit luzaro. (bis)

I. Elortza: Gero ta gazteago zaude

S. Lizaso: horrela balitza hobe  
ta jakiteko patrikan dudan  
karnetari galde!  
Sasoirik onenak alde  
hori ez da nobedade  
baina oraindik pixka batean  
gerra emateko prest gaude. (bis)

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz  
*Doinua: Baserrian jaio nintzan / Habanera*

I. Zubeldia: Zu bezelako batentzat  
zer dira ba hogei urte!

S. Lizaso: Pasa izan bazenitu  
zuk zeuk esango zenduke!  
Hoiek ez dira pasatzen  
arnasaldi baten truke  
irauteko behar baitu  
behar hainbeste bertute.  
Hainbeste plazak sortzen du  
bajina bat buruhauste  
betetzen erreza danik  
inork ez dezala uste  
eta gainera atzetik  
gazteok'e bazatozte  
baina guk aina ematen  
bapo kostako zaizute!

### *A. Arzallus-I. Elortza*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11toh0>

Gaia: Espainiako Itzulia martxan da egunotan, eta jakin badakit zuek biok ere oso-oso txirrindularitza zaleak zarete. Batzuk badira pelotoian ibiltzen direnak, gehiegi nabarmendu gabe, beste batzuk esprintean dira onak, beste batzuk mendian, aldapa behera teknika ona dutenak ere badira, maillotak ere kolore desberdinetakoak dira. Jakin nahiko nuke bertsoan eta egunerokotasunean, zertan zareten onak, txirrindularitzarekin lotuz, nahi baduzue.

Neurria: Zortziko handia  
*Doinua: Ari naizela ari naizela I*

A. Arzallus: Igor bertsoan hasten denean  
doinu luzeak hartuta  
ze elegante doan aurrera  
saltoak eskibatuta!  
Regularra da segurua da  
puntu asko pilatuta  
ze maillot daukan antzematen da  
berdera begiratuta.<sup>20</sup>

---

(20) Igorrek kamiseta berdea zeukan soinean.

I. Elortza: Beraz elkarri gauza politak  
dizkiogu guk esango.  
Nik Ametsekin bertso bueltatan  
egin ditut mila txango  
neurri txikian abilagorik  
ez da bat inun izango  
herio baten jeitsita kurba  
denak hartzen ditu ondo.

A. Arzallus: Har ezazute habanera bat  
zortzi puntuko bezala  
kuadrada da bere formetan  
ez da ez doinu txapala  
goitikan behera forma estua  
bere bidean doala  
badirudi Igorren gorputza  
propio egina dala.

I. Elortza: Eta Ametsi begiratu ze  
berezkotasun darion!  
Nik txapelketan garaipenaren  
trazak han hartu nizkion  
goizetik hasi eta regular  
ia-ia sua zerion  
haraino ondo heldu zen baina  
esprinak huts egin zion.

A. Arzallus: Beraz zu neri begira zeunden  
neure kolpe neure esprin  
bukaerara iritsi baina  
han aurrera egin ezin.  
Ni maldetan ibiltzen naiz ondo  
hain nago argal ta erkin  
esplosibidade gutxi daukat  
nik gorputz arin honekin.

I. Elortza: Baina erlojuan kontra ona zara  
ta hortan ohi duzu ekin  
mendian berriz parekoik ez da  
gure Zubeldiarekin  
erregularra Lizaso dugu  
maillot hori hura *en fin*  
nik konformatu behar izaten dut  
konbatibidadeakin.

## MUTRIKU (2011-09-09)

*Bertsolariak: J. Maia, J. Soto, M. Amuriza, A.  
Estiballes eta A. Labaka.*

*Gai-emailea: Aitzol Astigarraga.*

Kalbaixotan urtero egiten duten bertso saioa, Mutrikun.  
Aurreko urteetan Ederrena zineman egin izan dute, baina aurten  
Miruaitz pilotalekura emana dute.

*M. Amuriza-J. Maia-J. Soto-A. Estiballes-A.  
Labaka*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tpjc>*

Gaia: Miren, beste bertsolariek euren dohain bana emango dizute zuri,  
eta, zuk, trukean, zure akats bat emango diezu.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Pello Josepe tabernan dela I-A*

J. Maia:           Nere bizitzan beti joan naiz  
                      pausorikan pauso zuzen  
                      beti tonoz bat nahiko tenplaua  
                      ez baju eta ez ozen  
                      ez dakit ezer nerbiotatik  
                      inoiz estrenatu naizen.  
                      Hartu ezazu nere patxada  
                      luzaro bizi zaitezen.

- M. Amuriza: Gure Jon Maia gaurkoan ere  
etorri da zuzen-zuzen  
itxura baten kantatu ohi du  
lasai-lasai eta ozen.  
Zure patxada eman didazu  
beraz konpondu gaitzen  
hartu itzazu nire nerbioak  
puntuala izan zaitezten.
- A. Estiballes: Sudurra eman ahal dizut baina  
da detaile bat zatarra.  
Bere hernia diskal ta guzti  
har zazu nire bizkarra  
horrela gehio ez izateko  
Pello Zabalan beharra  
bereiz ditzazun noiz eguzkia  
ta noiz eguraldi txarra.
- M. Amuriza: Zure bizkarra emon didazu  
ta dut probatzeko beta  
neurtu dizut ta ia metro bat  
badauka bueltarik buelta.  
Trukean nire lotsa zuretzat  
eskukada bat beteta  
bestela ere zuk lotsatzeko  
asko behar duzu eta.
- A. Labaka: Bertsolariak nahiz ta buruan  
nahastu hemengo ta hango  
errima aldetik juxtu zabiltza  
ez det gezurrik esango  
nik errimadun hitz sorta pila  
hala dizkizut emango.  
Zure aitari ikasi diot  
ta txarra ez da izango!

- M. Amuriza: Aitortu duzu nahikoa pobre  
nabilela errimetan  
eta agian bionak batuz  
egon gaitezke orekan.  
Zure potoak gura badozu  
neuk egingo ditut bueltan  
ta ia horrela zorte onena  
daukazun zuk txapelketan!
- J. Soto: *Uno noventa* larogei kilo  
morenoa ta naparra  
Naparroako bi txapel eta  
animaliko indarra  
*castellano bien ingles very good*  
ta hau da hau zoritxarra  
hainbeste dohai eduki eta  
bakarra eman beharra!

- M. Amuriza: Deskribapen hau lehendik ere  
nik sarritan entzun dizut  
ta umiltasun apur bat hartu  
beharko duzu horren truk  
baina hain ona bazara Julio  
hainbat gauza baduzu zuk  
nik arazorik ez daukat eta  
osorik hartuko zaitut.

Miren, atzeko lau lagunen dohainak jaso dituzu, patxada, bizkarra, errima zerrenda eta Julio oso-osorik. Zer egiteko gai izango zinateke orain.

- M. Amuriza: Badut Jon Maia badut Julio  
Ane eta Estiballes  
nahaste hori arriskutsua  
suertatu litekeenez  
denak batuta zer emango dut  
zer izango naiz ta zer ez?  
*Wazeman/keko* pertsonaia bat  
bertsolariaren ordeztu.

## **DONOSTIA (2011-09-10)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Maia, B.  
Gaztelumendi, A. Egaña, J. Soto eta I. Elortza.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Zenbait urtez Konstituzio plazan egin ondoren, Trinitate plazara itzuli da Euskal Jaietako bertso saioa. Erabat bete zen plaza, eta saio goxoa atera zen, gau giroa bezalakoxea.

*A. Egaña-J. Soto*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tqlo>*

Gaia: Orain dela sei urte, Andoni, Gorritira joan hintzen bertsotara, eta Julio bertsolari hasiberriaren etxera joan hintzen, gosaltzera. Eta Juliok, poz-pozik, bere etxea erakutsi zian, bere gelan sartu eta pareta guzietan hire argazkiak zeudean. Aurten joan haiz berriro ere, joan haiz Juliores etxera gosaltzera, sartu haiz bere gelan, eta ez zagok hire argazkirik.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Kantore berri xarmant batzuek*

A. Egaña:           Orain sei urte hau ikusteko  
                          izandu nuen aukera  
                          orain falta da nere koadroa  
                          falta da nere papera.  
                          Horrexegatik ausartuko naiz  
                          zorionak ematera:  
                          bertsolaria izateaz gain  
                          inteligentea zera. (bis)

J. Soto:           Gaztea nintzen inuxentea  
bihurria ta okerra  
zure posterrak kendu nituen  
eta bukatu zen gerra.  
Beste zeozer jarri nahi nuen  
argazki eder-ederra  
ta Corte Inglesen ez nun aurkitu  
Xebaxtianen posterra. (bis)

A. Egaña:       Poster batzutan ez ezazula  
egin horrenbeste gastu  
Julio jadanik zu nor zera ta  
bizitzarik ez narrastu!  
Zuk egindako ibilpideak  
batere akatsik ez du:  
lehenengo dena imitatu ta  
ondorenen dena ahaztu. (bis)

J. Soto:           Nik zazpi urte izango nitun  
ta amaren ondoan lasai  
ta esaten nion "Haunditu eta  
amatxo ai ai ai ai ai!  
Andoni Egaña izan nahi dut nik  
baldin banaiz hortako gai"  
ta orain bastante haundia naiz ta  
ja ez dut Egaña izan nahi. (bis)

A. Egaña:       Horrexegatik esan dizut lehen  
ez zerala hain torpia  
baina uste det ez zaitugula  
kaxkarra ta arlotia.  
Poster pila hura ez dezu izango  
zakarretara botia  
ez naiz harritzen nere posterrak  
aman gelan egotia. (bis)



J. Soto: Ta ni zurekin bertsoan eta  
gau luzeak igaroak  
amak "Zeinekin? " nik "Egañakin"  
beti arrazoi arraroak  
beti berdina nola esaten  
zioen nere ahoak  
pareta baten posterrak dauzka  
eta bestean dardoak. (bis)

A. Egaña: Ume zinela esaten zendun  
"Animo Andoni aupa!"  
ta zure amak aitortzen zidan  
zeundela zu trastornauta.  
Jada ez zera orduko obseso  
raro eta astronauta  
ama zurekin harro dago ta  
nere beharrik ez dauka. (bis)

J. Soto: Bertsolarien izar haundina  
bertsolari bat bikaina  
orain serio jarri behar dut  
beti ez dut lortzen baina  
pertsona ona bihotz oneko  
nahiz txorrotxa dun mingaina  
bihotz-bihotzez aitortzen dizut  
miresten zaitut Egaña. (bis)

## **AIZARNAZABAL (2011-09-24)**

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, J. Soto, A.  
Mendiluze eta I. Zubeldia.*

*Gai-emailea: Igor Olabide.*

Euskal Jai eguna zela-eta Adiskide Bertso Eskolak antolaturiko saioa. Elizan izan zen, gaueko hamaiketan.

*A. Mendiluze-I. Zubeldia* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tro4>*

Gaia: Gaur umeen danborrada egin da lehenbiziko aldiz San Migeletan. Zuek bi umetxoren bi aita zarete. Aitorren umeak danborrada guztian zehar ederki eraman du erritmoa; Ikerren semeak, berriz, bat bera ez du parean jo.

Neurria: Zortziko txikia

*Doimua: Orain hasi bihagu*

A. Mendiluze:

Semeek irtetzea  
zuten erabaki  
ta nola hartu kargu  
ume txiki bati?  
Barkatu baina haurrak  
zurea izaki  
markatutako martxan  
ibiltzen ez daki.

I. Zubeldia: Beren txapel ta tanbor  
ze irrigarriak!  
Plaza erdian daude  
dotore jarriak.  
Zureak jotzen ditu  
zaharraren neurriak  
eta nereak berriz  
erritmo berriak.

A. Mendiluze: Normala da erritmo  
berriak hartzea  
normala da probatu  
eta gustatzea  
normala ez dena da  
aita berdintzea  
ta besten danborrean  
jotzen aritzea.

I. Zubeldia: Tanborra hartu eta  
tinbili-tanbala  
oain hau ta hura gero  
ez da hain formala  
baina garbi utzi du  
ikusi bezala  
aitatxoren moduan  
sortzailea dala.

A. Mendiluze: Horrelakorik ezin  
desio inori  
eskutan zituela  
hark bi makil lori  
danborra hartu eta  
tori eta tori  
ia desegin zuen  
danbor gaixo hori!

- I. Zubeldia: Bere tanbor ta guzi  
bazuen nahiko lan!  
Kalera atera da  
mutila patxaran  
oso alaia eta  
argia nola dan  
aurki hartuko dute  
herriko txarangan.
- A. Mendiluze: Soinugile ona da  
gorputzez mardula  
danborran faltan ez da  
egongo sekula  
baina pentsatu horrek  
arrisku bat dula  
etxean gauza bera  
egingo dizula.
- I. Zubeldia: Begira txapelakin  
zeinen guapo dagon!  
Nahiz orain inork ere  
ez egin jaramon  
denborak pasatzeak  
egingo dio on  
Mozarti ere hori  
gertatu zitzaion.

*A.M. Peñagarikano* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tsqg>

Gaia: Jende askok jakin ez arren, Anjel Marik badu halako harreman berezi bat, badu halako *feeling* bat *Habanera* doinuarekin. Esplika ezazu nondik datorren *feeling* hori, noski, *Habanera* doinuan.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz  
*Doinua: Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Habanera kantatzen det  
Xabier Leteren gisan  
zenbat txalo jaso dedan  
nik doinu honen gerizan!  
Eta nolatan sortu zan  
hemen behar al det esan?  
Bueno ba esan behar det  
entzuleak jakin dezan:  
halako momentu onik  
nere munduko bizitzan!  
Frontoi batean izan zan  
ta ez zen izan elizan  
herria gogoratzen det  
eta hain zuzen Alkizan  
neskatxa polit batekin  
maitemindu egin nintzan.

Habaneraren doinuan  
nik zuen belarrik goza  
melankolia omen da  
oso doinu apraposa  
ba doinu horrekin sarri  
urratu izan det abotsa  
baina behar zan unean  
nik baztertu nuen lotsa.  
Oraindik nik oroitzen dut  
hango momentu bakoitza  
ordun mutil gazte nintzan  
aldamenean bildotsa  
haren begiak ikusi  
ta sentitu nuen poza  
haretzek erdibitu zun  
Anjel Mariren bihotza.

Urteak igaro arren  
berriro oroitzera nua  
sentimentuz gozatzea  
hori da egitasmua  
habanerak uxatzen du  
nere barrengo mamua  
doinu hau aukeratzeaz  
ez det sentitzen damua  
hain degu doinu sarkorra  
hau ez da doinu ñañua  
hau ez da inoren gezur  
edota desengainua  
habanerak uxatzen dit  
begietako lainua  
nere maitea zu zera  
o *Habanera* doinua!



*Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Finala. Iruñea.  
Argazkilaria: Alberto Elozegi  
Iturria: XDZ*

## **IRURA (2011-09-25)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Agirre, A. Arzallus  
eta S. Lizaso.*

*Gai-emailea: Aitor Mendiluze.*

Giro bikaina zegoen Irurako plazan igande arratsaldean; eguraldi ederra eta plaza betea. Bertso saioaren aurretik Irura eta Anoetaren arteko triatloi-apustua jokatu zen, eta hura ikusten zeuden gehienak geratu ziren bertsoez gozatzen, hirurehun bat lagun guztira. Bertsolariei emandako gaiak herritarrek jarritakoak ziren. Saioaren aurreko asteetan, hainbat postontzi izan zituzten jarrita herriko tabernetan, jendeak bertso saiorako gaiak proposa zitzan, eta haietan jasotako gaiak baliatu zituen Aitor Mendiluzek.

*A. Arzallus-S. Lizaso*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ttss>*

Gaia: Sebastianek urte asko daramatza herriz herri, plazaz plaza, eta ibilbide horri begira biografia bat argitaratzea erabaki du, bere biografia. Ametsi eman zion idazteko enkargua, eta gaur da azken zuzenketak egiteko eguna, inprimategira bidali aurretik. Ez dakit ados egongo diren.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Espainian behera*

- A. Arzallus:        Haseratik hasteko  
                              biak esperantzan  
                              Azpeitin han hasi zan  
                              pausoan ta dantzan  
                              Landetako baserri  
                              zahar baten trazan  
                              eta taberna baten  
                              ez eskola ez plazan  
                              zure bertso eskola  
                              huraxe izan zan. (bis)
- S. Lizaso:            Ez zan baserria ta  
                              molde kalekoak  
                              aitarene lagunak'e  
                              ziren balekoak.  
                              Bertso asko entzuna  
                              han botatakoak  
                              grazia egiten ziren  
                              askon hitz jokoak  
                              eta gogoan ditut  
                              ikasitakoak. (bis)
- A. Arzallus:        Beraz lehen datua  
                              izan da zuzena  
                              hau titulotxo bat da  
                              hona bigarrena:  
                              azpeitiarra da herritik  
                              irteten ez dena  
                              azpeitiarrak Azpeitin  
                              egiten du dena  
                              baina hau da azpeitiarrik  
                              unibertsalena. (bis)
- S. Lizaso:            Hala balitz ez nuke  
                              neregan akatsik  
                              hori jartzeko ez nuen  
                              Amets esperantzik  
                              ta ez zaidazu sortu  
                              horrelako saltsik!  
                              Herri berekoa naiz  
                              badut haien antzik  
                              baina ez naiz azpeitiarra  
                              landetarra baizik. (bis)



A. Arzallus: Nahiz haseran azpeitiar bezala aurkeztu zuzendu beharko det ta bidea erreztu. Erantzun didazunez hori horren prestu galdera bat egin nahi dizut dudan, estu: aizu ordun Azpeitik txapelikan ez du? (bis)

S. Lizaso: Azpeitin asko dira edozertako gai eta ez dadukanik ez nuke esan nahi baina erreparatuz oain bertsolaritzai nahiz eta gertutikan hartzen dion usai Azpeitik ez daduka baina Landetak bai. (bis)

A. Arzallus: Datu biografikotan sartuz alajaina bere estatu zibilak horrek badu maina gizon ezkondua da bihotzan ordaina papeletan jartzen du izen bat apaina bere bikotea dala Andoni Egaña. (bis)

S. Lizaso: Horrelakoak dira daduzkagun famak ta zer siesta egin dun teknikan hor danak!<sup>21</sup> Berezi Andonikin nere harremanak eta zer balio du papelan esanak? Loturak balio du bihotzak dauzkanak. (bis)

---

(21) Teknikariak mikrofonoa berandu zabaldu zuen, eta Lizasoren lehenengo puntua ez zen ondo entzun.

- A. Arzallus: Ta bertsolari gisa  
ene ze almazen!  
Boteprontoan badu  
mila erantzun sen!  
Gainera fuertea da  
birikaz kantatzen  
erantzuna segundun  
zaio bururatzen  
ta mikro gabe ere  
ez da apuratzen. (bis)
- S. Lizaso: Mikrorik gabe ez nun  
hainbeste botako  
bestela akatsikan  
ez nuen faltako.  
Ahots sendoa daukat  
ukatu zertako?  
Lehen ere pasa izan zait  
hamaika holako  
ta prestatuta nago  
larrialditako. (bis)
- A. Arzallus: Eta azken urteetan  
Xebaxtian akabo  
ze bizitza txuxena  
ez puru ez trago!  
Mendira joaten da  
ni baino gehiago  
astebururo doa  
gerri eta zango  
ta Xoxote hamar metro  
bajuago dago. (bis)
- S. Lizaso: Denak ez dira egiak  
Ametsen esanak  
lehendik nereak ziran  
golfoaren famak  
edan hainbeste txanpain  
erre puru danak  
baina denborak hemen  
alduak danak.  
Lehen bizi eiten nintzan  
oain irauten lanak! (bis)

## **GASTEIZ (2011-10-06)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, M. Agirre, J. Soto, A.  
Estiballes, A. Mendiluze eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Idoia Beitia.*

Urtero antolatzen du Arabako Bertsozale Elkarteak txapeldunen saioa, eta urtero izaten da arrakastatsua. Saio polita izan zen. Bertsolariak fresko aritu ziren, eta baita bertsozaleak ere, garagardo botilak eskuetan zituztela. Jimmy Jazz aretoan izan zen, iluntzeko zortzietan.

*J. Soto-A. Estiballes* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11tuv8>

Gaia: Zu, Julio, betiko jatetxe baten jabea zara. Gaur, jatetxeko sukaldari Arkaitzek Basque Culinary Centerren ikasketak egiteko matrikularentzat dirua eskatu dizu.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Kantatzera nijo*

J. Soto:           Baino baino zer zabiltz  
                      ze eske ze near?  
                      Tortilla patatas bat  
                      egiteko bihar  
                      ahaztu behar dituzu  
                      Michelin ta izar  
                      arrautzak ta patatak  
                      baino ez dira behar. (bis)

- A.Estiballes:      Horrek ondo egiten  
                              ditugu egundaino  
                              baina aldaketa bat  
                              behar dugu joño!  
                              Arrautzak ta patatak  
                              ondo daude baino  
                              bezero denak daude  
                              arrautzetaraino. (bis)
- J. Soto:              Barrakoari esne  
                              katilu petxea  
                              ta zu sukaldaria  
                              izar bat zer zea?  
                              Bezeroek ez lukete  
                              izango letxea  
                              bazeneki egiten  
                              *arroz con lechea*. (bis)
- A.Estiballes:      Hori ere badago  
                              epel eta bero  
                              baina aldatu behar  
                              genuke honezkero  
                              *arroz a la cubana*  
                              solomoa gero  
                              hemen menu berdina  
                              dago egunero! (bis)
- J. Soto:              Hori ez da egia  
                              ez zazu flipatu!  
                              Gaur kontsomea zegoen  
                              hartu ta ahoan sartu!  
                              Nahi baduzu ikasi  
                              edo estudiatu  
                              Karlos Argiñanoren  
                              liburua hartu. (bis)

- A.Estiballes: Solomoak prijituta  
jadanik ordu bi  
*arroz a la cubana*  
ta arroza zuri!  
Jatetxeak ardura  
ote dizu zuri?  
Honek gaztetxeetako  
bazkaria dirudi! (bis)
- J. Soto: Klaro soltero zaude  
ta bihotzak taupa  
ta *arroz a la cubana*  
zaunka eta zaunka  
*cubana* ta *cubana*  
ta nausian aurka  
*arroz a la cubanak*  
lelotuta zauzka. (bis)
- A.Estiballes: Formatu egin behar da  
ahal dela jentea  
ta hortarako nahi nuke  
hara joatea.  
Zer esango dizut ba  
ai jefe maitea?  
Zeuk jaten ez dozuna  
besteek jatea. (bis)
- J. Soto: Zuk joan nahi zenuke  
izarren taldera  
oraingo diru eske  
oraingo galdera  
ta zuri erantzuna  
luzatu aldera:  
goseak nago eta  
segi sukaldera! (bis)
- A.Estiballes: Baina aldaketa bat  
beharko dugu guk  
eta Donostiara  
joatearen truk  
monarkia beti maite  
izan duzunez zuk  
Letizian autografoa  
ekarriko dizut. (bis)

*J. Soto* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u01k>

Gaia: Amaiurko gazteluko indusketa lanetan zabiltzan arkeologoa zara.  
Eskuila eta pintzelekin lurra kentzen ari zarela, ezpata baten silueta  
agertzen hasi da.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke*

Zintzelarekin ari nintzela  
lur gogorrean barrena  
ttiki ta ttaka ttaka ta ttiki  
ta lur gogorra gardena  
ezpata baten punta zorrotza  
ta beherago hurrena  
ikusi ez dut ba ezpata zuri  
ezpatarik ederrena!  
Eta azpian hala jartzen du:  
Juan de Albret Bigarrena. (bis)

Mila bostehun ta hogeita bata  
ez ni ez naiz akordatzen  
ta ez egin parra serioa da  
ta historira goazen:  
Duque de Alba ta zortzi mila  
zaldun gose paseatzen...  
Gure herria gure erreinua  
irakurtzen informatzen  
anexioa esaten dute  
baina ez konkista izan zen. (bis)

Noainen mila bostehun ta hamasei  
katolikoa gustora  
ta Amaiurren hogeita bata  
eta ezpata bat gora  
ta Hondarribi hogeita hiruan  
ta euskal animak gora.  
Euskal Herria nafar erreinu  
surik gabeko polbora  
gure herria existitu zen  
eta existituko da. (bis)

## **DURANGO (2011-10-14)**

*Bertsolaiak: M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Egaña  
eta Abarkas.*

*Gai-emailea: Josu Goikoetxea.*

Festetan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, San Agustín aretoa entzulez beterik zela.

*M. Lujanbio*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u140>*

Gaia: Durangoko Tabira auzoan zaude, eta hormigoizko mole handi bat daukazu zure gainean. Zubi bat da, eta hemendik ez gutxira, ustez, tren bat igaroko da mole horretatik. Horretan zaudela, zarata txiki bat entzun duzu; bueltan eman duzu, eta hormigoirantz bota duzu begirada. Eta han, hormigoi zati handi baten erdi-erdian, arrakala txiki bat kusi duzu.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Konfesatuta hau esateko*

Inor ba al zen ta zein ari zen  
ba tren azkar horren eske?  
Azken batean egiten bada  
ez da aterako merke  
ta herritarrak berriz kontrara  
zenbat lan ta zenbat neke!  
Dezibelioek zementua ere  
jartzen dute euren menpe  
akaso ozen oihu eginda  
dena erori liteke.

Gorantza joaten direnak nola  
beti baitiren bajatzen  
gure aroa aberatsena  
ta indartsuna izan zen.  
Gaur animoak eta gaur sosak  
ari dira galtzen galtzen.  
Arrakalatik irakurketa  
garbi egitera goazen:  
gizarte eredu oso-oso bat  
ari da arrakalatzen.

Zutabe handi hormigoizko bat  
haundiegia agian  
eta zubiak eta tunelak  
hemen Anboto erdian.  
Abiadura azkarra baina  
norako norabidian?  
Akaso oinez hasi beharko da  
neurri txikian agian  
bidetxidorrak egin behar dira  
abiadura haundian.



*Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna. Legazpi..  
Argazkia: Gipuzkoako Bertsozale Elkarte  
Iturria: XDZ*



## **LEGAZPI (2011-10-15)**

*Bertsolariak: J. Maia, A. Egaña, M. Lujanbio eta  
M. Amuriza.*

*Gai-emailea: Nekane Gonzalez.*

Entzule asko elkartu zen Latxartegi aretoan, bertsolariak entzutera. Urtarrilean herriko Eixal baserriaren aldeko bertso saiora musu-truk joan zirenez, udazkenean egin ohi duten saiora ere lau bertsolariak gonbidatzea erabaki zuten legazpiarrek.

*A. Egaña*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u26c>*

Gaia: Urte ugari dira, bizitzako ardatz ez ezik, bertsolaritza zure diru iturri nagusi ere badela. Zer-nolako zama edo poza da hori?

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke*

Nik hogeita hamar urte nituen  
hantxe jarri nuen langa  
funtzionaritzak ez nindun ase  
hori denentzat bistan da  
bertsota soilik dedikatzea  
erabaki nuen danba!  
Orduz geroztik nere bizitza  
diferentea izan da.  
Hala're poz bat badut barruan  
neuk erabaki nuan-da.

Herririk herri ibiltze hutsa  
pertonarentzat ze plazer!  
Hogei urtean bizi izan dut  
majina bat une eder!  
Ordu txikitan erretiroak  
sarri pozik nahiz egon leher.  
Baina inortxo ez da izaten  
behin betirako ta lider  
aurten zer jana seguru daukat  
baina hurrengo urtean zer?

Erabakia neuk hartu nuen  
ez izan arren Jainkua  
pentsatu nuen “Eginetikan  
aterako dut nahikua”.  
Bertsoa ez da paro ta holako  
onartzen ditun lekua  
izan liteke prekarietate  
ixkutunaren zepua  
baina gutxinez beti jaten det  
neronek egindakua.



*Bertso-jaialdia. Iruñea.*

*Argazkia: Nafarroako Bertsozale Elkartea*

*Iturria: XDZ*

## IRUÑEA (2011-10-20)

*Bertsolariak: S. Lizaso, U. Alberdi, I. Elortza, X. Silveira, J. Zelaieta eta B. Gaztelumendi.*

*Gai-emailea: Andoni Egaña.*

Bertsoaroko egitarauaren barnean antolaturiko saioa. Gurutze enparantzako institutua erabat beterik eta giro bikaina.

*I. Elortza-X. Silveira-B. Gaztelumendi* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11vih8>

Gaia: Demagun, hirurok oso izaera markatu duzuela. Igor izango da sumindua, ernegatua. Xabier gibel-handia, *pasota*, eta Beñat politikoki polita, politikoki zuzena.

Hiru egoera emango dizkizuet, eta bakoitzak erantzun nola erreakzionatuko zenuketen egoera bakoitzean.

1. egoera: Gaur lanik gabe geratu zarete.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Pello Josepe tabernan dela I-A*

I. Elortza:

*Kauen dios joan naiz fabrikara ta  
jefe guztiak zakartu!  
Borde hizkeran esan didate  
"Ez zaitetz barrura sartu"  
niri holako ofrenda egiten  
nola zaizkigu ausartu?  
Lanana bale baina soldata  
falta ezin da onartu.*

X. Silveira: Ez dakit igual merezi nuen  
ta bota naute kanpora  
non komentatu orain futbola?  
Eta nun galdu denbora?  
Nola mantendu etxea? Nola  
semeei jana ahora?  
Bueno, guztia moldatzen da-ta  
hau ere moldatuko da!

B. Gaztelumendi: Patrika hutsa edukitzeak  
eragin arren problemak  
etxeko ateak zabalik dauzka  
noizbait bertatik irtenak  
espaloietan gehiegi dira  
diru eskean daudenak  
izango dira lana nik baino  
gehiago behar dutenak!

2. egoera: Katalunian zezenketak galarazi dituzte. Hemen, Euskal Herrian, ez.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Ari naizela ari naizela I*

I. Elortza: Animaliak pertsonak baino  
nahiago nire aurrean  
ta pertsonak hil behar lirake  
zezena hil beharrean.  
Hemen ekintza zuzena egin  
behar dut nire haserrean:  
Miura bat hartu eta askatu  
nahi dut Legebiltzarrean.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Pello Josepe tabernan dela I-A*

X. Silveira: Urrundik ere estresantea  
ez al da ba zezenketa?  
Ni badaezpada nere rollora  
hola arazorik ez da.  
Azkuria dut belarrian ta  
berdintsu dut potro buelta  
eta ez dakit zein arraskatu  
erretzen ari naiz eta.

B. Gaztelumendi: Animaliak torturatzea  
benetan da kriminala  
eta Igorren ideia nahiz ta  
izan leiken mundiala  
ulertu zazu denek ez dute  
pentsatuko zuk bezala.  
Egin dezagun galdeketa bat  
ta herriak esan dezala!

3. egoera: Suminduarentzat, gibel-handiarentzat eta politikoki  
zuzenarentzat azken egoera. Yolanda Barcina andreak iaz 143.000 euro  
poltsikoratu zituen, dietak zirela eta ez zirela.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Ari naizela ari naizela I*

I. Elortza: Oihu lazgarri bat hor entzun dut  
banderako arranoan  
jende ustel hau nagusi nola  
egin zaigu Nafarroan?  
Hainbeste milioi geure kontura  
omen dauka poltsikoan  
poltsikotatik atera eta  
sartuko diot ahoan!

X. Silveira:

Ni maiz egon naiz ere horiko  
arranoari begira  
ikusiz nola desagertzen zen  
justiziaren dizdira  
*spanish* lapur hauek guztiak  
desagertuko balira!  
Ja ez ditu inorrek hilko baina  
Lasai eurak hilko dira.

B. Gaztelumendi:

Heriotzarik hemen ez diot  
opa baina ze arraio!  
Mundu hontara tamalez denok  
hiltzeko baikinena jaio  
diru hori nik izango banu  
nahiz aukeran nukeen nahio  
euskera klase batzuk hartzeko  
ondo etorriko zaio.



*Belfasten bertsotan.*

*Argazkia: Hitzetik Hortzera*

*Iturria: XDZ*

## **BILBO (2011-10-20)**

*Bertsolariak: On. Enbeita, U. Iturriaga, A.  
Sarriegi eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Josu Goikoetxea.*

Bertsoa eta teknologia berriak uztartu zituzten esperimenezko saio honetan. Laurogei lagun inguru elkartu ziren Alhondigako Bastida aretoan. Aitor Sarriegi beste leku batetik aritu zen bertsotan, webcam baten bidez. Oholtzaren atzeko pantaila handian ikusten zen Aitor. Hori izan zen lehenengo ezustekoa. Pantailan, ordea, ez zen Aitor bakarrik ageri. Bertso saioa zuzenean eskaini zuten Interneten streaming bidez, eta saioa etxetik jarraitu zutenek Twitter bidez parte hartzeko aukera izan zuten.

*On. Enbeita-U. Iturriaga-A. Sarriegi-A. Arzallus*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u38o>*

Gaia: Teknologia da gaurko gaia, teknologia eta bertsolaritza. Teknologia baliabide handiak eman dizkigu. Gaur egunean indarrean dauden tresna gehienak gailu teknologikoak dira, eta teknologiarekiko gure harremana aldatu egin da. Gaur egun, esan liteke, teknologia berak agintzen digula zer egin, nola egin. Zuei eskatuko dizuet lehenengo bertsoan kanta dezazuen teknologia zer eman dizuen, eta bigarren bertsoan, zer kendu dizuen.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak*

- A. Sarriegi: Edonoiz gera edonorekin  
gaur komunikatzeko gai  
ez da egon behar topatu edo  
ondoan egoteko zai  
nahi dugunean joan gaitezke  
nahi dugun gisan noranahi.  
Hori guztia eman dit eta  
bizibidea ere bai.
- A. Arzallus: Teknologia bai on eta txar  
bere bueltan asko baitu  
demagun norbait dago Asian  
eta mobiletik deitu  
demagun norbait ilargian da  
handik txateatzen aitu...  
Hunkitu ezin dugun mundutik  
gerturatu egin gaitu.
- On. Enbeita: Mobila ataraz denbora pasa  
garraio publikoetan  
ta beharrean Internet martxan  
jefea falta danetan  
mila argazki edo momentu  
gorde leikez mobiletan  
aspertu behintzat ez naz aspertzen  
azkenengo urteetan.
- U. Iturriaga: Ordenagailu txikitxo bat dut  
teknologia kuttuna  
ta teklatuan komando bat du  
da kontrol zeta laguna  
norbaitek hanka sartu ezker  
azkar desegiten duna  
bizitzak eman ez diguna ta  
inoiz emango ez diguna.



- A. Sarriegi: Apenas dago koberturarik  
ia ez dugun lekurik  
ez det pasatzen *Smartphonari*  
heldu gabe segundurik.  
Nere bizitza bete didate  
mila datu ta irudik  
nahi dedanean *out* egoteko  
askatasuna kendu dit.
- A. Arzallus: Hori baino gauz bitalago bat  
ia ezin dena zuzendu  
lagunartean mobilera so  
hitz bide bat nork mantendu?  
Teknologiak dena egiten du  
bai eman eta bai kendu  
ta urrutitik hurbildu ahala  
hurbiletik urrentzen du.
- On. Enbeita: Teknologiak barritu ahala  
daukaz hainbat kontu bitxi  
eta guztiak kontrolau barik  
jada ezin dugu bizi.  
Lanean edo etxean bardin  
piztu danera iritsi  
pantaila nahiko ondo ikusten dot  
baina urrunera gitxi.
- U. Iturriaga: Nik e-maila dut teknologian  
nere goia nere langa  
eta batzutan horrekin ere  
etxean ai nahiko lan da:  
“Itxoin laztana oraintxe nator  
e-mailan soinua izan da”  
makinatxo bat zopa hoztu zait  
e-mailaren bila joanda!

## TOLOSA (2011-10-22)

*Bertsolariak: J. Maia, A.M. Peñagarikano eta A. Egaña.*

*Gai-emailea: Alex Perurena.*

Tolosako Iurre elkartean urtero antolatzen duten bertso afaria. Peñagarikano eta Andoni Egaña aspaldiko bertso lagunak dituzte, eta aurten, lehenengo aldiz, Maia gonbidatu dute.

*J. Maia-A.M. Peñagarikano-A. Egaña* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u4b4>

Gaia: Denok dakizue baserritarrek badutela beren patroia: San Isidro; kamioizaleek ere badute patroia: San Kristobal; eta bertsolariek?

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Dama gazte xarmant bat*

J. Maia:                   Ia bertsolarien  
                              santua nun dagon?  
                              Ez degu ba San Pedro  
                              ez eta San Anton  
                              San Judas izan leike  
                              zergatik ez? Kopon!  
                              Sarri kobratzen degu  
                              hogeita hamar txanpon. (bis)

A.M. Peñagarikano:    Guk abuztuan sarri  
                              birjina, bestia...  
                              Gero San Bartolome  
                              nahi da ikustia  
                              azaroan San Martin  
                              odolkiz bustia...  
                              Zuk San Kristobal dezu  
                              guk kristo guztia!<sup>22</sup>(bis)

---

(22) Gai-emailea, Alex Perurena, kamioilaria da.

A. Egaña: San Martin garrantzitsu  
da bertsolaritzan  
San Isidro giltzarri  
koplari bizitzan.  
Kobratzen degun arte  
Maiak zion gisan  
neri berdin-berdin zait  
nahiz Santander izan! (bis)

J. Maia: Baina ez da Santander  
ez da Santiago  
zer santu jakiteko  
ez naiz horren mago  
esan leizke izenak  
mila ta gehiago  
baina bertsolaritan  
santurik ez dago! (bis)

A.M. Peñagarikano: Santua guk zein degun  
horrek hala dio  
zutaz nik pentsatu det  
serio-serio<sup>23</sup>:  
beti txapeldun haundi  
santua dedio!  
Bai baina badaukagu  
guk San Antonio. (bis)

A. Egaña: Santu ta santak daude  
sekulako pila  
Anjel jartzea ez da  
gauza borobila  
baina San Juanen alde  
mila eta mila  
baina hurrengo urtean  
buelatu dadila! (bis)

---

(23) Egañari begira kantatu zuen.

- J. Maia: Ba nik uler nezake  
Peñak dioena  
San Antonio hautatu  
diguzu izena  
kontutan hartu ezkerro  
txapelketarena  
lehen San Antonio zen  
orain Madalena. (bis)
- A.M. Peñagarikano: Orain hau da burura  
etorritakua:  
hamaika aldiz kopla bat  
kantatutakua  
hau baldin bada santu  
santu Zarauzkua  
hamaika neska gazte  
uztartutakua! (bis)
- A. Egaña: Antonio, Madalena  
biak erdi mito  
santu bat ipintzea  
zeinen plan ijito!  
Santak ez dute egin  
hainbeste merito  
erdibide batean  
Sandra eta kito! (bis)
- J. Maia: Santa esan nahi zendun  
ez al da arraro?  
Hemen aritu gera  
bilaka pikaro  
hau ez da aklatatuko  
ta seguru nago  
ez degu bat adosten  
beraz *sanseakabo!* (bis)

## **IRUÑEA (2011-10-27)**

*Bertsolariak: M. Amuriza, A. Labaka, O. Barroso, A. Karrika, J. Etxeberria eta A. Solozabal.*

*Gai-emailea: Sustrai Colina.*

Bertsoaroko egitarauaren barnean antolaturiko jaialdia.  
Gurutze enparantzako institutuan izan zen, iluntzeko zortzietan.

*A. Labaka-A. Solozabal*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u5dg>*

Gaia: Zuek atzo arte ez zenuten elkar ezagutzen, baina gaur pisu bera konpartitzen duzuen bi ikaskide zarete. Elkar ezagutzeko asmoz, bururatu zaizue erosketak elkarrekin egitea. Abiatu zarete, sartu zarete supermerkatura, eta ez dakit zer gertatzen den, Anderrek karrera sartzen duen guztia Anek kendu egiten du. Anderrek sartu, Anek kendu, Anderrek sartu, Anek kendu, Anderrek sartu, Anek kendu...

Neurria: Hamarreko txikia  
*Doinua: Espainian behera*

A. Solozabal:     Dato kalean pisu  
                         bat eder askoa  
                         eta pisukidea  
                         ez dut gustokoa.  
                         Erosketak egiten  
                         eta a ze jokoa!  
                         Ane da pisukide  
                         ganorabakoa  
                         dena erosi nahi du  
                         Gipuzkoakoa. (bis)

- A. Labaka: Gipuzkoa altxatu  
nahiean dabiltza  
baina erosketan ez  
ematen det hitza.  
Erosi ez ditu ba  
hamabost saltxitxa  
bost bat zerbeza lata  
eta hiru pizza!  
Nola ulertu dezu  
ikasle bizitza? (bis)
- A. Solozabal: Holakoak ere jan  
behar dira tarteka  
oso osasuntsua  
baita nire dieta.  
Kantzontziloer ere  
ematen diet buelta.  
Dirua gastatzen dut  
emanik nik buelta  
ostegunetan dena  
gastatzen dut eta. (bis)
- A. Labaka: Ta zikintzen dituzu  
sukalde bazterrak  
ondoan zaitut eta  
akabo plazerrak!  
Bateko mozkorrak ta  
besteko puzkerrak  
ni ez naiz gizenduko  
ziur zuri eskerrak  
ekarri beharko ditut  
amaren taperrak! (bis)

A. Solozabal:     Gasteizen ba omen dago  
                         hainbeste gazte han  
                         juerga eta parranda  
                         ugari eskean  
                         ta hau lige kontutan  
                         ni ezinbestean  
                         atzo ibili zinen  
                         hortxe jo ta kean  
                         gau osoa pasa du  
                         urruma batean! (bis)

A. Labaka:        Ta gaur alkohol guztia  
                         daukat botatzear  
                         gaur ez dedalako nik  
                         atzo aina indar.  
                         Zure kantzontziloak  
                         pasilloan zehar  
                         gero zure usaiak  
                         jartzen nau lehertzeaz  
                         eskerrak ez den gela  
                         konpartitu behar! (bis)

A. Solozabal:     Feromonak askatzen  
                         direnez seguru  
                         zertarako garbitu  
                         gorputz eta buru?  
                         Ikasle bizitza hortan  
                         daudenez bi mundu  
                         goseak nago eta  
                         ene ze apuru!  
                         Makarroi eder batzuk  
                         egingo al ditugu? (bis)

- A. Labaka: Makarroiez beteko  
nizuke platera  
behintzat ez da izango  
gaur zure kaltera.  
Hogei bat porro errez  
goizetik gauera  
utzitako usaia  
normala ote da?  
Ander gutxin-gutxinez  
balkoira atera! (bis)
- A. Solozabal: Ene lata ederra  
didazu gaur eman!  
Igual hobe egongo  
nintzake kartzelan  
behintzat horrelakoak  
ez ditut soberan  
baina segi behar bada  
nik dizut antzeman  
kanpin gasa jarriko  
dut gaur nire gelan. (bis)
- A. Labaka: Buruan behintzat gasik  
ez zaizu faltako!  
Gerrarako eginaz  
hainbeste asalto  
baina zure ideia  
uztazu biharko.  
Zergatik zauden hemen  
azaldu beharko?  
Amak bere etxetik  
bota zintulako. (bis)

## *A. Labaka*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u6fs>*

Gaia: Goizean, egunkaria irakurtzen ari nintzela, estatistika batek zur eta lur utzi nau: Espainiar Estatuan, hamar gizonetik lauk onartzen dute noizbait sexu harremanak izateko ordaindu egin dutela.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz  
Doinua: *ETAren su-etenetik*



Kontu serioa degu  
ta ezin garrantzia ken.  
Ea nik erantzuteko  
nahiko balore daukaten!  
Espainiar Estatuan  
zer ari gera jasaten?  
Pertsona batzun bizia  
ez da errexat izaten.  
Sustraiek irakurri du  
hala egunkari baten  
parre egin negar egin  
zer ari gera esaten?  
Baina neri behintzat ez dit  
parregurerik ematen! (bis)

Ondo geratzeko soilik  
ez det bota nahi bertsorik  
eta ez zuei saltzeko  
nik mugitzea ahorik.  
Ordaindu egin dutela  
eta ez batek edo bik  
hurbilean ez nuke nahi  
nik horrelako kasorik.  
Emakumeen bizitzak  
maiz ez dauka parekorik  
duintasuna eskatzen  
det beraientzat osorik  
neretzat gauz batzuk behintzat  
ez daukate preziorik. (bis)

Zapaldutako ugari  
dauzkagu aldamenean  
eta gaur kantatu nahiko  
nuke haien izenean  
emakumea zapaldu  
egiten da azkenean  
gizonak zerbaiten eske  
ordaintzen joan direnean.  
Baina gu aurrera goaz  
hala da azken finean  
zerbait esan nahi det eta  
ezin utzi barrenean:  
doble gozatuko dala  
ordaindu gabe denean. (bis)

## ERMUA (2011-11-04)

*Bertsolariak: S. Lizaso, M. Lujanbio, B.  
Ugartetxea, M. Amuriza, U. Iturriaga eta A.  
Arzallus.*

*Gai-emailea: Andoni Egaña.*

Euskal Birusa elkarteak urtero antolatzen duen jaialdia da, eta orain arteko ekitaldirik jendetsuena izan zen, laurhun entzule inguru elkartu baitziren.

*B. Ugartetxea-M. Amuriza* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u7i8>*

Gaia: Lagunak zarete. Miren, bada zerbait aspaldian esan nahi zeniona  
Beñati, eta gaur hemen, aukera topatu duzu, eta esatea erabaki duzu.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Antton eta Maria I*

M. Amuriza:

Hainbeste saio doguz  
batera igaro  
batzuetan erdizka  
besteetan oparo  
danetan amaitzen dot  
gustora zeharo  
gaur oholtza hontan Beñat  
zure ondoan nago  
zu Egañagaz baino  
nerbiosoago. (bis)

- B. Ugartetxea: Urtean hamar saio  
guk eginak edo  
asko izan daitezke  
baina ez da astero.  
Edan duen zuritoak  
hau jarri du bero  
eta horrelakorik  
ez nuen espero  
lasai lasaituko dut  
saioa ta gero. (bis)
- M. Amuriza: Niri begiratuta  
barre egiten duzu  
Lazkao Txiki irteten  
zaizu zuri usu.  
Guretzako hori da  
Beñat sarri luxu  
baina ez dozu ulertu  
eta entzuidazu  
ni zuritoak barik  
zuk berotzen nauzu. (bis)
- B. Ugartetxea: Holako panorama  
ez dut nik askotan  
a ze nolako berbak  
dituen ahotan!  
Ligatzen saiatu da  
edota bertsotan  
non ote nagoen be  
ni nago kolokan  
tabladuan nago edo  
ametsetan lotan? (bis)

- M. Amuriza: Itxartzeko ordua  
da dagoeneko  
plaza batean zara  
benetan konpleto  
Lazkao Txiki ta Beñat  
batekoz besteko  
ilusionauta nago  
zugaz ligatzeko  
tiro bakarrarekin  
txori bi jotzeko. (bis)
- B. Ugartetxea: Badakizu ezkontdua  
da Beñat tarteko  
bi alaba ere baditut  
andrearen antzeko.  
Nahiz ta sarri zail izan  
neureak sinisteko  
baina zure esana ez dut  
nik aintzat hartzeko  
gogoik ez dut tiroaz  
txori bi galtzeko. (bis)
- M. Amuriza: Ondo azalduko dot  
gitxi gorabehera  
zure txoriarekin  
nik ez dot nahi gera  
aprobetxau behar da  
uneko aukera  
dagoenean dago  
besteak kaltera  
ta nahi dozuna egin  
bihartik aurrera. (bis)
- B. Ugartetxea: Joño! Ba azkenean  
hontan naiz erori  
Mirenek badauzkala  
hainbeste teori  
ta gazte izan arren  
milaka histori.  
Orain ulertu dizut  
esaera hori:  
hobe txori batekin  
jotea tiro bi. (bis)

## **SARA (2011-11-05)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Martin  
eta E. Zabaleta.*

*Gai-emailea: Mattin Oronoz.*

*A. Arzallus-E. Zabaleta*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u8kk>*

Gaia: Amets Larrun eta Eneritz Atxuria.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Espainian behera*

A. Arzallus:      Nunbait gure artean  
                         muga lehenetsi  
                         ta guk elgartu gabe  
                         ezin dugu etsi  
                         baina beste gauza bat  
                         bada hemen bitxi:  
                         zuk dena polit eta  
                         gauz moderno gutxi  
                         zuri ferrokarrilik  
                         ez zaizu iritsi. (bis)

E. Zabaleta:      Ni're mendia izan  
                         ta beti umila  
                         aski baitut hemengo  
                         paisaia hurbila.  
                         Zuk nahiago dituzu  
                         ai turista pila!  
                         Nigana ez da heldu  
                         ez ferrokarrila  
                         ez naizelako joan  
                         inoiz bere bila. (bis)

- A. Arzallus: Ta joaiten bazira  
ibil zaite kontuz  
gero frantsesak heldu  
bailitezke kantuz  
baina hasten bagira  
elgar konparatuz  
nik beatzirehun metro  
ene kasko altuz  
kasik mila ere bai  
antena kontatuz! (bis)
- E. Zabaleta: Beraz eskerrak eman  
behar antenari  
eta hori ezarri  
zuen frantsesari.  
Zure buruaz pozik  
zabiltza kantari.  
Zenbat metro ditut nik?  
Ez dakit, ugari  
ez baitiot so iten  
nire xilkoari. (bis)
- A. Arzallus: Hala nola egin duen  
ondotik aharrausi!  
Nahiz hemendik horrera  
ein nezakeen jauzi  
nik ez dut erranen nor  
den bitan nagusi  
baina kantuz ai zinen  
xilko eta guzi  
nik so egiten dut ta  
ezin dut ikusi. (bis)

- E. Zabaleta:      Ari gara solasan  
                             biak nahi bezela  
                             gure artean dugu  
                             pikea itzela.  
                             Hala ere uste dut  
                             jarri digutela  
                             muga soberakin bat  
                             ezin zen bestela  
                             argi baita guk biak  
                             nafarrak girela. (bis)
- A. Arzallus:        Bai ta egin gaitezen  
                             gu elkarren lagun  
                             bide bateratu bat  
                             jorratu dezagun  
                             muga denak behe laino  
                             muga denak lurren  
                             eta behingoz Atxuri  
                             Atxuri ta Lurren  
                             ezin da egon hain hurbil  
                             hain hurbil ta urrun. (bis)
- E. Zabaleta:        Ahantzirik xilkoa  
                             turista ta trena  
                             hitz batez erran duzu  
                             Lurren maite dena.  
                             Horixe da guk egin  
                             behar genukeena  
                             herri bat izan gaiten  
                             gu biak aurrena  
                             ta gero ikusiko  
                             nor den hoberena. (bis)

## OROZKO (2011-11-18)

### *Bertsolariak: J. Maia eta U. Iturriaga*

Orozkoko Iza jatetxean. Berbaz Kultura Elkartek antolatu zuen bertso afaria, eta afaloste ederra pasa zuten Jon Maiarekin eta Unai Iturriagarekin. Elkar gogotik zirikatu zuten, eta egoera ekonomikoaz ere aritu ziren.

### *J. Maia-U. Iturriaga*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11u9n0>

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Espainian behera*

J. Maia:                Rajoy beraz ez dugu  
                             gero berriketa  
                             horrek gaindituko du  
                             bere azterketa.  
                             Olentzero dirudi  
                             zelan ez komenta!  
                             Baina ez dakar ikatzik  
                             zakuan gordeta  
                             meatzak'e krisian  
                             omen daude eta. (bis)

U. Iturriaga:        Indarrik ba ete deuko  
                             zakuai eusteko?  
                             Ez nago prest ni behintzat  
                             hari sinesteko.  
                             Gogoia igual baina  
                             gairik ez ez deuko  
                             etorten bada eta  
                             nahiz zakua lepo  
                             gu hemen ez gagoz prest  
                             hari erosteko. (bis)



J. Maia:           Haurrek ezin ulertu  
gure mundu dena  
ulertezina dela  
hori da problema.  
Guk badegu bildur bat  
bildur haundiena  
guretzako mamuak  
Euribor du izena  
lo egin nahi duzunean  
beti agertzen dena. (bis)

U. Iturriaga:       Ez da Sacamantecas  
Euribor akabo!  
Baina ez jaku egiten  
ja horren arraro.  
Lo hartzeaz zauzela  
agertzen da *klaro*  
baina hori ez da txarra  
askoz be txarrago  
itxartzen zarenean  
be beti hor dago. (bis)

J. Maia:           Segi gauzak azaltzen  
umeei antzera  
hainbeste beldur dabiltz  
guztiak batera  
bada etxe itsusi bat  
normala ote da?  
INEM<sup>24</sup> izena dauka  
izuaren bera  
behin sartzen zarenean  
ja ezin da atera. (bis)

U. Iturriaga:       Ta alperrik hasiko  
zara zu korrika  
INEMen beti dagoz  
ateak itxita  
UGTko<sup>25</sup> tipoa  
dabil garrasika  
zuk alperrik oihuka  
“Eskatu dot zita”  
kanpoan da Europa  
barruan Afrika. (bis)

---

(24) Espainiako lan institutua (Frantziako ANPEaren baliokidea).

(25) Espainiako langile sindikatua.

## **BILBO (2011-11-19)**

*Bertsolariak: I. Elortza, S. Colina, M. Lujanbio, J. Martin, A. Estiballes eta A. Egaña.*

*Gai-emailea: Unai Elizasu.*

Bilboko Campos Eliseos antzoki dotorean antolaturiko jaialdia.

*J. Martin* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uapc>

Gaia: Hiru urte zituela etorri zen zuen etxera, Saharatik. Gaixotasun larri bat zuen, eta hemen zeukan sendatu beharra. Hemen eman zituen hainbat urte, baina izan zenuten aukera Saharara joan eta haren familia biologikoa bisitatzeko. Joan zineten, etorri zineten; gero, bera joan zen familia biologikoa bisitatzera berriz ere, eta ez da itzuli.

Neurria: Hamabiko handia

*Doinua: Abokatuak deitu berri dit*

Kasualitatez ia nahi gabe  
hartu genuen etxean  
aukera heldu ta hari heldu  
egiten zaion antzean.  
Gero kariñoz tratatu gendun  
janari ona eltzean  
eta zauriak ere sendatu  
zaizkio erietxean.  
Mutil alaia izan da beti  
hau bere zorigaitzean  
basamortu bat kabitzen zaio  
begirada bakoitzean. (bis)

Basamortuko begiradetan  
hor bi guraso egarri  
“zergatik ez da berriz bueltatu?”  
galdezka gaude elkarri.  
Gogoratzten dut txikia zela  
hain hauskor ta hain oin gorri  
gure aurrean ipini eta  
egiten zuela korri.  
Orain hemendik bastante urrun  
joanagatik zerorri  
semetxo batek jakin behar du  
noiz joan ta noiz etorri. (bis)

Zilbor-hesterik ez dago berez  
beraz ez dago zer moztu  
baina zerbaitek lotu gintuen  
urte horietan estu.  
Orri txuri bat eman genion  
berak kolorez narrastu  
basamortuko duna altuak  
ohi zituen hark marraztu.  
Heldua da ta bere bizitza  
egin beste ezer ez du.  
Egin ezazu zure bidea  
baina gurekin ez ahaztu. (bis)

## MARKINA-XEMEIN (2011-12-08)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Egaña, M. Lujanbio, S. Colina, M. Amuriza eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Josu Goikoetxea.*

Kontsesio egunarekin urtero izaten da jaialdia Markinan. Pilotalekua erabat beterik zela, saio polita atera zen.

*M. Lujanbio-M. Amuriza*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ubro>*

Gaia: Berrogeita hamabost urte inguruko andre bi, lagun minak, koadrila berekoak, eta gimnasia egitea erabaki duzue elkarrekin. Herriko gimnasioan apuntatu zarete. Lehenengo eguna duzue, aldagelan zaudete, etabiluztu egin zarete. Maialen, zure bularrak, sujetadorearen laguntza barik, brausta jausi dira. Ostera, Mirenen bularrek esan liteke Newtonen legearen aurkako borroka irabazi dutela; izan ere, hodeiertzera begira daude. Maialen, harrituta zaude.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Nere senarrarekin I*

M. Lujanbio:     Banekin baneuzkala  
                     konplejutxo batzuk  
                     baino gaurtik aurrera  
                     bi gehiago ditut:  
                     zure titiak horren  
                     tente ta horren zut  
                     lo ere pino eginez  
                     hartuko dezu zuk! (bis)

M. Amuriza: Biluzik ikusteak  
egin deutsu kalte  
Maialen orain lotsa  
niri sartu jate  
titi pareari be  
eguna amaitu arte  
gerriari bezala  
erain behar jake. (bis)

M. Lujanbio: Dena ez da ejertzizioa  
tira tira tira!  
Begiak ezin ditut  
ia erretira  
orbanik ba ote dezun  
hor nabil begira  
orratz bat sartu ezker  
lehertu egingo dira. (bis)

M. Amuriza: Ez nago operauta  
Obregon bezela  
gogoratzen al dozu  
ama izan ginela?  
Zu titia ematen  
maitasun epela  
banekien biberoia  
nik hobe zela. (bis)

M. Lujanbio: A! Orduan klabea  
sekretua hor da  
nereak jausi zaizkit  
zilborran ondora  
gimnasia hoixe nahi nun  
pektoralak gora  
zuk hobe dezu joan  
relajaziora! (bis)

M. Amuriza:       Hasieran bai baina  
                          lotsaik ez duzu zuk  
                          berroita hamar urteetan  
                          edertasunan truk  
                          edozer gauza egin  
                          behar dogunez guk  
                          nahi badozu apur bat  
                          lagunduko dizut. (bis)

M. Lujanbio:       Aizu aldageletan  
                          hau da hau kantea!  
                          Tilin-talan dabilzkit  
                          bestea batea  
                          baino bai talentua  
                          ta bai talantea  
                          ez esan ez naizenik  
                          interesantea! (bis)

M. Amuriza:       Nik ere zuk bezala  
                          egon nahiko nuke  
                          zeure buruaz harro  
                          horrenbeste urte.  
                          Titiak eta tripa  
                          Maialen ai zeuk be  
                          kuleroek bi gauzak  
                          eusten dizkizute! (bis)

## **ZUMARRAGA (2011-12-10)**

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Sarriegi, A. Egaña  
eta A. Arzallus.*

*Gai-emailea: Gorka Ojanguren.*

Luzio Gabiriaren omenez urtero egiten duten bertso jaialdia.

*M. Lujanbio-A. Sarriegi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ucu4>*

Gaia: Aitor ekonomia izango zara, eta Maialen politika. Ez dakigu beti  
hala izan den, baina azken bolada honetan badirudi ekonomiak  
politikak baino gehiago agintzen duela.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak*

M. Lujanbio:      Garai batean bereizten ziren  
gabeko ta boteredun  
klase borroken ideologiak  
ere bazun aski zentzun  
ezker-eskuinak bereizten ziren  
bat argi bestea ilun.  
Buru gabeko patrikadunek  
agintzen dute gaur egun.

- A. Sarriegi:       Ekonomiak ta politikak  
gaur egun zenbat pekatu!  
Bateko lege besteko tratu  
dibidendo ta merkatu.  
Gaur arte're nik agintzen nuen  
hemen ezer ez da aldatu  
diferentzia da orain arte  
ez direla konturatu.
- M. Lujanbio:       Baina ni zeinek ondu behar nau  
eta ni zeinek babestu?  
Ideiak eta kontraesanak  
gogoetatu, amestu  
Merkel, Sarkozy, Cameron, Rajoy  
hor dabilz larri ta estu  
nola txanpona borobila den  
eskuin-ezkerrik ez du.
- A. Sarriegi:       Egun batetik bestera hemen  
aldatu da argazkia  
jende guztiak dantzatzen baitu  
nik nahi dedan abestia  
baina zurea zail xamar dago  
sarri ustelkeriz bustia  
ta ustel usaiez zikintzen dezu  
ikutzen dezun guztia.
- M. Lujanbio:       Baina ideia puru ta garbiz  
pasa ditut mila urte  
zenbat debate zenbat iritzi  
ta gogoeta jardute!  
Orain bankoak dira nagusi  
Madrilen'e bai nik uste  
eta PPko gabiota ere  
teledirigitzen dute.



A. Sarriegi:        Berdin dio zein ipintzen duten  
                         lehen zegoena kenduta  
                         berdintsu dio lehen zegoena  
                         lehen bezela mantenduta  
                         orain arteko historiak hala  
                         argi adierazten du ta  
                         beti elkarri mokoka baina  
                         beti eskutik helduta.

### *A. Egaña*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ue0g>

Gaia: Badakigu oraindik gazte zaudela eta gaztea zarela, baina galdera  
bat egingo dizugu: nola irudikatzen duzu zure zahartzaroa?


Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke*

Berrogeita hamar urte soinean  
oraindik gazteak gara  
entenditu det ume koxkorra  
ere ez naizela jada.  
Herririk herri hortxe nabil ni  
tabernatik tabernara  
horko kafea hango whiskia  
eta Ducados ilara  
hola bizita zahartzaro on bat  
irudikatzen zaila da.

Bizi osoan naiz bizioso  
badaukat nahiko desgrazi!  
Beharrianik ez daukat baina  
baditut mila kutizi  
bizimodua zukutu nahi det  
ta egunero ikasi  
bizimodu hau izanagatik  
iraupenantzat lubizi  
nik egin nahi dut bestea ahaztu  
ta une bakoitza bizi.

Baina pentsatu gauza logiko  
normalak ez dira denak  
ta igual asko harri dezake  
Andonin iraupenak  
larogeti urte hartu ditzaket  
akabo gure eskemak!  
Sutondo baten lau bilobakin  
halaxe dio eszenak  
kontu pila bat kontatuko det  
eta gezurrak gehienak.



*Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Orio.  
Argazkilaria: Galder Izagirre  
Iturria: XDZ*

## **DONOSTIA (2011-12-18)**

### **Gipuzkoako txapeldunaren agurra**

*A. Sarriegi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uf2s>*

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

*Doinua: Larogeita hamar urte*

Beasaindik Ordizira  
Ordizitik Beasaina  
Ataundik ere heltzen zen  
autobuskada bikaina.  
Barrena zaharrak zeukan  
historiaren usaina  
ta zu Mikel Mendizabal  
artaldearen artzaina.  
Urte asko pasa dira  
sasoi hartatik oraina  
Goierrik eta bertsoak  
asko zor dizute baina  
inork zor al dizu zure  
ikasle ginenok aina?  
Besterik ez daukat eta  
har zazu nere ordaina. (bis)

## **GALDAKAO (2011-12-23)**

*Bertsolariak: B. Ugartetxea, J. Uria, A. Egaña, U.  
Iturriaga, J. Maia eta J. Soto.*

*Gai-emailea: Iratxe Ibarra.*

Urtearen hondarrean aspaldidanik antolatzen dute bertso  
jaialdia Galdakaon.

*U. Iturriaga*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ug58>*

Gaia: Lehen zure moduko asko ikusten ziren, baina gero eta gutxiago  
gelditzen zarete. Zu zara herriko plazan, han bakar-bakarrik tente  
dagoen telefono kabina zaharra. Orain dela berrogei urte-edo ipinia.  
Lehen jende asko ibiltzen zen; orain, gero eta gutxiago, eta gero  
eta gutxiago ikusten dira beste herrietan ere.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Mundu honetan holako gauzak*

Jarri ninduen egun horretan  
itxi egin ziren tabernak  
zinta moztera etorri ziren  
alkatea eta denak.  
Orain osterara hor plazan nago  
erdi apurtuta barrenak  
erabilpenak izango dodaz  
hirurenak zein laurenak  
gehiago dira zapatu gabaz  
txixa eitera datozenak.

Badakizue zer gertatu dan  
 nik garrantzia galtzeko  
 orain mobilak dira norberan  
 poltsikoko ta etxeke.  
 Etorkin batzuk hurbiltzen jataz  
 eta horrekin ederto  
 bestela ezin dot esan nauenik  
 ni erabiltzailez lepo  
 infidel paranoikoren batzuk  
 amanteari deitzeko.

Nik gaur egungo teknologiai  
 ez deusot desio txarrik  
 iruditzen jat badabilela  
 makinatxo bat alperrik.  
 Leku danetan ez da faltako  
 “Piripiri”rik, dardarrik  
 ta hi hemen nago bateria barik  
 egun osoan itxarrik  
 komunikatu daiten jentea  
 behar dauenean bakarrik.



*Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Zalduondo.  
 Argazkia: Arabako Bertsozale Elkarte  
 Iturria: XDZ*

## **ZARAUTZ (2011-12-23)**

*Bertsolariak: O. Aizpurua, A. Arzallus, A. Barandiaran, O. Bartra, B. Gaztelumendi, Mañukorta, A. Martin, I. Mendiguren, M. Murua eta O. Estanga.*

*Gai-emaileak: Xabier Aizpurua eta Imanol Epelde.*

Beñat Gaztelumendik irabazi zuen Putzuzulo gaztetxeak antolatzen duen koplak txapelketaren bosgarren ekitaldia. Buruz burukoan, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta biak aritu ziren. Erabat bete zen gaztetxea, denera bostehun lagun inguru elkartu ziren, eta lau ordu pasatxo iraun zuen ekitaldiak.

### *Mañukorta-B. Gaztelumendi* 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uh7k>

Gaia: Bikiak zarete, eta hor zabiltzate igerian, goxo-goxo, amaren sabel barruan, oraindik jaiotzeko, eta bat-batean amaitu da lasaitasuna. Amak urak hautsi ditu, atea irekitzen hasi da.

Neurria: Lauko handia

*Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II*

|                  |                                                                                                              |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| B. Gaztelumendi: | Nere anaia hemen barruan<br>nolako nahi ta ezinak!<br>Baino zergatik gera bixkiak<br>eta horren desberdinak? |
|------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

|            |                                                                                                             |
|------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Mañukorta: | Amatxo ama “Ai! Ai!” esanez<br>hori dezu zoramena!<br>Nik burua’re haundia daukat<br>hori ein zazu aurrena. |
|------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

- B. Gaztelumendi: Zu lehendabizi ateratzea  
da onena azkenean  
horrela poz bat hartuko baitu  
ni irteten naizenean.
- Mañukorta: Beraz txandaka izan dezake  
hemen sortzeko aukera  
ni pasatutzen naizen zulotik  
errez pasatuko zera.
- B. Gaztelumendi: Bai egia da ta baietz haiek  
zu harrituta ikusi!  
Lehenengo haurra jaiotzen dana  
alkandora eta guzi!
- Mañukorta: Gauza horrela gure munduan  
hemen gertatutzen dana  
biok egin ta hazi gaitzazu  
gure amatxo laztana.
- B. Gaztelumendi: Gure amatxok igual zurekin  
egin dezake mejora  
baina tamalez ni haztea pixka  
pixka't gehio kostako da.
- Mañukorta: Hala ere honek jarri lezake  
nok jakin zenbat harmoni!  
Txiki xamarra izanda ere  
oso gogorra hago hi!
- B. Gaztelumendi: Ta horregatik esaten dizut  
zu aurretik joanda hobeto  
jada ikasten hasi behar det  
bigarrena izateko.
- Mañukorta: Gure amatxok emana digu  
hemen hainbeste etekin.  
Bera lagunduz bizi gaitezen  
mundu hontan alkarrekin.

B. Gaztelumendi:

Baina bi ume etorri gera  
biok gogor edo bigun  
ez dakit oso seguru berak  
lagundu nahiko ote digun.

Mañukorta:

Halabeharrez ama laguna  
agua bete-betian  
hirurok ondo portau gaitezen  
bizi geraden artian.

B. Gaztelumendi:

Beraz kanpora joan nahi dezu  
ume ausarta sanoa  
zuk nahi dezuna egin ezazu  
ni berriz barrura noa.



*Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Soraluze.*

*Argazkilaria: Galder Izagirre*

*Iturria: XDZ*



## **LARRABETZU (2011-12-25)**

*Bertsolariak: I. Elortza, M. Lujanbio, M. Amuriza  
eta B. Gaztelumendi.*

*Gai-emailea: Etxahun Lekue.*

Eguberri egunarekin ohi duten moduan, bertso saioa egin zuten Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean.

*I. Elortza-M. Amuriza* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uia0>*

Gaia: Lagunak zarete, eta aspaldian biok nahiko larri zabiltzate. Zu, Igor, diruz zabiltza larri, eta larritasun hori apur bat leundu guran, ohitura hartu duzu gasolindegietara zoazenean depositua bete eta ospa egiteko. Mirenek gasolindegi batean egiten du behar, eta aspaldion Igorren jokabide berdina hainbatek duenez, lanpostu barik geratu da.

Neurria: Zortziko handia

*Doinua: Kantore berri xarmant batzuek*

M. Amuriza:      Gasolindegi zikin honetan  
                         sentitzen naz dohakabe  
                         kotxe handian etorri eta  
                         ordaindu orduko alde.  
                         Lotsabako bat gehiago daukat  
                         orain hemen parez pare.  
                         Zure moduko espabilauek  
                         itxi nabe lanik gabe! (bis)

I. Elortza:        Petrolioan oinarritu zan  
                      mundua joan da zulora.  
                      Horrexegatik gasolinagaz  
                      egin behar gendun froga.  
                      Hau iraultza da ta iraultza honek  
                      bialdu zaitu parora  
                      geroago ta gehiago gara  
                      ondo etorri ekipora! (bis)

M. Amuriza:       Nire burua zure ekipoan  
                      ez dot sartuko ondino  
                      lotsabakoa izan behar dau  
                      pertsoniek horraitino!  
                      Zuen hitzetan azkenaldian  
                      ez dago krisia baino  
                      ta gero kotxez joaten zarie  
                      etxetik tabernaraino. (bis)

I. Elortza:        Lehenago eskua luzetu deutsut  
                      baina kontua ez da ondu  
                      esana deutsut gure iraultzan  
                      gura al zeunkeen atondu  
                      militanteak behar ditugu  
                      kotxe flota badeukogu  
                      petrolioaz amaitu arte  
                      hau ezingo da konpondu. (bis)

M. Amuriza:       Konponbidea aurkitu nahian  
                      kotxe flota ta enparau  
                      zure ekipoan jarri ezker  
                      zure moduko hiru-lau  
                      konponduta zeu egongo zara  
                      ta inora ez da joango hau  
                      pazientzia agortuko da  
                      petrolioa baino lehenau. (bis)

I. Elortza: Ba pentsatu leike batzun pazientzi  
hori amaitzeko moduaz  
zelan dabizen lau ondo biziz  
beste guztion diruaz.  
Nik barriro be hauxe eingo dot  
aldaketan akorduaz  
zuk pentsau eixu nogaz zagozen  
Repsolegaz ala gugaz. (bis)

M. Amuriza: Kontsaesanak eukiten dodaz  
langile moduan usu  
ta barriro be ekiporako  
deia luzatu deustazu.  
Militantzian ta manifestan  
hortxe edukiko nauzu  
nire hipoteka ta gasolina  
zeuk ordaintzen badituzu. (bis)

I. Elortza: Beraz hori da zure problema  
atzoko legez gaurkoan  
ez zara ohartu antza ondino  
hemen nor dozun ondoan.  
Etxeekin be gasolinana  
eukiten dogu gogoan:  
bat hartzen dogu lo eiten dogu  
ta hurrengo egunean joan. (bis)

## **GASTEIZ (2011-12-29)**

*Bertsolariak: M. Agirre, I. Apalategi, M. Amuriza,  
A. Mendiluze, S. Colina, S. Lizaso eta E.  
Samaniego.*

*Gai-emailea: Beñat Goitia.*

Ekaitz Samaniego bertsolari arabarraren aldeko bertso saioa, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. Espainiako Auzitegi Gorenak gazteari ezarritako zortzi urteko espetxe zigorra salatzeako itxialdia hasi zuten abenduaren 26an, eta beste hainbat ekimenen artean egin zuten bertso saio hau.

*S. Colina* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ujcc>*

Gaia: Sarrionandiak azken liburuan euskaldunak behe laino arteko moroak garela dio. Baina moroak, baztertuak, ez dira moro sentitzen moro sentiarazten dituzte. Ekaitz ez da errudun, errudun sentiarazi nahi dute.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi*

Sarrik horrela idatzi eta  
pentsatu zuen lehenago  
hori esateko premiarikan  
izan ez balu nahiago.  
Errua ez da pertsonon baitan  
errua legean dago  
ta behe lainoak bihurtzen gaitu  
morook errudunago  
baina beiratzten ikas liteke  
behe lainotik haratago. (bis)

Moroak beti bere gainean  
du Damoklesen ezpata  
beti pentsatu behar izaten du  
noiz aldegin noiz eskapa  
hortxe dijoa itzal bat legez  
tipi-ttapa ttipi-ttapa  
arrastoa ta bidea eginez  
pixkana-pixkanaka  
behe lainoa jasotakoan  
argia irteten da-ta. (bis)

Herri honetan itzalek soilik  
egin dezakete alde  
baina estatuak nola dabiltzan  
beste itzal batzuen alde  
sententzi oro dago idatzita  
ez rekursu ta ez galde  
baina moroak bai gu moroak  
elkar babesteko gaude  
ta babes horrek bilakatzen du  
pertsona bat errugabe. (bis)



# **BAT-BATEKO SARIKETAK**





## **DONOSTIA (2011-01-21)**

### **Mikel Laboa Sariketaren I. ekitaldia.**

*Bertsolariak: O. Barroso, A. Illaro, U.  
Gaztelumendi, A. Karrika, A. Labaka eta A.  
Mujika.*

*Gai-emailea: Jon Eskudero.*

Antiguako Gazte Asanbladak antolaturiko sariketa. Dokan izan zen, San Sebastian biharamunean.

### *U. Gaztelumendi*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11v7pg>*

Gaia: Askotan pentsatzen duzu aukera gehiegi eman dizkiozula.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

*Doinua: Txikitatikan edukia dut*

Larunbata da ta parrandara  
akabo nere problema  
eta han dago betiko neska  
hemen dagon ederrena.  
Berriro ere joan natzaio  
baino hori ez da txarrena  
balantza edo herrena  
tabernarikan taberna.  
Zerbait nahi duen galdetu diot  
ni beti izan naiz pelma  
eta gaur arte beti bera zen  
ezetz esaten zuena. (bis)

Juergan segi ta Doka aldea  
aparte ez degu utziko  
gehio ez zaitut ikusi eta  
hemen segitzen det tinko.  
Tabernatikan hor pasa zera  
beti izan zaitut begiko  
zu sartu zera ta kito  
ta ni erdi etiliko.  
Nik juergan segi behar det hemen  
“Ei atera bi zurito”.  
Zure aukera galdu zenuen  
eta ez da itzuliko. (bis)



*Ikastetxeak Bertsotan. Deba.*  
*Argazkia: Debako Udala*  
*Iturria: XDZ*

## **DONOSTIA (AÑORGA) (2011-03-05)**

### **ORIXE SARIAREN FINALA**

*Bertsolariak: J. Uranga, N. Gabilondo, F. Zubia,  
I. Gurrutxaga, I. Ibarra eta Mantxi.*

*Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.*

Antton Aiestaran kultur etxean izan zen, larunbat arratsaldean. Jende multzo polita elkartu zen, laurogeiren bat lagun, eta gogotik txalotu zuten bertsolarien lana.

*J. Uranga-I. Gurrutxaga* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ukeo>*

Gaia: Zuek biok azken berrogei urteetan lanean aritu zareten enpresa ixtera doala jakinarazi dizuete gaur. Zu, Jokin, berehala hasi zara aurrera nola egingo duzun pentsatzen; Iñaki burumakur geratu da.

Neurria: Hamarreko txikia

*Doinua: Lagundurikan danoi I*

J. Uranga:       Orain zaharrak gera  
                      orduan nerabe  
                      gazterik egin ginen  
                      soldataren jabe.  
                      Mundua osasunez  
                      egon arren grabe  
                      aurrera egin ezazu  
                      lorik hartu gabe  
                      enpresa hil da baina  
                      gu bizirik gaude.

I. Gurrutxaga:     Jokin ez nazazula  
                          aurretik epaitu  
                          sufritzen dunak bere  
                          arrazoia baitu.  
                          Ba bai enpresa hil da  
                          ni ez naiz alaitu  
                          nahiz nik ere nahi nukeen  
                          aurrera jarraitu  
                          hirurogei urtekin  
                          nork hartuko gaitu?

J. Uranga:           Beti ez dira txarrak  
                          hirurogei urte  
                          oraindik badaukagu  
                          nahikoa bertute  
                          ta nik behintzat aurrera  
                          jotzea nahi nuke.  
                          Lur jota geratzea  
                          berri txarren truke  
                          zure seme-alabek  
                          zer esango dute?

I. Gurrutxaga:     Alaba bat ikasten  
                          zenbat jira buelta!  
                          Ta seme bat paroan  
                          etxean gordeta.  
                          Kontua beltz daukagu  
                          ta ez egin iseka!  
                          Zer pentsatuko dute  
                          kauen la puñeta  
                          haiek gero hoberik  
                          ez daukate eta!

J. Uranga: Bai ikusi behar dute  
aitak zer egin dun  
gauz gogorren artean  
ez da izan bigun.  
Lehen mila greba eginez  
sarri gera jardun  
borrokan bizitzea  
tokatu zitzaigun  
ba azken arnaserara arte  
borroka dezagun!

I. Gurrutxaga: Borrokarako oraindik  
sasoia izan hik  
nik neurekiko nion  
"Hireak egin dik!"  
baina esperantzarik  
badaukat oraindik  
nahi duzunean berriz  
pasatu hemendik  
zukin hitz egiteak  
mesede egiten dit.

### *J. Uranga* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11ulh4>*

Gaia: Estu besarkatu zaitu. Aspaldian ez duzu horrelako zirrarak bizi izan.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

*Doinua: Neskazaharrak eta apaizak I*

Munduan zehar bidaiatzea  
horixe nuen amestu  
diru pixka bat aurreztu  
gaur korreoko berri ankerra  
ezin ordea saihestu. (bis)  
"Ospitalean daukazu aita"  
neri aurpegia belztu.  
Gaur hementxe naiz aurkeztu  
malko artean "Kaixo" esanda  
besarkatu nauzu estu.  
Mundua ederra da oso baina  
honek parekorik ez du. (bis)

Era honetan ez gara egon  
lehenago hainbeste aldiz  
bioi bi begiek dizdiz  
urtebete bat pasa kanpoan  
igual gehiegi da neurriz. (bis)  
Galzorian dut nere aita ta  
orain ohartu naiz egiz  
nagoela bere premiz.  
Malko gehiago ez zazu bota  
jarraitu ezazu irriz  
aita orain zure ondoan nago  
ta ez naiz joango berriz. (bis)

Hirurok gaude ohe ertzean  
ze hirukote lasaia  
aita, ni eta anaia!  
Aurrerantzean ere horrela  
batzen behar dugu saia. (bis)  
Ospitaleko loreek dute  
zorionaren usaia  
benetan bazen garaia!  
Hau gauza baten hasiera da  
ez da ezeren amaia  
denok batera egingo degu  
bizitza honen bidaia. (bis)

## **GABIRIA (2011-04-16)**

### **Osinalde sariaren finala**

*Bertsolariak: A. Labaka, O. Barroso, A. Illaro, E. Igartzabal, A. Gorostidi eta N. Zinkunegi.*

*Gai-emailea: Jokin Murua.*

Osinalde elkarteak jendez bete zen beste behin bertsolari gazteen saioa hurbiletik jarraitzeko.

*A. Labaka*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11umjg>*

Gaia: Osinalde elkarteak zara. Dagoeneko urte batzuk badituzu, eta makina bat gauza ikusiko zenuen hemen.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas I*

Gabiri aldean nahastu ohi dira  
aurea eta atzea  
sukaldariei sarri askotan  
erretzen zaie eltzea  
ta gertatu da pareja asko  
komuneraino sartzea.  
Hemen denetik ikusi det nik  
bai poltsa ta bai trantzea  
baina batzutan hobe izaten da  
guztia ez kontatzea.

Entzule pila etortzen dira  
ez dira isiltzen bela  
aulkiak maitu tragoa eskatu  
ibiltzen dira horrela  
eta hemendik pasea dago  
bertsolarien tropela.  
Azkenengoan kantatu zuten  
ia onenek bezela  
eta gainera Ane Labakak  
eraman zuen txapela.



*Bertso westerna. Getxo..*

*Argazkia: Hitzetik Hortzera*

*Iturria: XDZ*



## **BAIGORRI (2011-05-14)**

### **Hernandorena saria**

*Bertsolariak: M. Murua, S. Alkaiza, A. Mujika, E. Erremundegi, G. Hiribarren, X. Alkhat, R. Christy eta I. Mendiguren.*

Bixentina aretoan izan zen, arratseko zazpi eta erdietan.

*Gai-emailea: Joana Itzaina.*

*S. Alkaiza*

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11vjjk>

Hitza: Gurea

*Neurria: Hamarreko handia*

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Fitero, Iruñea edo Baigorri  
kilometrotan jarduna  
historia, hizkuntza, ohitura zaharrak  
eta ametsen bilduma.  
Nahiz ta oraina izan litekeen  
beltza akaso iluna  
gurea dena hitz gutxietan  
da orain gure erresuma  
herri ekinez berriro ere  
batu beharko duguna.

## M. Murua

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11vkm0>

Hitza: Gurea

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Mundu honetan holako gauzak*

Kanpokoentzat nahiz soilik izan  
polita ta ezaguna  
gure herriari ta kulturari  
guk diogu maitasuna.  
Ardura aldetik batzutan ohi da  
izan biziki astuna  
“Gurea zer da? Zer da gurea?”  
pentsatu ohi dut laguna  
guhaurek ongi zaindu ezean  
desagertuko zaiguna.



*Euskalari Koplari lehiaketa. Zornotza.*

*Argazkia: AEK*

*Iturria: XDZ*

## MUTRIKU (2011-07-01)

### Plazatik Gaztetzera sariketa

#### Finala

*Bertsolariak: A. Labaka, A. Salegi, B. Iguaran, O. Iguaran, H. Iruretagoiena, P. Ormazabal, A. Azpiroz eta Ander Zulaika.*

*Gai-emailea: Asier Juaristi.*

Mutrikuko Gaztetzearan jokatu zen finala; lauogeita hamar lagun elkartu ziren afaltzera, eta askok kanpoan geratu behar izan zuten.

*B. Iguaran-P. Ormazabal*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11unls>*

Gaia: Lagun minak zarete, eta gaur elkarrekin bukatu duzue. Beñat, dudamudatan dago ohean sartu edo ez sartu, konturatu baita Peio lokartzen ari dela.

Neurria: Zortziko txikia

*Doinua: Kantatzera nijoa*

|             |                       |
|-------------|-----------------------|
| B. Iguaran: | Juergan arituak       |
|             | gu biok topera        |
|             | eta bukatzerako       |
|             | sartuak ohera.        |
|             | Nere buru barruan     |
|             | hamaika galdera!      |
|             | Lo egin al dezaket    |
|             | zurekin batera? (bis) |

P. Ormazabal: Lehen juergan nahi ninduzun  
ni barrutik bete  
eta esan didazu  
“Nao superpotente”.  
Orain ohera heldu  
ta su-eten eske?  
Mutil guzti-guztiak  
berdinak zarete! (bis)

B. Iguaran: Juerga ondo joan da  
nere ustez behinepin  
ondo pasatzen baita  
aldiho nerekin.  
Alkoholaz bete nahian  
ekin eta ekin  
ta orain bete nahi zaitut  
beste zerbaitekin. (bis)

P. Ormazabal: Oraintxe berriz jarri  
zara lagun de *guai*.  
Apurka-apurka joan  
hori hemen ez dut nahi  
bete behar nauzula  
esan didazu ai!  
Seguru ez zarela  
zut ipintzeko gai. (bis)

B. Iguaran: Zuregana arrimatu  
zera nahi det lortu  
“Zut ez zaizu jarriko”  
eta zera otu:  
biguina dagoena  
zerorrek gogortu  
ta hortik aurrerakoa  
lasai nere kontu. (bis)

P. Ormazabal:                   “Lehenago ondo egin  
bazenit igurtzi  
txikitxo hau bihurtu  
behar zen nagusi”.  
Politikoa zara  
hori dut ikusi:  
burokrazia asko  
ta ekintza gutxi! (bis)

### *B. Iguaran*

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11uoo8>*

Gaia: Badakizu zure buruari gezurretan ari zarela.

Neurria: Hamarreko handia

*Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke*

Kotxea hartu ta etorriyak  
gera kostatik barrena  
Mutrikura jun ta eman nahi nuen  
nik barruan nuen dena.  
Ai zenbat neska dauden hor behian  
ze begirada zuzena!  
Atzeko hauek ligatu nahian  
ematen didate pena  
dudarik gabe ni naizelako  
hemen dagon politena. (bis)

Gaztetxen sartu ta hiru neskak  
derrepente egin salto  
jode ez nekien nengoenikan  
horren polit horren guapo!  
Gaur pentsatu det “Hau hola bada  
bueno kunplitu beharko”.  
Jakin badakit gezurra dala  
baina lotsatu zertako?  
Maiz amestea ittea baino  
askoz hobe delako. (bis)

## **ZARAUTZ (2011-09-02)**

### **Lizardi Sariaren finala**

*Bertsolariak: A. Urbietak, O. Barroso, A. Azpiroz, O. Iruretagoiak, A. Illarok eta B. Iguaran.*

Gai-emailea: Felix Zubia.

*Gai-jartzaile: Zarauzko Motxian Bertso Eskola.*

Zinema pilotalekuan izan zen finala, ostiral gauean. Finalera nor saikatuko zen erabakitzeak saioak afairstean egin ziren, aurreko astean.

*A. Azpiroz-O. Barroso* 🎵

*<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/11upqk>*

Gaia: Zuen buruaz beste egiten saiatu zarete biok, baina ez duzue lortu.  
Larrialdi zerbitzuan zaudete orain, elkarren ondoan.

